IV. AHOSKERA JARDUNALDIAK

Doneztebe, 1998-IX-25/26

AHOSKERA LANTALDEAREN ERRENDAPEN TXOSTENA (1)

Donostia, 1998-VII-30

Miren Lourdes Oñederra,
euskaltzain urgazlea,
Ahoskera azpibatzorde arduraduna eta
Euskal Herriko Unibertsitateko
irakaslea, Gasteizen

0. LANTALDEAREN NONDIK-NORAKOAK

Txosten honen helburu da Ahoskera Azpibatzordearen Lantaldeak, 1995eko akabuan abiatu zenetik hona, egin duenaren berri ematea. Ahoskera Batzordearen 1994ko txosten hartan bezala, hemen ere egindakoaren baldintza, arrazoi eta neurriak agertzen saiatuko naiz (2).

Esan genezake Lantaldearen lanak bi aro nagusi izan dituela. Batetik, 1995-1996 eta 1996-1997 ikasturteetan 1994an Leioako Biltzarrean plazaratu arau-proposamenen azterketa teoriko eta praktikoa egin zen lantaldekideen artean (aintzat hartu behar da irakaskuntza eta komunikabideetako ordezkariz dagoela osatuta taldea). Ikasturte honetan, 1997ko azken hiruhilabetekoan zehar, Lantaldetik kanporako mintegiei ekin diegu, oraingoz Nafarroako IBIn eta Donostia, Bilbo eta Gasteizko IRALEn egin direlarik.

Gure iritzian, hemendik aurrerako Lantaldearen egitekoak lirateke datorren iraileko Ahoskera Jardunaldien prestaketa eta mintegiak komunikabideetara zein Iparraldera zabaltzea, Euskaltzaindiak asmo horiek ontzat ematen baditu.

---

(1) Donostian, 1998-I-30ean aurkeztua Euskaltzainen Osoko bilkuran. Nire esker zintzoena urteotan, bileraz-bilera, ahoskeraren korapiloez gehiago ikasteko indar eta gogo eman didaten lantaldekideei. P. Etxeberria, A. Kintana, J. Urrutia, J. Aurre, J.C. Hernández, J. Kortabarria eta I. Etxebarriaren lan eta denborei asko zor diete lerro hauek.

(2) Ikus testua Euskaltzaindiaren XIII. Biltzarrari eskainiriko *Euskera* aldizkariaren alean (*Euskera* 39 (2. aldia), 1.589-1.605). Hemendik aurrera, Ahoskera Batzordearen Txosten hori aipatzeko, ABT laburdura erabiliko da.

1. LANTALDEAREN EMAITZEZ, ALDEZ AURRETIKAKO GOGOETA OROKOR BATZUK

Lan praktiko, enpiriko, esperimentalaren ezaugarri da moteltasuna, kontatzeko berri gutxi eta poliki sortzen dela, ondorio diztiratsurik apenas dagoela, alegia 1994kotik aldaketak ez direla nabarmenegi.

Gogoeta horren osagarri eta ozen esan beharrekoa da saiatu garela ondratu izaten eta ez gure ustea eta nahia nola edo hala sartzen, saiatu gara hizkuntzaren erabilera errealetan zer gertatzen den entzuten eta aztertzen. Gure beste ahalegin inportantea izan da taldelanaren bidez komunikazio-zubiak eraikitzea akademiako *(sensu lato)* araugile eta arauerabiltzaileen artean, azkenon jarrera pasiboa, kontsumitzailearena hausten saiatu garelarik mintegi eta bileretan. Zaila da. Besterik gabe, aginduak edo aholkuak ematea baino zailago behintzat. Lehen urtea zenbait inertzia hausten joan zitzaigula uste dut neurri haundian. Garrantzitsu iruditu zait gaur hau hemen esatea ahoskeraren arautzearekin datorkigunaren neurria eman dezakeelako.

Baten batek galdatuko balu zertarako sartu nahi izan dugun zailtasun horietan, gogoraraziko nioke 1994ko aurkezpenaren azkena (ABT, 1.604-1.605). Onartu zuen Euskaltzaindiarekiko zorra eta gure buruarekiko zintzotasuna izan ditugu gidari. Izan ere, orduko gure usteen eta ondorioen gainean ekin zion lanari Lantaldeak, gogoan harturik:

a) Ahoskera ezin dela idatzia bezala arautu, baina horretaz luze aritu ginen 1994koan (ikus ABT, 1.954 orrialdekoa, besteak beste).

b) Araugintzaren arrakasta eta baita hizkuntzari egin diezaiokeen mesede-kaltea ere zuzenean daudela loturik arauen nolakotasuna eta egokitasunarekin.

Egokitasun eta nolakotasun horiek, ahozkoan, bi aingura dituzte: hizkera-mailak eta prosodia. Hizkera mailak ulertu eta landu ahal izateko prosodia (ez azentua bakarrik) aintzat hartzea ezinbesteko da, prosodia delako hizketa eta hizkuntzaren arteko muga eta zubia den errealitatea. Hizketa, ahoskera arautzean arautu nahi den hori, prosodiaz jantziriko hizkuntza da. Prosodia ezberdinak dira hizkera-maila ezberdinen oinarri eta bide. Oso presente izan dugu hori guztia gure lanetan. Sortzen diren zailtasun didaktikoak izan diren gure bilera eta iharduera askoren gai.

2. HIZKERA-MAILAK

Gure ustez, Euskaltzaindiari dagokio beste inori baino lehenago eta neurri handi batean, arauekin batera —oso batera edo lehenago, baina, batik bat, oso

argi— Euskara Batuaren erabilera-esparruak finkatzea (ikus ABT, 1.589, 1.oinoharra ere).

Egia da zailtasuna dela hemen ere erraztasuna baino ugariago. Egia da gure arteko maila edo errejistro falta ez dela linguistikoa bakarrik. Euskaraz aritzen garenok gutxi(ago) eta ezagun(ago) gara edo izan gara behintzat. Dudarik gabe orain hizkera jasoa justifikatuko luketen erabilera eremuak gehiago dira eta hiztun klaseak ere ugaltzea indartu beharreko kontua dela esango nuke. Guk aldagarritasunaren aukera linguistikoez arduratu beharko genuke behintzat (3). Hizkera jasorik ez bada, ez da ahoskera arau baturik behar.

Alde horretatik Batua, Euskara Batua, oso zaindu beharreko kontzeptua delakoan nago, *bere* onerako (euskalkiak babestu beharraz gehiago hitz egin dela dirudi): Ahoskera Lantaldean ahoskeraren funtzionamendua bideratzeko ezinbesteko izan zaigu Batuaren definizio edo berdefinizioaz jardutea.

Norbaitek esan beharko du Batua euskararen estandarra izatea nahi badugu (hizkera jasoaren euskarri, euskalkien arteko zubi, e.a.), zer den estandarra, nork eta zenbat erabili behar duen; beharbada, gainera, hiztun askori nahikoa zaiela estandarraren ezagutza izatea, Batua arrotz ez gertatzea; % 100ean erabiltzea nori dagokion (badagokio), e.a. Ahoskera arauak ezin dira hori gabe eman (hemen luzeegi gertatuko litzatekeen ahoskera eta gramatikaren diferentzia garrantzitsua dago arautzeari dagokionean). Hizkera estandarraren erabilera-neurri eta -esparruak finkatu aurretik ahoskera arauak eman eta eskatzeak ez lekarke euskal ahoskeraren babesa, izozte eta heriotza baizik.

3. PROSODIA

Erabiltzaile profesionalei, eredu moldatzaile eta zabaltzaileei dagokie neurri haundi batean prosodiaren zaintza. Izan ere, irakasleei, bikoizleei, itzultzaileei, esatariei, antzezleei zuzentzen diegun mezua da: prosodia aintzat hartu behar da kontsonanteak eta bokalak bezainbat, kontsonante eta bokal horiei euskal ahoskera egokia ("sinesgarria") eman nahi bazaie. Benetako hizketa ez da letraka gertatzen esaldika baizik, laburrena hitz bakarreko esaldia izanik (silaba bakarrekoa daitekeena <hi!> edo <ah!>, <ez> bezalako esaldietan). Ikasi behar dugu eta irakatsi behar dugu, beraz, hitz andanak erritmo, azentu eta entonazio ereduetan txertatzen: benetako esaldi diren hitzak esaten. Bestela, hiztegi-gramatiketatik ateratako hitz hilez betetako esaldi baldarrak ahoskatuko ditugu.

(3) Nahasketa handia da: beren euskalkian egiten duten politikariak (irrati elkarrizketa batean, esaterako), irakasle eta euskaltzainak inolako aldaerarik egiten ez dutenak jendaurre ofizialetik bazkalondo lasaira. Alderantziz, bestalde, i(ra)kasle asko, intentzio onez beterik, Batuaren dogmak irentsi ditu eta etxekoa inoiz ez erabiltzen saiatzen dira.

Euskaraz ez dirudi gauzak azentuaren kokalekua aurkitzearekin konpontzen direnik. Gero eta zehazkiago bilatu, erantzunak ugaldu eta korapilatu egiten baitira. Gero eta azpisistema gehiago agertzen dituzte agian behar baino gehiago (gure kontu praktikoetarako) entzuten duten makinek. Euskal azentuaren kokalekuaz 1982az geroztik (gogora Azkoitiko Ahoskera Jardunaldiak) gutxienez bagabiltza eta *ad aeternum* ibil gintezke. Ikaskuntza kontuetarako, euskal azentua izan ez duen hiztun berriarentzat edo hizkuntza dotoretu nahian galdu duen zaharrarentzat, txarra da euskararen azentua oro har: ez da prosodikoki erregular izaten, lexiko-gramatikalki erabat sistematikoa erez ez da eta, denean, sintaktikoki aldakorregia da, akustikoki ez da nabarmenegia euskalki askotan (zabalduenetan agian) eta, ziurrenik horrekin lotua dena, aldagai akustikoak ez dabiltza beti (inoiz ez?) batera (inguruko hizkuntzetan baino beregainago direla, esaterako, intentsitatea eta altuera). Honetaz luzeago arituko gara P. Etxeberria eta biok iraileko Ahoskera Jardunaldietan.

Labur esanda, horrek guztiak oharmenaren aldetik iheskor gertatzen den azentua ematen digu: i(ra)kasteko orduan, azentu txarra dugu. Ez dut uste kasualitatea denik zenbat kostatzen zaigun antzematea, makinarik ez baina belarria bazuten euskalari zenbaitek ez zegoela esatea eta, batez ere, Batuarekin gertatzen ari dena.

Prosodiazko arazoak zintzilik geratu ziren 1994an. Garbi dago eta fonetikarien datu akustikoek ziurtasun hori areagotzen dute (ik. urteotako Gaminde, Gandarias, Hualde eta besteren deskribapenak): euskal azentu-sistemak bat baino gehiago direla. Panorama nahasi horretan, dena den, bada euskaldun zaharrari oso nabarmen gertatzen zaion banaketa, honako multzoetan jaso genezakeena (4):

a) Euskalkiak eta bere sistemak.

b) Batuak eta bere sistema (esango nuke sistema bat baino areago "tipo" bat dela) (5).

Gertatuaren historia posible bat asmatzen jarrita, aitortu behar dugu gutako askok Batua ikastean egin dugula hizkuntzaren ezagutza formala: ikasi dugu gramatika-arau jakin batzuen bidez egituratzen gure esaldiak eta gero eta lotuago datorkigun hiztegi baten bidez azaltzen gure kontzeptuak. Ahoskerazko arauen ezean letrak, ortografia aurkitu berria, hartu dugu nolabait gidari.

Horregatik edo bestela, ez dugu gure ahoskera baliatu euskara berria geureganatzeko... ez du norberak berea erabili. Nola, *det* esan beharrean, *dut* esan

(4) P. Goenaga irakasleari entzun nion, hitzaldi baten ondorengo eztabaidan, arazoaren formulazio gardena. Azkoitiko Jardunaldietan ere presente zen gogoeta.

(5) Ezaugarri orokorren zerrendan jarri beharko genuke, besteak beste, prosodikoki erregularra dela gehienegan eta fonetikoki —akustikoki (intentsitate eta maiztasunaren aldetik)— monolitikoa beti. Azentu-kokatze erregularra gazteleratikako eredu lexiko zenbaitek hausten dute (cf. *paténtea, konpatíblea, ebidéntea* bezalako ez-paroxitonoak).

behar den eta, *neban* esan beharrean *nuen* esan behar den, doble-salto-mortalean, [esta] esaten zuenak [ezda] esaten du, *telefon[ua]* esaten zuenak *telefon[oa]* esaten du eta [estet] > [ezdut] bihurtu da.

Alegia, hizkuntza estandartzeko eman arau gramatikalak betetzean, ahoskerari lekua ukatu zaio Batuan. Aldaketa gramatikal hutsak esan nahiko luke [estet]-etik [estut]-era pasatzea, ez gehiago. Nik dakidala, honen aurrean zerbait esan zuen bakarra Txillardegi izan zen.

Prosodiaren kasuan agertzen dira gauzak garbien ziurrenik. Geure hotsak atera eta josteko modua utzi dugu. Batzuek gehiago besteek gutxiago, geure doinua utzi dugu. Baina, nola ezin den ebakera gabe hotsik atera, nola ezin den doinurik gabe hitz egin, beste zerbait erabili beharrean aurkitu gara. Azken batean hitz egitea hitzak musikan jartzea baita (David Stampe eta Patricia Doneganen eran esanda). Euskara berriak (batzuentzat beste batzuentzat baino berriago, ezberdinago) doinu berri bat hartu du, forma berriek, forma "h"dunek, "det" edo "dot"en ordezko "dut" eta "gira"ren ordezko "gara"k, musika berria ekarri digute: azentu erregularra, prosodia "on" bat, "erraz" bat. Non-nahi entzuten dira <joatén bagára kótxez>, <burúko mína dáwkat> eta antzekoak.

Eredu zabaldu xamarraren ezaugarri orokor dugu itxura trokaiko hori: funtsean azken aurreko silabaren indartze erregular eta nabarmen horietan gauzatzen dena (ikus goragoko 5. oinoharra ezaugarri fonetikoez). Zentzuzko dirudi eredu horrek gazteleraren laguntza duela pentsatzeak. Bestalde, gogoratu behar da zenbait euskalkitan ere ez dela erabat arrotz (ez naiz zubereraz bakarrik ari, baina joera honetarako bilakaera beteenaren etxeko adibide dugu) eta edozein euskalkitako zenbait hiztunek gutxi-gehiago erabiltzen dutela modu ezberdinetan (6).

Hemen bi aukera ditugu: berritasun prosodiko emankor horri bide eman, gerta dadila, ala saiatu lehengo neurri eta doinuak gordetzen eta estandarra horiekin konpatible egiten. Lantaldeak bigarrenaren alde egin du apustu, pentsatuz prosodia dela gainerakoaren oinarri ahoskeran.

Gure lan eta eztabaiden ondorioen arabera, prosodia da hizkuntza baten fonologia ulertzeko giltza, behar bezala ahoskatzen ikasteko funts ezinbestekoa eta normaltze bilakabidean, arautze-egokieran, hortik hasi beharko genuke. Ikusi dugu, esate baterako, hitz neurriak direla ekialdeako euskalkien diptongatze ugariagoen oinarri, errazago dela gaztelerazko <z> horzkaria ez egitea esaldia prosodia egokiarekin esaten bada, e.a. Hori ikasgeletara eramateko ariketa bereziak prestatu beharko lirateke eta horien nondik-norakoak asmatzen ere saiatu gara. Nahiko genuke irakaskuntz metodoetan lan egiten dutenekin zenbait gauza eztabaidatzeko aukerak sortzea.

(6) Ez bide da halabehar hutsa prosodia eredu hauen oparotasunean enfasiak (zenbait hiztunek garatuago dituzten kode hiperbolikoak) bat etortzea berritasunekin (hiztun berriak, baina baita ere hiztegi berriak, hizkera-modu berriak hiztun zaharrentzat).

Oraingoz esan dezakeguna da, gure ustez hizkuntzaren prosodiaren ziria erritmoan duela euskarak eta hori behar genukeela ikaskuntzaren ardatz. Erritmoa, metrika sendo eta ñabarmena ditu euskarak. Izan ere euskal ahoskeraren bereizgarri oinarrizkoenak ziurrenik erritmoan daude sustraituak. Ziurrenik euskal fonologiak silaba egitura du bizkarrezur eta azentua horrek eskatzen duen erritmoaren menpeko.

Gainera, prosodia esandakoagatik beti bada garrantzizko, ahoskeraren arautzeak areagotu egiten du prosodiaren garrantzia. Ahoskerarekiko sentiberatasuna handitzen du jakinaren gaineko arauak bete beharrak eta horrek ugaldu egin ditzake desegokitzat jo ditugun azentu-erak. Beraz, arautzeak behar bezalako irakaskuntza eskatuko luke: lehendabizi esaldiaren prosodia, kantua, funtsean erritmoa den horretaz jabetu; gero hor sartu, hor txertatu kontsonante eta bokal kateak.

4. 1994an AURKEZTU ARAU-PROPOSAMENEN BERRIKUSKETA

1993 eta 1994 urteetan Ahoskera Batzordearen lanean ere oso aintzat hartu zen *fortitio* (indartze)/*lenitio* (ahultze) ahoskera fenomenoen sailkapenarekin jarraitu dugu lanean (7). Orduan bezala, sailkapen horretatik, indartze edo fortitioak hobetsi ditugu, oharmenaren mesedetan gertatzen direnak baitira eta, beraz, arautu nahi den hizkera maila eta erabilera esparruetarako aproposen. Fortitibo edo indartzaile direlako, uler daiteke guk zaintzea eta hobestea afrikatzeak, heskari hasperendunak, zistukariaren ondorengo ahoskabetzeak, hasperena, hiatoak diptongoen gainetik, e.a. *Fortitio* dialektologikoki zatituegiak bakarrik baztertu dira orain ere orduan bezala (*-iya, ixa, ia*, bezalakoak).

Horrela, formulazio batzuetan atzera egin behar izan dugu, proposamenak zehaztu eta malgutu (esaterako, bokal solteena, [ü] gehituaz) eta zabaldu: goranzko diptongoena (ekialdeko euskalkien prosodiaren eskari), prosodiarekiko zailtasunaren aitormena, eta abar. Hau lanaren zintzotasunaren eta errealitatearen konplexutasunaren seinale da.

Irakaskuntz erraztasunari begira, eskatzen diren hots-bereizkuntzen artean mailak daudela ikusi dugu, hala nola, errazagotik zailagora ordenaturik: r/R ("erran"), s/z ("hasi"/"hazi"), ll/y ("silla"). Halaz ere eta *fortitio* edo kontrasteen indartzea hizkera zainduaren ezaugarri delako eta oraindik bereizten dituzten hiztunak nahikoak direla berretsirik, Ahoskera Batzordeak 1994an artamendatuaren bidetik ezberdintasunei eustea proposatzen dugu.

Beti ere hizkuntzaren errealitatea aintzat hartuta, gure arau-proposamenak honela sailkatuko genituzke:

(7) Ikus, zatiketa horren aurkezpenerako, M. Lourdes Oñederra, 1986, "Hizkuntzen fonologia", *Euskera* XXXI (2), 327-332.

a) Aukera bakarra ("ez[t]akit", "ez[t]u").

b) Aukera zaindua.

b.1. Gutxienez hizkera maila horretan erabili beharko litzatekeena: "biolo[g]ia" edo hasierako "j" [y] ahoskatzeko gomendioa "jan" bezalako hitzetan; alegia, beste hizkera maileta ere erabil daitezkeenak.

b.2. Gehienez hizkera maila horretan erabili beharko litzatekeena, hiztunak bestelako aukerarik duenean bere euskalkian; alegia, gainerako ahoskerak ere bultzatu beharko lirateke: "ari" [aɽi], [ai], [aj]; "edan" [eðan], [eɽan], [ean]; "esnea" [esnia], [esnie] eta horrelakoak).

c) Aukera askotarikoa (euskalkien araberakoa: esate baterako, palatalizazioa vs. despalatalizazioa; "garaje" edo "erlijio" bezalako hitzetan dauden "j" horiek; <h> ahoskatuak eta isilak, eta abar.

5. MAILEGU ETA HITZ-ERAKETA EDO HITZ GAZTEAK ETA LETRAREKIKO MENPEKOTASUNA (EUSKALDUNAK IRAKURLE BERRIAK GARA)

Eremu honetakoak dira beste batzordeetatik eta kanpotik etorri zaizkigun kezka guztiak. Garbi dago euskal hiztunek (erabiltzaile aktiboenek) irakurri eta idazten ez zutenean, euskal fonologia osasuntsuago zela askoz. Saia gaitezen, bada, gauzak bideratzen alfabetizazioaren zalantzarik gabeko abantaila handiei etekina ateratzeak ez dezan hizkuntzaren ahoskera ahuldu. Mendez-mende eta belaunaldiz-belaunaldi hiztunen belarri eta ahoak atondu ditu mailegu, konposatu eta eratorriak euskal hiztegian sar zitezen, horrela gure aukera lexikoak zabalduz eta aberastuz.

Orain gauzak konplikatu egin zaizkigu. Gure arbasoen espontaneitatea, bat-batekotasuna, inozentzia galdu dugu (8). Alde batetik lexikoa zabaldu beharra handitu, larritu eta azkartu egin da. Bestetik, gure ziurtasunik eza, gure kultura linguistiko falta dago: dena letretan jarri da, kasurik onenean, Batuaren letretan, txarrenean, erdarazkoetan (9).

Honek guztiak ahoskera arautu beharra indartzen du. Saiatu gara malgutasunez jokatzen (hizkuntzatik teorizatzen eta ez gure aurre-iritzietatik) eta hizkuntzaren errealitate historikoa (diakronikoa eta sinkronikoa) aintzat hartzen. Hortik emandako erantzunen norabidea. Pentsatzen dugu idazkerak gardenta-

(8) Hori, gramatika ikasteko ona izan daiteke, baita batasunerako edo zatiketa ez areagotzeko behintzat; ahoskera bizia izateko, ordea, txarra da oso.

(9) Euskaltzaindiak ere askotan joskera fonologikoaren kontra eta gardentasun morfologikoaren alde egin du *(batipat > batik bat)*; ez beti, dena den (*bait* gara > *baikara*). Orain ikasi behar duguna da aukera ortografiko ezberdinak egokiera bakoitzean behar bezala irakurtzen.

sun morfologikoaren alde egin dezakeela hitz-eraketan (hitz eratorri eta elkartuetan), baina, horrek euskal fonologiaren joeren bortxatzea bultza ez dezan, ahoskera arauak beharrezko direla.

Gure eginahalaren mugen jakitun izan beharko genuke, gogoratuz ahoskera dela izaera fisiko tenporala duen hizkuntzaren alderdi bakarra eta berau dela gainerako hizkuntz osagaien iragazki eta gertaleku. Horregatik sortzen dira hitz elkarketa morfologikoan zailtasun fonologikoak, zenbait hitzen hurrenkerak edo berritasunak dakartzan erritmo arazoak, eta abar.

Hori dela-eta, arauak eskatzen ditugu, baina arau malguak eta askotarikoak. Uste dugu arauen formulazioan agertu behar lukeela hizkera zaindurako artamendatzen dena, baina baita gainerako hizkeretarako egoki diren ahoskeren adibideak ere. Hobe arauak gutxi, errealistak eta praktikoak badira. Horrela eman eta horrela hartzea da kontua, noski.

Zenbaitetan gertatzen da, Euskara Batua aitzakia hartuta, irakasle eta aztertzaile batzuk Euskaltzaindia baino gogorrago eta estuago aritzea. Ahoskeraren kasuan arriskua handiagoa izan liteke, errazagoa baita debekuen bidez suspenditzea ahoskera irakastea baino. Uste dugu arauak behar duten malgutasun eta aniztasunaz formulatzeak azterketetako aitzakia ere kenduko lukeela ikasgeletatik. Irakasleek Euskaltzaindiaren babespean, erabileraren bidez, irakatsi ahal izango lukete ahoskeraren aldagarritasuna.

Beti ere gogoan izan beharko genuke hitz berriak (maileguz etorriak edo elkarketaz sortuak) euskaratzen lagunduko duten arauak lortuko baditugu, arau dinamikoak behar dutela izan: joerak, jomugak, norabideak. Ahoskera bizia arautzeko ez du balio hitz zerrendak emateak. Ezin dugu esan *ez da* [esta] bai, baina *noiz dator* [nojstator] ez... Agian gezurra delako eta hizkuntzaren emaitza posible bat (maiztasun txikiagokoa, noski) debekatzen ari garelako. Kontua da erritmoaren araberako elkartze maila, diptongo kontuetan bezala. Hori hizketagertakari bakoitzak emango du (cf. *nóiz # datór* (etenaz) vs [nójs'atòr] (batere etenik gabea).

Kontua da *euskaltzinema* (10) bezalakoak ez debekatzea, zaildu ere ez egitea: "pertzeptzio" edo "kontsentsua" gehiegi gertatzen zaizkionak berak blokatu du "tz" edo "ts" horietako bat (edo biak), baina guk bide irekiak eskaini behar ditugu, ez hesidunak. Aldakortasuna (mailak) posible egiten duten arauak behar ditugu. Arauek tresna izan behar dute, euskaraz ahoskatzeko trukoak, formula zailak baino areago.

Gainera, ahoskera arauak hizkera zainduagorako joeratzat hartu behar genituzke eta dinamikoki ulertu: gero eta arau gehiago hobeto bete, gero eta jasoago gure hizkera (zentzu batean bortxatuago, artifizialago, noski).

(10) Nahigabe esan zuen gazte batek irratiko elkarrizketa batean. Garbi dago honelakoak urduritasunaren, argitasun nahiaren, hots baten mihi-mogimendua hurrengoarenarekin trabatzearen eta abarren emaitzak izaten direla. Baina zer bestek osatzen du, bada, hizkuntzaren fonologia?

Bestela, betiko jokoan eroriko gara, edozein proposameni aurki dakioke salbuespenen bat. Salbuespenena beti izan da eztabaidagi eta sarritan proposamenen oztopo gelditzaile. Nahikoa da zerbait proposatzea bakarren bat kontrako adibideren batekin ateratzeko. Gure erantzuna litzateke ahoskera joera biziak aurkitu eta hobetsi behar ditugula. Lantaldean hiztunen ahoskerak aztertu ditugu ikusteko zer ordezkatze bizirik dagoen eta erabiltzen den. Ez du horrenbeste axola hiztunak beti-beti egiten duen ala hitzen batean huts egiten duen. Beti ere, euskararen ordezkatzeak egitea hobetsi eta bultzatzea proposatzen dugu, nahikoa ari baitira galtzen erdararen eta idatziaren eraginez. Horregatik bultzatzen dugu, adibidez, afrikatzea "fanzinea" bezalakoetan ("fantzinea"), alegia, inor derrigortu gabe, hobetsi (ahoskeren norabidea euskaraz gutxieneko emankortasuna duten ordezkatzeen aldera zuzendu).

6. ONDORIOAK

Esandakoa debeku batean laburbiltzea zilegi bazait, esango nuke gure lanaren ondorio honako hau dela: hitz zerrendarik ez, hitzik ere ez ahoskera arautzeko. Arauak irakasteko orduan, berriz, esaldietan irakatsi, esaldietan hitzegiten baita. Ahoskera esalditan eta ez hitz solteka ikasteak zenbait arazo konponduko edo arinduko dizkigu: ez dira salbuespenez eta euskalkikako aldaerez josiak dauden singular-plural zerrendak ikasi beharko, ezta azenturik gabeko euskal hitzen zerrendak ere, galdera zuzenen entonazioz esaten diren galdera txertatuen arazoa ere ez legoke aparte, e.a. Alegia, funtsean, prosodia ikasten da eta prosodia ongi bereganatu duena hobeto moldatuko da behar bezalako kontsonanteak, bokalak eta kontsonante-bokal kateak ahoskatzeko.

Zaila da. Dudarik gabe. Baina saiatzeak merezi duelakoan gaude. Orain artekoa ikusi dugu. Ez dut uste bakarrik geldituko nintzatekeenik esango banu orain arte proposatu diren araubidezko azentu irakasbideek ez dutela gauza askorik lortu. Azentu i(ra)kaslerik onenak musikari onak, belarri ona eta pazientzi handia duten irakasle, andereño, kantari, teatro-jendea da.

Ahoskera behar bezala arautuko badugu, dena den hemen ez da inor libratzen lan berrietatik. Ahoskera zaindu beharrak dakar orain arte ikastekoa izan ez den alorrean ere ikasi beharra eta asko dugu denok elkarrengandik ikasteko: euskaldun zaharrek emango dute eredu prosodikoa, kantua, doinua, erritmoa. Euskaldun berriek erakutsiko digute diziplina pixka bat izaten eta, "arraro" egiten bazaigu ere, *horiek* 'r' eta guzti ahoskatu behar dugula eta hobe dela *jan* aditzaren lehen kontsonantea ez ahoskatzea gaztelerazko *jamón* hitzaren lehenengoa bezala euskaldun guztientzako mikrofono aurreko saio batean, alegia euskara estandar batua erabili nahi dugunean. Horrelako eginahalak, alegia ahoskerarekin ahaleginak egitea, bertsolariek ezagutzen duten abilidade hori (silaba bat gehitzeko egiten dituzten diptongo haustea edo bokal luzatzeak, *horiek* hiru silabakoa izan dadin "gordetzen" duten "r" hori, e.a.), zergatik ez

besteok? Kontua, hemen ere, neurrira iristea da. Bakoitzak bere eginbeharrak eskatzen dionera iristen saiatu beharko du eta gehiago edo gutxiago ere ez egiten (11).

Azkenik: zentzuzko izaten saiatu gara: "jan" eta "garaje" ez dira gauza bera, "dialektolo[g]ia" zaila bada, areago "dialektolo[g]ikoki". Hizkuntzaren errealitatearekiko begirunea ez galtzen ahalegindu gara, baina ezer ez daitekeela egin dioen derrotismorik gabe. Ahoskera neurri batean lotzen ez bada (horrek komunikabide eta irakaskuntzaren aldetik izan litzakeen arazoak aparte) euskalkien ugaltze, bereizte eta erdaratzea azkartu eta indartzea datorkigu. Hortik ahoskeraren zatirik berezien, propioen, funtsezkoen ziurrenik "ahoskeraren", harrapagaitzen eta arautezinen den prosodiari eman diogun garrantzia.

(11) Alde bietatik zaindu beharreko neurriarena azpimarkatu behar da hemen: ez gaitezen ahoskera bakarraren tentazioan error. Ikus goragoko 3. oinoharra.

IV. AHOSKERA JARDUNALDIAK

Donezтebe, 1998-IX-25/26

Ahoskera azpibatzordea / lantaldea:

Arduradun: Miren Lourdes Oñederra
Idazkaria: Pilartxo Etxeberria
EITBko aholkularia: Igone Etxebarria
Arabako IRALEko irakaslea: Jon Kortabarria
Bizkaiko IRALEko irakaslea: Jon Aurre
Gipuzkoako IRALEko irakaslea: Juan Carlos Hernández
Nafarroako IBIko irakaslea: Adelaida Kintana

Antolakizun taldea:

— Andres Iñigo, euskaltzain urgazlea eta Nafarroako Euskaltzaindiaren ordezkaria
— Jose Luis Lizundia, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren idazkariorde eta kudeatzailea
— Pello Telleria, Euskaltzaindiaren eragile teknikaria
— Ricardo Badiola Uriarte, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren argitalpen eragilea
— Gema Insausti, Euskaltzaindiaren Nafarroako Ordezkaritzako idazkaria

LA ESTANDARIZACION DE LA PRONUNCIACION Y LA VARIABILIDAD LINGÜISTICA

Santesteban/Donezteb, 25-IX-1998

Dolors Poch Olivé,
Departamento de Filología Española,
Universidad Autónoma de Barcelona

1. LAS DESCRIPCIONES FONETICAS TRADICIONALES

La concepción imperante, hasta hace muy pocos años, del estudio del lenguaje arranca de Saussure (1916) y de su distinción entre *lengua* y *habla*. Para Saussure, el centro de interés de la lingüística lo constituye la lengua, el sistema en tanto producto social. En efecto, cuando este autor afirma que *"Le tout du langage est inconnaissable"* (1916, 1980: 38) lo que hace, en realidad, es dirigir el interés de la lingüística hacia la *"lengua"* negando, de forma explícita, la posibilidad de estudiar el *"habla"*. El estudio del lenguaje se concibe así como un interés por su aspecto "colectivo", por aquello que es producto del "pacto" entre los hablantes o, dicho en otras palabras, por aquello que es "invariable" en las lenguas. Se suele aceptar, por tanto, que el objetivo de cada una de las diferentes ramas de la lingüística consiste en determinar la estructura de los diversos aspectos de las lenguas: fonética, fonológica, morfológica, sintáctica, semántica, etc., siempre desde el punto de vista del sistema. Las dos grandes escuelas lingüísticas del siglo XX, el estructuralismo y la gramática generativa, comparten este punto de vista aunque las soluciones que aporten y las perspectivas en las que se sitúan para llegar a alcanzar dicho objetivo sean muy diferentes. En ambos casos, los lingüistas no toman en cuenta el *habla* (en el sentido saussureano del término) sino que el interés de los diversos autores se centra en la lengua.

Este interés por la lengua y no por el habla ha condicionado fuertemente, durante casi todo el siglo XX, la metodología de trabajo de la lingüística, los corpus estudiados y el tipo de razonamiento efectuado a partir de los datos recogidos. Por lo que respecta a la fonética, el método de trabajo y el tipo de argumentación que podemos denominar "tradicional" consiste, en una primera etapa, en la preparación de una lista de sílabas, palabras o pequeñas frases que contienen aquel sonido o combinaciones de sonidos que constituyen el objetivo del estudio. A continuación, se pide a los informantes previamente seleccio-

nados que lean esa lista, en una habitación debidamente preparada por lo que a las condiciones acústicas se refiere, y "con naturalidad", con vistas a obtener una lectura lo más parecida posible a las realizaciones "reales". Esta forma de trabajar, es decir con corpus que podemos denominar "de laboratorio", permite controlar cuántas veces van a leer los informantes los sonidos estudiados, en qué entorno fónico están situados dichos sonidos, en qué posición se encuentran con respecto al acento, etc. A partir de los datos así obtenidos y, obviamente después de proceder a su análisis —articulatorio y/o acústico—, y a aplicarles el tratamiento estadístico adecuado, el siguiente paso consiste en la elaboración de explicaciones o de modelos que, se supone, den cuenta del proceso de producción y percepción.

Dichos modelos tienen como objetivo común tratar de determinar los indicios acústicos de los fonemas, es decir, aquellas características de la onda sonora que serían supuestamente invariables, que estarían siempre presentes en ella y que los hablantes asociarían con las distintas unidades del sistema fonológico. La teoría de los rasgos distintivos de Jakobson-Fant-Halle (1952) constituye una manifestación clásica de los modelos de este tipo. La forma en que estos autores enfocan las relaciones entre la fonología y la fonética consiste en establecer de qué forma se manifiestan los rasgos distintivos en los espectrogramas y en los movimientos articulatorios que se realizan para la producción de los distintos sonidos. Así por ejemplo, un rasgo como *grave-agudo* se manifestaría acústicamente mediante una concentración de energía en las zonas bajas o altas del espectrograma (por lo que respecta a la caracterización acústica) y en una configuración articulatoria que favoreciera la producción de un tipo u otro de sonidos. El rasgo distintivo *consonántico-vocálico* se manifestaría articulatoriamente como existencia o no de una interrupción de la salida del aire por el canal fonatorio y acústicamente como presencia constante de ondas periódicas o aparición de interrupciones o de ruidos turbulentos (Jakobson-Fant-Halle, 1952). En cualquier caso, lo que aquí interesa destacar es que, como concepción de base, se considera que cada vez que se realiza un sonido determinado por parte de cualquier hablante y en cualquier situación de habla, los participantes en la conversación son supuestamente capaces de rastrear en la onda sonora los indicios así definidos.

Un planteamiento de este tipo asume que los datos obtenidos a partir de corpus "de laboratorio" son homologables a los que se obtendrían a partir de cualquier otra clase de muestras de lengua, de forma que una hipótesis sobre el funcionamiento del lenguaje elaborada a partir de dichos datos puede hacerse extensiva a la lengua en general. Este tipo de razonamiento es el corolario lógico de la concepción saussureana del estudio del lenguaje: si lo que interesa a la lingüística es la lengua y no el habla, si lo que se va a buscar es lo invariable, la mejor forma de proceder para alcanzar este objetivo consiste en elaborar un corpus ad hoc, recogerlo en las mejores condiciones posibles para

facilitar su posterior análisis y considerar que las conclusiones que se obtienen mediante este procedimiento son aplicables a la lengua en general.

Hay que señalar que, con el paso del tiempo, por lo menos en Fonética, la forma de concebir lo invariable va cambiando. Así por ejemplo, trabajos posteriores al modelo que hemos comentado, como son los de Stevens y Blumstein (1981), polemizan sobre cuáles son los indicios acústicos presentes en la onda sonora y la propuesta de estos autores es distinta a la de Jakobson-Fant-Halle, pero lo importante es que no se discute, en ningún momento, su existencia. Dicho en otras palabras, no cambia en absoluto la idea de que, en la onda sonora, están siempre presentes unos elementos invariables que los oyentes son capaces de detectar y los hablantes son capaces de emitir y que constituirían los indicios acústicos de los sonidos del habla.

2. LAS LIMITACIONES DE LAS DESCRIPCIONES FONÉTICAS TRADICIONALES

No obstante, el desarrollo de instrumentos de análisis de la señal acústica cada vez más precisos, ha provocado la confrontación del investigador con la realidad física de los sonidos del habla. Se ha puesto así de manifiesto una de las características fundamentales de dichos sonidos: su irreproductibilidad. Diversas realizaciones de un único corpus, incluso producidas por un mismo locutor, se manifiestan como fenómenos diferentes y, si dichas realizaciones proceden de locutores distintos, las diferencias son aún mayores. La existencia misma de estas variaciones es perturbadora puesto que parecen estar en contradicción con la existencia de invariantes, es decir, con la idea de *lengua* en el sentido saussureano del término.

En efecto, las fuentes de variación de la señal del habla, tradicionalmente aceptadas por la Lingüística, están relacionadas con el origen geográfico de los hablantes y/o con el origen social de los mismos. Se configuran así dos tipos distintos de variación que es posible, no obstante, relacionar con el modelo saussureano de *lengua / habla*. Según esta perspectiva, sería también posible establecer los invariantes de una determinada habla regional y también los invariantes de una determinada forma de hablar condicionada socialmente, pues se trataría de buscar las regularidades presentes en las mismas, de buscar lo "socialmente consensuado" en cada uno de estos casos. En cambio, las variaciones que se mencionan en el párrafo anterior, no parecen encontrar su lugar en un modelo de estas características.

En esta *confrontación con la realidad física de los sonidos del habla*, que mencionábamos más arriba, han jugado un papel fundamental las aplicaciones tecnológicas que implican la voz, desarrolladas especialmente en la segunda mitad del siglo XX. Dichas aplicaciones han estado ancladas durante muchos

años en los datos proporcionados por el análisis de corpus "de laboratorio", es decir, de corpus como los presentados más arriba. Con respecto a la síntesis de habla se han obtenido resultados muy aceptables aunque, siempre, a estos sistemas, cuya inteligibilidad no se ve perturbada, "les falta naturalidad" o "suenan un poco raro". En cambio, los sistemas que implican un proceso de reconocimiento automático del habla por parte de un programa informático plantean muchas más dificultades. La más importante de ellas consiste en el hecho de que la información que se suele suministrar a dichos sistemas, procedente del resultado del análisis de corpus "de laboratorio", no se ajusta a los fenómenos con los que se enfrenta el sistema cuando debe reconocer una serie de frases realizadas de forma espontánea por un locutor cualquiera. El problema que aquí aparece de una manera tan clara es el de la variabilidad que, mediante un planteamiento simplista, puede formularse en los siguientes términos: un sistema de reconocimiento automático, basado en una información lingüística procedente de corpus "de laboratorio", no puede relacionar el tipo de información acústica que le proporcionan los hablantes, cuando se expresan de forma espontánea, con la información acústica que dicho sistema tiene almacenada. Esta úlima, extraída de unas muestras de habla que se sitúan lejos de lo que es la forma habitual de hablar de los locutores, es difícil de relacionar con la información que se puede detectar en una onda sonora, que sí corresponda a las realizaciones "normales" de los hablantes. Ya en 1983, y a propósito de este problema, señalaba G. Fant que *"The bottleneck for the development of speech-based information systems is neither technological nor economic but is created mainly by the fact that our fundamental theoretical understanding of human speech processes is still limited".*

3. EL ORIGEN DE LA VARIABILIDAD

Enfrentado, pues, con este problema, el investigador que necesita estudiar la señal de habla —sea con fines estrictamente lingüístico-teóricos, sea con vistas a las aplicaciones tecnológicas— debe comenzar a considerar que las características acústicas de la señal de habla son producto de dos fuentes de variación distintas:

1. La primera, de naturaleza fonológica, conduce al hablante a diferenciar los sonidos emitidos de tal manera que los contrastes que se produzcan entre ellos remitan a los contrastes que oponen entre sí las representaciones de dichos sonidos.

2. La segunda está relacionada con un importante número de factores difícilmente aislables tales como el efecto del contexto fónico, de la acentuación, de las características intrínsecas inherentes al individuo (sexo, edad, origen, etc.), etc. Parece natural considerar todo este conjunto de factores como un

bloque que comprende todo un conjunto aleatorio de variaciones de la señal de habla.

Desde una perspectiva epistemológica, las dos fuentes de variación poseen estatus comparables a los de los componentes saussureanos del lenguaje: la investigación en general procura alejarse de la segunda (del orden del *habla*) para tratar de comprender mejor la primera (del orden de la *lengua*).

Con el tiempo y de forma gradual, en el terreno de la Fonética, se han llevado a cabo experiencias sistemáticas focalizadas sobre el efecto de estas variables específicas, que ponen de manifiesto la dificultad de establecer invariantes. Algunos autores estudian, por ejemplo, la influencia de la prosodia (Delattre, 1969) sobre el timbre o la articulación de las vocales. Situado en esta perspectiva, hay que destacar el estudio que Lindblom (1963) consagra a la reducción vocálica ya que presenta un interés muy especial. La principal variable independiente cuyos efectos estudia es la duración. Lindblom demuestra que cuando la duración disminuye, el hablante, obligado a producir en menos tiempo los gestos articulatorios que necesita, no consigue realizarlos con la misma eficacia. En el plano acústico, los objetivos constituidos por los valores formánticos normales cuando la duración es relativamente larga, no pueden alcanzarse. Este fenómeno recibe el nombre de *undershoot*: el locutor no alcanza el objetivo que se ha propuesto.

En el plano epistemológico, el interés de esta experiencia reside sobre todo en la especificidad de la variable independiente. La propia variable sufre los efectos de la situación de comunicación. En el habla cotidiana, las condiciones de expresión influyen sobre la velocidad de elocución: el comentarista deportivo, por ejemplo, que está comentando, a través de un micrófono, un partido de cualquier deporte para hablantes que no están frente a él, habla a una velocidad muy distinta de la de una madre de familia que enseña a su hijo a recitar poesía.

La inferencia que puede extraerse de estas constataciones es la siguiente: está comprobado que la duración influye en el timbre, pero la duración misma depende de la situación de comunicación, por tanto la situación de comunicación influye en el timbre.

4. LA VARIABILIDAD Y LA SITUACION DE COMUNICACION

Esta idea de que las circunstancias influyen sobre las variables responsables de las modificaciones de las características de la señal se encuentra en la base de una cierta desconfianza hacia una situación ya mencionada más arriba: aquella en la que se encuentra el hablante sometido a una experiencia lingüística clásica, una experiencia en la que se utiliza el habla que hemos denominado "de laboratorio". Esta desconfianza, unida a las evidencias proporciona-

das por las aplicaciones tecnológicas que se han mencionado anteriormente, ha dado lugar, entrada ya la década de 1980, a una serie de estudios que se interesan por el *habla continua (connected speech)* que intentan, de alguna forma, validar los resultados de las investigaciones anteriores (Barry, 1984). Así, en estos trabajos, los autores, en lugar de centrarse sobre producciones de sílabas sin sentido, de pseudo-palabras o de palabras aisladas, piden al locutor que realice secuencias contínuas similares a las que realizaría en la conversación normal.

La propia existencia de estas iniciativas consagra implícitamente la idea de que existe un *estilo de habla* propio a la producción de corpus destinados a los estudios lingüísticos, los corpus que antes hemos denominado *habla de laboratorio*. Los primeros trabajos sobre *habla continua* no buscan estudiar este *estilo de laboratorio*, sino que intentan neutralizar sus posibles efectos. Estudios posteriores, en cambio, utilizarán el estilo de laboratorio para estimar, por comparación con el habla espontánea, el grado de validez de las investigaciones realizadas anteriormente mediante métodos más clásicos (Harmegnies & Poch, 1992).

La bibliografía actual sobre estos temas presenta numerosas contribuciones basadas en el estudio de gran número de situaciones de comunicación que, en principio, exigen distintos estilos de habla: conversación de un adulto con un niño (Lindblom et al., 1992), solicitud de información telefónica (Eskénazi & Isard, 1991), descripción de un itinerario a partir de un mapa (Mc Allister et al., 1990), etc. Estos trabajos, en su conjunto, muestran una importante influencia de los estilos implicados sobre los diversos parámetros acústicos que dan cuenta de la señal del habla tales como la duración, la frecuencia fundamental o el timbre.

Desde un punto de vista estrictamente estadístico, tomar en cuenta los *estilos de habla* significa añadir a las dos fuentes de variación tradicionalmente consideradas (la geográfica y la social) una tercera, la *estilística*, hasta ahora incluida en el conjunto de factores de variación calificados como aleatorios. Este reconocimiento de la existencia de nuevos determinantes específicos de la señal vocal rompe de forma clara el modelo saussureano. Tal vez haya que entender en este sentido esta afirmación de Jakobson procedente de su trabajo *"Lingüística y poética": Mientras estemos interesados en invariantes fonológicas, las vocales inglesas /i/ e /i:/ se presentan como simples variantes de uno y del mismo fonema; pero si lo que nos preocupa son las unidades emotivas, la relación entre invariante y variante se revierte: la longitud y brevedad son invariantes ejecutadas por fonemas variables* (Jakobson, 1960, 1974: 132). Hay que señalar, además, que la consideración de la variación estilística deja, hoy por hoy, todavía muchas cuestiones abiertas, como por ejemplo, las diferencias entre estilos, los problemas que plantea la clasificación de los estilos, etc.

5. LA CUESTIÓN DE LA ESTANDARIZACIÓN

La operación de estandarizar una lengua determinada plantea el problema del establecimiento de modelos, el problema de la igualación. Y para efectuar dicha operación es necesario establecer criterios que permitan decidir cuáles son las formas que deben ser tomadas como modelo y ello en todos los aspectos de la lengua: morfológico, léxico, sintáctico y, obviamente, fonético. La cuestión de la pronunciación es extremadamente compleja porque, según las formas que se elijan como modelo, se corre el peligro de que los hablantes no se sientan reflejados en ellas y se produzca, por tanto, una reacción de rechazo frente a los modos de pronunciar que se quieren extender a toda la comunidad lingüística implicada. No es posible tampoco establecer, a priori, una lista de criterios que sirvan para determinar cuál debe ser la pronunciación estándar de una lengua determinada: cada comunidad lingüística, en función de sus características en el momento en que se lleva a cabo la operación de estandarización y también en función de factores de tipo histórico, necesita que dicha operación se realice pensando en la especificidad de cada caso. Las únicas directrices que es posible establecer, en lo referente al proceso de estandarización, están relacionadas con los diversos aspectos de la lengua que se deben tomar en cuenta en dicho proceso: no hay que olvidar en ningún momento que las lenguas son, por definición, variables y que, por tanto, cuando se deciden los modelos hay que sopesar previamente los factores de variación (geográficos, sociales y estilísticos) y decidir de qué manera deben ser considerados en dicha operación de estandarización.

REFERENCIAS BIBLIOGRÁFICAS

BARRY, M. (1984): "Connected speech: processes, motivations, models", *Cambridge Papers in Phonetics*, 3, 2: 1-16.

DELATTRE, P. (1969): An acoustic and articulatory study of vowel reduction in four languages, *International Review Applied Linguistics*, 7: 295-325.

ESKENAZI, M.; ISARD, A. (1991): "Characterising the change from casual to careful style in spontaneous speech", *JASA*, 90.4: 2363-2364.

FANT, G. (1983): "Phonetics and speech technology", en van den Boriecke, M.; & Cohen, A. (eds.), *Proceedings of the tenth international congress of phonetic sciences*, Dordrecht-Foris, pp. 13-24.

HARMEGNIES, B.; POCH-OLIVÉ, D. (1992): "A study of style-induced vowel variability: laboratory versus spontaneous speech in spanish", *Speech Communication*, 11: 429-437.

JAKOBSON, R. (1960): "Linguistics and Poetics", en Sebeok, T. (eds.), *Style in Language*, Cambridge, MIT Press, 350-377.

JAKOBSON, R.; FANT, G.; HALLE, M. (1952): *Prelimiraries to Speech Analysis*, Cambridge, MIT Press.

LINDBLOM, B. (1963): "Spectrographic study of vowel reduction", *JASA*, 35: 1771-1781.

LINDBLOM, B.; BROWNLEE, S.; DAVIS, B.; MOON, S.J. (1992): "Speech Transforms", *Speech Communication*, 11, 4-5: 357-368.

McALLISTER, J.; SOTILO, C.; BARD, E.G.; ANDERSON, A. (1990): *Using the map task to investigate variability in speech*, Dep. of Linguistics, Univ. of Edinburgh.

SAUSSURE, F. de (1916): *Cours de Linguistique Générale*, Edición de 1980 a cargo de Tulio de Mauro, Paris, Payot.

STEVENS, K.N.; BLUMSTEIN, S. (1981): "The search for invariant acoustic correlates of phonetic features", en Eimas, P.; Miller, J.L. (eds.), *Perspectives on the study of speech*, New Jersey, Earlbaum, pp. 1-38.

EUSKAL AZENTUA GAUR ETA BIHAR (1)

Donezebe, 1998-IX-26

Gorka Elordieta,
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Gasteizen;
Iñaki Gaminde,
euskaltzain urgazlea eta Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Bilbon;
Jose Ignacio Hualde,
Urbana-Illinoisko Unibertsitateko irakaslea

0. SARRERA

Gauza ezaguna da Euskal Herrian azentuera desberdin asko erabiltzen direla. Euskal azentuera desberdinen ezaugarriez eta hedadura geografikoaz gehiago jakin nahi duenak badu nora jo, eta, beraz, hemen ez gara saiatuko gai hau laburtzen. Nahikoa argi dago, bestalde, orain dela ez hain denbora luzea, Larramendiren garaian esate baterako, azentu aniztasuna askoz tipiagoa zela. Argi dago, era berean, etorkizunean ere batasun handiagoa aurkituko dugula azentu kontuetan, tokian tokiko hizkerak galtzen edo berdintzen diren neurrian.

Gaurregun nagusitzen ari den azentuera [+2] da (Txillardegik (1984) euskal azentuen ikerketan sartu zituen laburdurak erabiliz); edo, nahi bada, [+2, −1], azken silabako azentua bigarrenkaria delarik. Euskara batuaz azentuera honen aldeko joera garbia errezki baiezta daitekeen gauza bat da, ikusiko dugunez. Azentuera honek prestigio berezia du euskara batua erabiltzen dutenen artean; behintzat, pisu demografikorik handiena duten eskualdeetan. Eta azentuera baturako egin diren proposamenek (hala nola, Txillardegi (1987) eta Hualde (1994)) funtsean errealitate hau onartu eta eredutzat hartu dute.

Hemen gure helburu nagusia gaurko, eta bereziki biharko, euskarari buruzko argibideak ematea da. Azentuaz arituko gara, beste batzuek bestela pentsatzen badute ere, gure ustez azentua eta prosodia ez baitira garrantzi guttiko alderdiak hizkuntza baten nortasuna eta bizitasuna neurtzeko, kontu hauetan neurtzerik badago.

Hortarako euskaldun gazteen azentuera aztertuko dugu, hiru hiztun mota bereiziz: (a) alde batetik, euskaldunberriak, euskara bigarren hizkuntza bezala

(1) Egileen erantzunkizuna honelaxe banatzen da: Sarrera eta hirugarren atala Hualdek idatzi ditu, lehen atala Gamindek eta bigarrena Elordietak.

ikasi dutenak, (b) bigarrenik, bakarrik batuaz edo 'etxekoa' eta batua nahasiz hitzegiten duten euskaldun zaharrak eta (c) hirugarrenik, bai 'etxeko euskara' eta bai euskara batua menperatzen dituzten euskaldun zahar kode-bi-dunak.

Jakina denez, eskualde euskaldun batzuetan (Bermeon, cf. Goikoetxea Arrieta 1996, Lekeition, Ondarroan) gazte gehienek herriko hizkera eta batua nahikoa ondo bereizten dituzten bitartean, beste leku batzuetan gazteen hizkera arrunta euskalkiaren eta batuaren arteko kode bat da (Deba Arroan, cf. Elexpuru 1996, Nafarroako zenbait lekutan, cf. Camino 1998, etab.). Elexpuruk (1996: 523) esaten digunez:

"Herri-euskara, adineko jendearen ahotan oraindik indartsu badago ere, gainbehera dator, eta ez gatz eta ez berakatz duen hizkera hibrido bat, ez batua ez euskalkia, nagusitzen ari da eskualde askotan, belaunaldi berrien artean."

Noski, etorkizunari begira euskara hibrido hori aztertzea merezi du. Baina hirugarren talde edo multzoa interegarria da oso, gure ustez, hau da bereziki jatorriko hizkeran [+2] ez den azentuera bat erabiltzen duten hiztunen kasua. Egin dezakegun galdera da ea azentuaren eta prosodiaren arloan, zer nolako eragina duen hiztunaren ama-hizkerak erabiltzen duen euskara batuan. Ikusiko dugunez, hiztun askok ez dute, besterik gabe, beren ama-hizkeraren azentuera erabiltzen batuaz hitzegiten dutenean.

Esan dugu [+2] azentuera hedatzen ari dela euskara batuaz. Honen arrazoia erdialdeko eskualde zabal batean azentu molde nagusia dela izan daiteke. Antza denez, banaketa geografiko hau ez da hain zaharra. Azken mendeetan ere [+2] azentuera hedatuz joan da. Txostenaren gai nagusia oraingo eta geroko euskal azentua bada ere, iragana aztertzea argigarria izan daiteke. Beraz, hirugarren eta azken atalean [+2] azentueraren jatorria hartuko dugu kontuan, hipotesi batzuk plazaratuz.

1. EUSKALDUNBERRIEN AZENTUAZ

Euskaldunberrien azentuerak deskribatzeko egin diren ahaleginak orain arte ez dira oso ugariak izan (Hualde 1997), beharbada lehentasunak beste nonbait kokatu behar izan direlako; zelangura ere, aurrerantzean esparru honetan ikerketak egitea guztiz beharrezkoa dela uste dugu.

Euskara Batuaren sorrerak eta geroagoko garapenak, tradizioaren aldean, aldakuntza nabarmenak ekarri ditu euskal hiztunen komunitatera. Hauetan garrantzitsuena euskaldunberrien agerpena izan da; fenomeno hau artean ezaguna bazen ere, batuaren aurretik nahikoa bakana izan zen, geroztik, ostera, multzo esanguratsua osatzen dutenez gero, kuantitatiboki garrantzi handia hartu du eta pentsa daiteke etorkizunean, talde hau handituz eta sendotuz doan heinean, aldaketa kualitatiboak ere ekarriko dituela. Bestalde, ezin ahantzizkoa da berria-

goa den beste gertakari bat, hots, euskaldunberrien seme-alaba euskaldunzaharrek osatzen duten geroago eta multzo handiago eta konpaktoagoa.

Euskaldunberriek ez dute hiztun talde homogeneoa osatzen, eman dezagun herri bateko hiztunek osatzen dutenaren antzera. Argi dago haien artean oso maila desberdinak aurki daitezkeena ezagutzaren arabera nola erabileraren arabera, ingurunearen egoera soziolinguistikoak ere mugatzen ditu, ezpairik gabe. Ezagutzari dagokionez, talde nagusi bi egin dezakegu; batetik euskara irakaskuntzaren bidez jaso dutenak txikitatik, eta bestetik, euskara nagusitan ikasi dutenak. Talde bi hauen arteko desberdintasunak, motibazioarekin hasita, oso handiak dira.

Beste aldagai garrantzitsu bat, erabilerari dagokionez, euskal hiztunen komunitatean euskaldunberriek daukaten integrazio maila ere bada.

Hemen euskaldunberriak osotoro hartu ditugu eta horrenbestez joerez baino ezin mintzatuko gara, izan ere, aldagai soziolinguistikoak, datuen urritasunagatik beragatik, ezin kontutan hartu ditugu. Mugengatik ere, nahiko genuke geroko ikerketen eragingarri eta akuilagarri izan ledin.

Egileon esperientzian oinarrituta, uste dugu, bai umeen irakaskuntzan bai nagusien irakaskuntzan, azentuerari ez zaiola garrantzi handirik ematen; hau da, beren-beregi ez da irakasten eta esplizituki ez da lantzen. Egia da azken urteokin, arazo honekiko arrengura sortu dela eta euskara batuaren azentua finkatzeko proposamen bi egin direla (Txillardegi 1984, Hualde 1994).

Txillardegiren proposamenak zelanbaiteko oiartzuna ere izan du helduen irakaskuntzan jarduten duten irakasleen artean, hala AEKren ELE aldizkarian Txillardegi (1987, 1992) eta HABEren ZUTABE aldizkarian Dieguez-en (1991) lanak agertu dira, besteak beste.

Hala eta guztiz ere, euskaldunberrien orain arteko azentuera ez da programazio sistematiko baten emaitza izan.

Atal hau zati bitan banatuta aurkeztuko dugu; lehen zatian, dauzkagun datuetan oinarrituta euskaldunberrien erabilera deskribatuko dugu. Bigarrenean berriz, oharmenaren aldetik zeintzuk diren onetsi eta gaitzesten dituzten ereduak aztertuko ditugu.

1.1. **Erabilera**

Euskaldunberrien azentu erabileraren joerak irudikatzeko egileon intuizioetan ezezik, Hualdek (1997), Urkijok (1996), Lafuentek eta Gómezek (1997) eta Martinezek eta lag. (1997) egindako lanetan ere oinarrituko gara.

Lan guztiok nahikoa desberdinak badira ere, joera bertsuak islatzen dituzte eta horretan datza euren interesgarritasuna. Hauetariko hiru argitaratu gabe daudenez gero, zilegi izan bekigu hemen euren deskripzio txiki bat egitea.

Hualderen lana Donostiako hiztun baten emaitzetan oinarritzen da (euskaldunzaharra, aita euskalduna baitu, baina batua besterik ezagutzen ez duena). Urkijoren lanaren oinarria Laudioko lau euskaldunberriren emaitzek osatzen dute. Lafuente eta Gómez-en lanaren ezaugarriei bagagozkie, esan beharra dago ezen, Gasteizen burutu zela. Informanteak zazpi izan ziren, hauetariko bost euskara irakasleak eta denek euskara nagusitan ikasi dute. Azkenik, Martinez eta lag.en lana Santurtzi eta Portugaleten burutu zen; informatzaileak hogei izan ziren.

Lan guztiok islatzen duten azentuera nahikoa sinplea dela esan dezakegu. Ez dago inolako marka lexikorik eta egitura bereko hitz edo hitz andana guztiak era berean azentuatzen dira. Laburbilduz Hualdek (1997) egindako eskema bera eman dezakegu:

Donostiako hiztun gazteen euskara batua

ó-o	*áte, méndi, lúrra, lúrrak*
o-ó	*gizón, atál, enbór*
o-ó-o	*mendía, basóa, gizóna, mutílla, mendíak, gizónak, lurréra, lurrétik*
ó-o-o	*lúrrari, árrari, béltzari, béltzena, béltzago*
o-ó-o-ò	*autóbusà, alárgunà, gizónenà, amárentzàt*
o-ó-o-o-ò	*txistúlarià, alárgunenà, gizónarenà, lagúnarentzàt, lurrárentzakò*
o-ó-o-o-o-ò	*txistúlariarì, alárgunenarì, gizónarentzakò, lurrárentzakoà*
o-ó-o-o-o-o-ò	*txistúlariarenà, alárgunarenarì, basérritarrarentzàt*

Azentu patroiak:

[+1] a) bokalez bukatzen diren hitz bisilabadunetan: *méndi*

b) kontsonantez bukatzen diren hitz bisilabadunetan, kontsonantea atzizkia bada (eta ez oinarriaren partea): *lúrrak, ázak*

c) bi silaba baino gehiagoko hitzetan erroa silababakarra bada (aukerakoa): *béltzago ~ beltzágo*

[+2] beste kasu guztietan

1.2. **Oharmena**

Oharmenaren aldetik euskaldunberriek onetsi eta gaitzetsi egiten dituzten ereduak aztertu ahal izateko Martín de Vidales eta lag.en (1998) lanean oinarrituko gara.

Lan horren helburua bete ahal izateko oharmen-test bat prestatu zen 72 itemek osatua. Itemok ondoko erara sailkatuta agertzen ziren:

a) Izen sintagmaren azentuera:

— sustantiboa + artikulua
— sustantiboa + deklinabidea
— sustantiboa + beste zenbait klitiko
— sustantiboa + adjektiboa

b) Izen ordainen azentuera

c) Aditzaren azentuera:

— partizipioa
— aditz jokatua

d) Aditzondoak

e) Klitikoak

Atal bakoitzeko zenbait adibide erabili ziren euskara baturako dauden azentuari buruzko proposamenak kontuan harturik. Entzule guztiak (14) Bilboko AEKren irakasleak izan ziren. Inkestatuek itemak entzun ahala, hitzak eta esaldiak oharmenaren arabera puntuatu behar zituzten.

Puntuatzeko orduan hiru maila egin ziren, alde batetik euren ustez erabat txarto zeuden azentuerei 0 puntu eman behar zieten; bestetik, nolanahiko onarpena zutenei 1etik 3rako puntuaketa; eta azkenik azentuera perfektoa eta haien ustez erabat ona zuten esaldiei 4 puntu.

Goiko atalkaketaren araberako emaitzei dagokienez, sustantiboetan gehien onartzen den moldea [+2, −1] da. Hala ere, silaba biko sustantiboetan **ó-o** aukera gaitzesteko joera nabarmentzen da, honetan kontraesana susmatzen da erabilera eta oharmenaren artean; gaitzespen honen zioa teoria eta usteetan aurki daiteke, izan ere, erdararen antza daukan guztia baztertzeko joera dago. Hortaz, azentu paroxitonoa erdarazkotzat jota hiper-zuzenketa egiten da eta errefuxatzen da, nahiz eta euren erabilerarekin kontraesana egon.

Izena + enklitikoa aukerari dagokionez, izena silaba bikoa denean, aukera bi proposatu zitzaizkien; bata [+2,-1] eta bestea [+1,-1]. Desberdintasun handirik egon ez bada ere, [+2, −1] joeraren aldekoak gehiago izan ziren.

Izenordainen azentueran nahikoak adierazgarriak dira galdetegien emaitzak, inkestatuek **o-ó** azentu-moldea hobesten dute **ó-o** azentuera gaitzetsiz. Sustantiboei buruz esan dugun zio berberagatik izan daiteke.

Aditz partizipioetan azentueran, alderik nabarmenena, berriz ere, silaba biko partizipioetan gertatzen da, izan ere, **o-ó** aukeraren aldekoak gehiago dira.

Aditz jokatuetan, aditzondo eta talde klitikoen emaitzak aztertuta, [+2,-1] aukera ere bada aldeko gehien izan duena.

Ondoriotzat erabilera eta oharmenaren artean kontraesan handirik ez dagoela esan dezakegu, gehien onartzen den azentuera [+2] erakoa da. Arazoa silaba bikoetan gertatzen da, kasu honetan azentu paroxitonoa gaitzesteko joera guztiz nabarmena da, euren erabileretan berau arruntena izan arren.

2. EUSKALDUNZAHARREN AZENTUERA BATUERAZ

Euskal Herrian hainbat azentu eredu ezberdin izanda, interesgarria da jakitea euskaldunzaharrek zein eredu erabiltzen duten euskara batuaz hitz egiten dutenean. Orain arte euskara batuaren azentuerazko araurik ez dago proposatuta, erakunde ofizialetatik behintzat. Izan dira proposamen batzuk, Txillardegirenak (1984, 1992) eta Hualderenak (1994) hain zuzen ere, baina modu ofizialean zabaldutakoak ez. Gai honek euskararen normalizapenerako garrantzi haundia daukalakoan gaude; batuaren normalizapena aspaldian lortuta hiztegi, morfologia eta joskera mailan, gutxienez jakin eta ezagutu erazi egin behar da zein den gaur egun batuaren azentuera euskaldun berri eta zaharren artean.

Printzipioz behintzat pentsatu daitekeena da euskaldunzaharrek euskara batuaz ari direnean euren jatorrizko euskalkietako azentu ereduak erabiltzen dituztela, batuerazko azentuera eredu baten faltan. Baina beste alde batera, kontutan hartu behar da euskaldunzahar batek euskara batua erabiltzen badu entzulea bere euskalkiko hiztuna ez delako edo inguru ofizial batetan dagoelako dela. Normalean, euskaldunzaharrek ondo dakite beste euskalki askok beste "doinu" bat daukatela, bere euskalkiarena ez bezalakoa. Elkar ulertzeko asmoak hiztunak bere jatorrizko euskalkiaren azentuera erabiltzea murriztu dezake euskara batuaz ari denean. Are gehiago, euskaldunzahar askorentzat (bizkaitarrentzat, hain zuzen ere) euskara batuaren ezaugarri batzuk euren jatorrizko euskalkien ezaugarriengandik urrun daude, aditz morfologia eta izen sintagmaren atzizki batzuen formak, esate baterako. Lexikoki ere euskara batuan erabiltzen diren hitz asko euskalki askotan ez dira erabiltzen. Beraz, hiztun askori euskara batua ez zaie euren euskalkiak bezain naturala egiten. Eta hau horrela izanik, gerta daiteke euskara batuaren ezaugarri askorengandik urrunen dauden euskalkietako hiztunei hain erraz ez egitea euren bizi-guztikoa ez den euskara batuari euren bizi-guztiko azentuera pasatzea.

Gu aspaldi ohartu ginen Bizkaiko iparraldeko euskaldunzaharrek behintzat ez zutela euren jatorrizko azentuera erabiltzen batueraz ari zirenean. Euskalki hauek doinu-azentu sistemakoak dira, eta azentuak normalean bereizkuntza lexikoa dauka: erro eta atzizki batzuk azentudunak dira eta beste batzuk ez. Lekeitioko euskalkian, adibidez, erro edo atzizki azentudun bat daukaten hitzek azkenaurreko silaban daramate azentua. Beste hitz guztiak (hau da, hitz azentugabeak) azkenengoko silaban daramate azentua, aditzaren aurrean baldin badoaz edo soilean ahoskatzen badira; bestela, azentu gabe agertzen dira. Hitz

azentudun baten adibidea *lagunágas* da, *-gas* atzikia azentuduna delarik. *Liburuetátik* hitza azentuduna da erroa azentuduna delako eta atzizki biak ere azentudunak direlako. *Mutillentzakó, semiená, mendirá* hitz azentugabeak dira, erroak eta atzizkiak azentugabeak direlako. Soilik esanda, guk esan ditugun bezala oraintxe, azentua azken silaban daramate. Gernikaldean eta Getxo inguruko euskalkietan antzeko sistema daukagu, baina hemen atzizki azentudunaren aurreko silaban jartzen da azentua: *lagunágas, liburúetatik.* Hualde (1998)-k erakusten duenez, Markinan hitz azentudunak bukaeratik hirugarren silaban jasotzen dute azentua (*gíxonak* pl, *ménditxik*), eta hitz azentugabeak azkenaurreko silaban hartzen dute azentua aditzaren aurrean badoaz edo soilik esaten badira. Bestela, Lekeition eta Gernikaldean bezala, ez dute azenturik hartzen. Euskalki hauetan, beraz, hitz bukaeratik hasita kalkulatzen da azentuaren kokagunea. Zeberio ta Arratian ere antzeko sistema erabiltzen da, diferentzia batzukin. Bizkaiko euskalki hauetako hiztunek euren azentu eredua jarraituko balute batueraz, *lagunarékin, liburuetátik* edo liburuétatik (*líburuetatik*, Gernikakoek) *mutilarentzakó* edo *mutilarentzáko, semearená* edo *semearéna*, eta *mendirá* edo *mendíra* esango lukete.

Esan bezala, gure belarrietara behintzat eskualde hauetako hiztunek ez zuten euren azentuera erabiltzen batuaz. Ohartu ginen batzuk hitz hasierako bigarren silaban jartzen zutela azentua, eta beste batzuen portaera ez zein hain erraza asmatzen. Gure susmoa baieztatzeko, sei hiztun euskaldunzaharren batuerazko azentu eredua aztertu dugu. Sei bizkaitar dira, lau gizonezkoak (12, 17, 33, eta 36 urtekoak) eta bi emakumeak (17 eta 30 urtekoak), euren jatorriko hizkerak Lekeitio, Markina, Gatika eta Arratzukoak izanik.

Lau hiztunen hizkera grabazioen bidez aztertu dira (gure eskerrik beroenak Esti Amorrorturi bere grabaketa bi eskaintzeagatik). Beste bi hiztunen joera ez genuen izan aukerarik grabatzeko baina gure belarrietara guztiz argi zegoen azentuaren kokagunea zein zen eta gure artean adostasun osoa geneukan. Grabatutako hizkera batzuetan hiztunek elkarrizketa batetan edo istorio kontaketa batean ari ziren, eta beste batzuetan hiztunei batuerazko hitz zerrenda bat eman genien irakurtzeko.

Gure hipotesiak eta susmoak baieztatu egin dira hiztunen jarrera aztertuz: sei hiztunetatik lauk ia sistematikoki bigarren silaban jartzen dute azentu nagusia, edo lehengo silaban hitza bisilabaduna bada eta bokalez bukatzen bada. Batzuk hitzaren azken silaban ere azentu bigarrenkaria jartzen dute. Jarraian lau hiztun hauek jatorrizko euskalkian eta batueraz erakusten dituen azentuera bien adibide batzuk erakutsiko ditugu:

1. LEKEITIO

Batuaz	Jatorrizkoan
ja.ná.ri.a	ja.na.rí.a
dé.na	da.ná
el.ká.rri	al.ka.rre.rí
gé.ro	ge.ró
gu.txí.ra	gi.txi.rá
á.ma	a.má
ái.ta	ai.txá
e.txé.ra	e.txe.ra
na.gó.si.ei	na.gu.si.á.ri
ko.mén.ta.tzen	ko.men.tá.ten
a.txú.rra.re.kin	a.txu.rrá.gas
bi.tár.te.an	bi.txar.tí.an
mu.tí.lla	mu.ti.llá
ai.tá.ga.na	ai.txa.ga.ná

2. MARKINA

Batuaz	Jatorrizkoan
se.mé.a.re.kin	se.mí.as
e.rá.ku.tsi	e.ra.ku.tzí
i.tú.rri.a	itxurrixe / i.txu.rrí.xe
pa.lán.ka.ren	pa.lan.kin
e.tór.ki.zu.na	etor kixune / e.tor.ki.xú.ne
di.ré.ne.an	disenin
i.má.ji.na.tzen	i.ma.ji.ná.ten
a.bé.ra.tza	aberatza / a.be.rá.tza

3. GATIKA

Batuaz	Jatorrizkoan
bél.tza	bal.tzá
gíl.tza	gil.tzé
a.lá.ba	a.la.bé
e.lú.rra	e.du.rré
e.gús.ki.a	e.gús.ki
e.rré.ka	e.rré.ke
a.bé.ra.tza	a.be.ra.tzá
a.tzá.ma.rra	a.tza.ma.rrá
a.tzá.sa.la	a.tza.sa.lá
ai.tó.na	ái.tti.tte
a.mó.na	á.mo.ma
in.txáu.rra	ín.txu.rre

Gatikako hiztunaren adibideak erakusten dutenez, batuerazko azentuera sistematikoki jartzen da bigarren silaban, etxeko hizkeran azentua hitz bukaeran nahiz hasieran jarri.

Sei hiztunetatik laurek bigarren silaban jartzen badute azentua batueraz gehienetan ere, hiztun bik ez dute portaera hau erakusten eta ez daukate patroi argirik. Lekeitieraz azentugabekoak diren hitzei batueraz azentua batzutan azken silaban jartzen die baina beste batzutan azkenaurreko silaban, edo askotan era biak ematen ditu aukerazkoak bezala:

Batuaz	Jatorrizkoan
a.má	a.má
or.dú	or.dú
la.gu.ná	la.gu.ná
i.lu.ná	i.lu.ná
i.txa.so.á	i.txa.so.á
ra.dia.do.ré	ra.dia.do.ré
a.tza.ma.rre.án	a.tza.ma.rre.án
o.gi.á/o.gí.a	o.gi.á
ar.gi.á/ar.gí.a	ar.gi.á
mu.ti.la.re.ná/mu.ti.la.ré.na	mu.ti.le.ná

Lekeitieraz markatuak direnak, hau da, azentua azkenaurreko silaban izango lukenak batueraz ere azkenaurreko silaban azentuatzen ditu:

Batuaz	Jatorrizkoan
bi.si.klé.ta	bi.xi.klé.ta
ba.se.rri.tá.rrak	ba.se.rri.tá.rrak
li.bu.rú.ak	li.bu.rú.ak
i.kas.tó.la	i.kas.tó.la
kan.po.tá.rra	kan.po.tá.rra

Baina aipagarriena da hiztun honek gutxitan jartzen duela azentua bigarren silaban, bizpahiru hitz luze izan ezik, eta beti aukerazko bezala, azkenaurreko silaban azentuatzeko aukerarekin batera *(lagúnarekin, aipágarria, tíntarekin, beséroarengandik)*. Hitz bitan hirugarren silaban jartzen du azentua *(e.gu.rál.di.a, i.ra.kás.le.a.ri)*. Beraz, hiztun honek ia ia lekeitierazko eredua erabiltzen du batueraz, zehazki ez bada ere. Ematen du euskalki ezberdin batean dagoelako antza emateko edo markatu egiten dituela lekeitieraz markatugabeak diren hitz batzuk. Baliteke arrazoia jarrera pertsonala izatea: behin baino gehiagotan hiztun honek esan du euskaldunberriek erabiltzen duten azentuera (hots, bigarren silabakoa) ez zaiola batere gustatzen. Nolanahi ere, argi dago ezin dezakegula esan Bizkaiko doinu-azentuko euskalkiko euskaldunzahar guztiek jartzen dutela azentua bigarren silaban euskera batuaz. Hiztun gehiago behar dira generalizazio bat eman orduko, eta hau hurrengo egin behar den lana da.

Aurreko atalean ikusi dugu euskaldunberriek gehien bat bigarren silaban jartzen dutela azentu nagusia (hau da, [+2] eredua), eta atal honetan erakutsi dugu Bizkaiko doinu-azentuko euskaldunzahar askok ere [+2] eredua erabiltzen dutela batipat, nahiz eta euren jatorriko azentuera nabarmenki ezberdina izan. Jarrera hauek bat datoz Txillardegik (1987, 1992) eta Hualdek (1994) eginiko proposamenekin euskara batuaren azentuerarako. Hau horrela izanik, orain sortzen den galdera da nola heldu garen egoera honetara, euskara batuaren azentuerarako gomendio edo arau ofizialik gabe, aipatutako salbuespenekin. Posibilitate bat irrati-telebistaren eragina da. Datu zehatzik eskuartean izan gabe ere, jakin badakigu Euskal Telebistako esatari gehienak giputzak direla. Eta Gipuzkoako alderdirik haundienean (erdialdean hain zuzen ere) eta Nafarroako mendebaldean (Bidasoa haranean) [+2] eredua daukagu. Beraz, agian gertatu zena orain dela urte batzuk da euskal irrati-telebistako esatari gehienak euskalki hauetako hiztunak direla, eta euren azentuera erabiltzea erabaki dutela, beharbada batuaren ezaugarri gehienetatik gertu dauden euskalkietako hiztunak direlako, hau da, euren jatorriko euskalkiaren antzeko euskalki batetan ari direlako eta "eurenagoa" sentitzen dutelako. Ikusentzuleak prestigiotsu edo eredu bezala ikusten badu irrati-telebistan erabiltzen den euskara batua, normaltzat hartu dezakegu ikusentzuleak eredu hori imitatu nahi izatea. Gipuzkeraren ohiko prestigioaren eragina ere izan daiteke [+2] azentuera hobesteko arrazoi bat.

3. NONDIK [+2]?

Ikuspegi diakronikotik, Euskal Herria bi zatitan erdibi dezakegu azentuaren aldetik, agian, isoglosa Bortziriak eta Baztanen artetik iragaten delarik (iparraldean isoglosa historikoa ez dago hain garbi). Isoglosaz mendebaldera, agian sistemarik zaharrena gaurregun Bizkaiko kostaldean aurkitzen duguna da, eta, bereziki, Gernika-Getxoko edo Gernikaldeko azentu-eredua deitua izan dena. Azentu-eredu honetan, hitz gehienek ez dute berez hitz-mailako azenturik. Kasu orokorrean azentua talde prosodikoaren azken silaban kokatzen da. Hau da, arau orokorra [-1] da. Badaude, dena den, azentuera berezia erakusten duten hitzak; hitz markatuak bezala ezagutzen ditugunak. Hitz hauek silaba azentudun bat daukate eta azentuera berberarekin agertzen dira ingurune guztietan. Esan bezala, badira arrazoi onak pentsatzeko azentu-sistema hau kontserbakorrena dela mendebaldeko eta erdialdeko azentueretan. Alde batetik, sistema honetatik hasiz besteak nola sortu ziren azaltzea errezagoa da, beste edozein sistematatik hasita baino (ikus Hualde 1993, 1997, 8. kap.). Gainera, Larramendiren testigantza dugu. (Dena den, [+2] azentuera oso zaharra izan daiteke leku batzuetan, Bortzierietan, esate baterako).

Baina [−1] azentuera zaharrena bada ere, ez da gaurregun erabiliena, goian mugatu dugun eskualde zabalean. Erabiliena [+2] da. Gaurregun [+2] azentuera, arau orokor bezala, leku askotan aurkitzen dugu: Bortzirietan, Gipuzkoako leku gehienetan, Durangaldean, Araban, etab. (ikus Gaminde & Hualde 1995). Alderdi soziolinguistikotik ikusita ere, azentuera hau bereziki garrantzitsua da, esan dugunez.

[+2] azentuera ez da ezaguna ekialdeko euskalkietan. Aldiz, eskualde honetan azentuera erabiliena [−2] da. Hala ere, faktore demografiko eta soziolinguistikoak kontuan hartuz, ez litzateke harrigarria izango [+2] azentuera ekialdera ere zabaltzen bada belaunaldirik gazteenetan.

Hurrengoan [+2] azentueraren bilakaera diakronikoa aztertuko dugu, garai batean azentuera nagusia [−1] zela onartzen badugu. Bi bide ditugu [−1] > [+2] aldaketa azaltzeko, bata luzea eta bestea laburra. Antza denez biak erabili dira, leku desberdinetan, azentuera batetik bestera iragateko.

3.1. [−1] > [+2] aldaketa: Bide luzea

Gernikaldean, edo Gernika-Getxoko azentueran, esan dugunez, hitz markagabeekin osatutako taldeetan azentua azken silaban doa (zehazkiago, azentu hau galdegaiarena da). Tonua bigarren silaban gora doa eta goiko mailan mantentzen da bukaeraraino. Azken silaban beheko kontornua dugu eta azken silaba hau azentuduntzat har daiteke:

(1) Gernikaldeko azentuera: hitz markagabeak [−1]

la | gunḗ \
la | gune dá \
la | gune datór \
gu | re lagunḗ \
gu | re lagune datór \
gu | re lagun aundidxḗ \
gu | re lagun aundidxe dá \
gu | re txistulari onā \
gu | re txistulari ona dá \

Hitz markatuek, aldiz, silaba jakin batean dute azentua eta azentu-osteko silaban tonu beherakada argia dugu:

(2) Gernikaldeko azentuera: hitz markatuak *(lagúnek, líbru, gerníkar)*

gu | re lagú | nek
gu | re lagú | nek direz
gu | re lí | bru aun | didxe dá \
gu | re gerní | kar o | ná \

1-8 irudietan esaldi batzuen Fø-zko kurbak ematen dira hitz markatuen eta markagabeko azentuera erakusteko (hiztuna Bermeokoa da). Ikus daitekenez, azentu baten ondoren beherakada garbia dugu beti:

(3) Gernikaldeko azentuera (Bermeo): hitz markagabe eta markatuak, ikus irudiak.

1. nire lagunen ama da (sg)
2. nire lagúnen ama da (pl)
3. nire lagunen amúma da (sg)
4. nire lagúnen amúma da (pl)
5. súen lagunen ama da (sg)
6. súen lagúnen ama da (pl)
7. súen lagunen amúma da (sg)
8. súen lagúnen amúma da (pl)

Markinaldean hitz eta talde markagabean azentua azken silabatik, azkenaurreko silabara mugitu da:

(4) Markina: talde markagabeak [−2]

la | gú | ne
la | guné | da
gu | re laguné | da
gu | re lagune dá | tor
gu | re lagun aundí | xe
gu | re lagun aundixé | da
gu | re txistulai ó | na
gu | re txistulai oná | da

Aldaketa honek motibazio akustiko/artikulatorio garbia du eta antzeko azentu aldaketak (azken silabatik azkenaurrekora) beste hizkuntza askotan ere aurkitzen dira.

Hitz markatuetan ere azentu lerraketak egon dira (adib. *lagúnek* > *lágunek*) baina orain ez gara gai horretan sartuko, interesatzen zaiguna azentu arau nagusia baita (ikus Hualde 1998).

Antzuolan eta Bergaran esaldi mailako azentu hau hitz mailako azentu bihurtu da, prosodia erabat aldatuz. Eskualde honetan kasu orokorrean [−2] azentuera aurkitzen dugu:

(5) Antzuola: azentuera orokorra [−2]

ésku	mútill
eskúa	mutílla
eskuandáko	mutillandáko
eskuandakúa	mutillákiñ

Pluralean, aldiz, azentua atzizkia baino bi silaba lehenago ezartzen da: *mútillak, mútillendako*, eta, goiko azentu-sistemetan bezala, badira oinarri markatuak ere: *léngusua*, etab.

Azkoitian eta Urola ibarreko beste herri batzuetan, azentua hitzaren hirugarren silaban ezartzen da kasu orokorrean, [+3], hirugarrena ez bada azkena. [−2] > [+3] aldaketa nola gertatu zen asmatzea ez da zaila, kasu gehienetan bi arauek emaitzak berberak ematen baituzte. Desberdintasunak bakarrik hitz luze xamarretan agertzen zaizkigu (xehetasunetarako, ikus Hualde 1997):

(6)

Antzuola [−2]	Azkoitia [+3], ez-oxitonoa
burúa =	burúe
gizóna =	gizóna
gizonái =	gizonái
alkatía =	alkatíe
alkatiái #	alkatíei

Azken pausua [+3] > [+2] da. Hau oso urrats txikia da. Gamindek aurkitu du Getarian zaharrek [+3] azentuera erabiltzen dutela, Azkoitian bezala, baina gazteen artean, aldiz, [+2] azentumoldea nagusitu dela.

Hipotesi honek hizkeren arteko lotura diakronikoa azaltzen du. Bitarteko etapa guztiak gaurko hizkeretan aurkitzen dugunez gero, [−1] > [+2] aldaketa bilakaera luze baten ondorio bezala ikus daiteke: [−1] > [−2] > [+3] > [+2].

1.2. **Bide laburra**

Badago, hala ere, bide laburrago bat [−1] > [+2] aldaketa azaltzeko. Bide labur hau da, antza denez, zenbait eskualdetan erabili dena.

Esan dugu Bizkaiko kostaldeko azentueran azentua tonu beherakadarekin lotuta dagoela. Hau da, hiztunek azentua sentitzen dute silaba batean hurrengo silaban tonu beherakada handia baldin badago.

Gaztelania bezalako hizkuntza batean gauzak nahikoa bestelakoak dira. Hizkuntza honetan ere tonua azentuaren ezaugarri nagusia da (ez, ordea, bakarra). Baina bi hizkuntzetan tonuaren eta azentuaren arteko lotura oso desberdina da. Hemen desberdintasun bakar bat hartuko dugu kontuan: tonu mugimenduak silaba azentudunen inguruan.

Gaztelaniaz, ingurune deklaratiboan, hitza esaldiaren bukaeran badago, silaba azentudunean tonu gorakada izango dugu eta beherakada hurrengo silaban (hurrengorik badago):

(7) el | nú | mero la cala | bá | za

Esaldiaren erdian (edo zehazkiago, nukleoaurreko gunean), aldiz, azentudunean gorakada izango dugu, baina tonu maila hitz bukaeraraino mantentzen da intonazio etenik ez badago. Ikus 9. irudia, intonazio kontornua honelaxe irudika dezakegu:

(8) le | dié ron | el | número | del | vué | lo

Fø-ko kurban ikusten denez, *dieron* eta *número* hitzetan, silaba azentuduna ez da altuena (lehen hitzean, adibidez, *-ron* silabak *die-* silabak baino tonu garaiagoa erakusten du), baina, hori bai, tonu gorakadarik handiena silaba azentuduenan gertatzen da.

Gaztelaniari buruz egindako ikerketa fonetikoak erakutsi du hitz paroxitonoetan tonuzko gailurra ez dagoela silaba azentudunean, hurrengoan baizik, hitza nukleoaurreko gunean badago (Prieto, van Santen & Hirschberg 1995). Gaztelaniadunentzat psikologikoki azentuarekin lotzen dena tonu gorakada da (ez, nahitaez gailurra).

Hau ikusi eta ikasita, itzul gaitezen Gernikaldeko azentuerara. Har ditzagun hurrengo adibideak:

(9) ar | gittasune \ zaz | pi | garrena
la | gunena \ (sg) la | gu | nena (pl)

Azentuera mota hau erabiltzen duen euskal hiztunak azentua silaba desberdinetan sentitzen du ezkerraldeko eta eskuinaldeko zutabeetako hitzetan. Eskuinaldeko hitzak, *zazpígarrena* eta *lagúnena* (pl), hitz markatuak dira eta azentua bigarren silaban dute (2). Ezkerraldeko zutabeko hitzak, aldiz, azentugabeak dira, eta esaldi bukaeran egonik, azentua azken silaban dute. Kasu guztietan tonu beherakadak esaten digu azentua non dagoen. Gaztelaniadun batek, aldiz, azentua bigarren silaban entzungo luke lau hitzotan, silaba honetan gertatzen baita tonu gorakada.

Ikusten badugu, Getxoko, Gatikako edo Urdulizko baserritar zaharrek [−1] azentuera erabiltzen dutela eta erakutsitako kontrasteak egiten dituztela (singularra eta plurala, hitz markatu eta markagabeak) eta, aldiz, Bilboko bertoko euskaldunek [+2] azentuera erabiltzen dutela (Gaminde 1998), honetan gaztelaniaren prosodiak eragin zuzena izan duela pentsatzea ez dirudi hain hipotesi zentzugabea. Bilboko euskararen [+2] azentuera nagusia [−1] azentueraren berreinterpretapenaz sortu da, ziur asko, eta berreinterpretapenaren arrazoia gaztelaniaren fonetika izan bide da. Gauza bera esan daiteke (hipotesi bezala) beste leku batzuetako [+2] azentueren jatorriaz, Bizkaian, Araban edo Gipuzkoan.

AIPAMENAK

CAMINO, I., arg. 1998: *Nafarroako hizkerak. Nafarroako Euskal Dialektologiako Jardunaldietako Agiriak.* Bilbo: Udako Euskal Unibertsitatea.

DIEGUEZ BARAHONA, Kepa (1991): "Euskara Batua eta Ortoepia". *Zutabe* 26: 43-60. HABE.

ELEXPURU J.M. (1996): "Herri-euskararen eremua". *Euskera* 41: 511-529.

GAMINDE, I. (1998): "Bilbo eta euskara 700 urte geroago". In Rodriguez Bornaetxea, Fito & Imanol Esnaola Arbiza (arg.): *Euskara mintzatuaren erronkak*, 103-115. Bilbo: EHU.

GAMINDE, I. & J.I. HUALDE (1995): "Euskal azentu-ereduen atlaserako: zenbait isoglosa". *ASJU* 29: 175-197.

GOIKOETXEA ARRIETA, J.L. (1996): "Euskara batua eta bizkaiera ikasgelan". *Euskera* 41: 517-521.

(2) Eskualde honetako hizkera batzuetan, Arratzun adibidez, zazpigárrena esaten da, hau da, azentua hirugarren silaban dago hitz honetan.

HUALDE, J.I. (1993): "On the historical origin of Basque accentuation". *Diachronica* 10: 13-50.

HUALDE, J.I. (1994): "Euskal Azentuak eta Euskara Batua". *Euskera* 39: 1549-1568.

HUALDE, J.I. (1997): *Euskararen Azentuerak*. Bilbo & Donostia: EHU & Gipuzkoako Foru Aldundia (*ASJU*-ren Gehiagarriak, 42).

HUALDE, J.I. (1998): "On system-driven sound change: accent shift in Markina Basque". Ezkuizkribu argitaragabea, Univ. of Illinois.

LAFUENTE, E. & GOMEZ, S.: "Euskaldunberrion azentuazioa". Eskuizkribua, EHU.

MARTIN de VIDALES, I.; GAMINDE, I. ARENAZA, L. & LOPEZ, G. (1998): "Euskal Azentuaren Pertzepzioa Irakasleen Artean". Eskuizkribua.

MARTINEZ, R.; MATEO, I.; BARRUTIA, Z. & EGUSKIZA, A. (1997): "Ezkerraldeko euskaldunberrien Azentu-moldeak". Eskuizkribua, IV ikerketa jardunaldietan Psikodidaktikan aurkeztutako txostena.

PRIETO, P., J. VAN SANTEN & J. HIRSCHBERG (1995): "Tonal alignment patterns in Spanish". *Journal of Phonetics* 23: 429-451.

TXILLARDEGI (1984): *Euskal Azentuaz*. Elkar, Donostia.

TXILLARDEGI. (1987): "Azentuari buruzko proposamen bat". *Ele* II: 5-21, AEK.

TXILLARDEGI (1992): "Ahozkera baturantz". *Ele* X, 47-73. AEK.

URKIJO ORUETA, J.I. (1996): "Laudioko euskaldunberrien azentuaz (hurbilpen modukoa)". Eskuizkribua EHU.


Time: 2.27119sec
D: 1.22537 L: 1.08450 R: 2.30987 (f: 0.82)
Time: 2.27119sec
D: 1.22537 L: 1.08450 R: 2.30987 (f: 0.82)
nire lagunen ama da
INSERT MODE


nire lagU
den amada


nire lagunen amU
mada


nire_lagUnen_amUma_da.tl (S.F.: 100.0) [left/up/down move, mid:play between marks right:menu]
Time(f): 13.66200sec
D: 0.00000 L: 13.66200 R: 13.66200 (F:———)
rms 3.811365e+01
prob_voice 1.512644e-04
nire_lagUnen_amUma_da.tl
nire lagU
nen amU
ma da
one.d T: 14.39314 INSERT MODE


sUen_lagunen_ama_da.d (S.F.: 8000.0) (left:up/down move mid:play between marks right:menu)
Time: 7.13641sec
D: 1.32388 L: 5.83100 R: 7.15488 (F: 0.76)
5000
0
-5000
-495
sUen_lagunen_ama_da.fd (S.F.: 100.0) (left:up/down move mid:play between marks right:menu)
Time: 7.13641sec
D: 1.32388 L: 5.83100 R: 7.15488 (F: 0.76)
6.405466e+01
prob_voice 5.453917e-04
300
250
200
150
100
50
99.1
sUen_lagunen_ama_da.d
sU
en lagunen ama da
eight T: 7.13641 INSERT MODE


sU
en lagU
nen ama da


5000
0
-5000
300
250
200
150
100
50
en lagU
nen amU
ma da


stien_lagunen_amUma_da.d (S.F.: 6000.0) (left:up/down move mid:play between marks right:menu)
Time: 20.88577sec
D: 0.00000 L: 20.88775 R: 20.88775 (F:———)
5000
0
-5000
stien_lagunen_amUma_da.d (S.F.: 100.0) (left:up/down move mid:play between marks right:menu)
Time: 20.80577sec
D: 0.00000 L: 20.88775 R: 20.88775 (F:———)
prob_voice 2.101533e-03
300
250
200
150
100
50
stien_lagunen_amUma_da.d
sU
en lagunen amU
ma da



6. irud. le dieron el número del vuelo

MINTZAKANTUAREN OHARMENA

Doneztebe, 1998-IX-26

Pilartxo Etxeberria Murua,
euskaltzain urgazlea, Ahoskera batzorde-idazkaria eta
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Donostian

Lan honen asmoa, zenbait azterketa-ildo iradokitzea da. Mintza-doinuaren edo mintzakatearen azterketak agortzen ez dituen bezala euskal prosodiaren atze-aurreak, nik hemen aurkeztutakoak ere ez du agortzen prosodiaren oharmena.

Hiztunon hizketaren prosodiarekin lotura izan dezaketen metrika eta bertsolaritza, azal azaletik, aipu bakan batzuen bitartez josi ditut. Aukera egin behar izan dut. Asko baita idatzia dagoena eta maixulanak gainera. Hona ekarri ez baditut ere, ezin aipatu gabe utzi, Manuel eta Juan Mari Lekuona, Patxi Altuna edo Karlos Otegiren azterketa bikainak.

1. Sarrera

Pertsona guztiok hizkuntz ahalmenak eta mugak beretsuak izan arren, hizkuntzak berak mugatzen gaitu ekoizpen-akustika-oharmen ekintzak molde jakinetan egitera, hiztunaren barne-barneko eta bere duen mintza-doinuari darion hitz-jarioa apainduz. Hizketa-kantua bide-erakusle harturik, egokitzen ditugu bidaide diren hotsak eta hots-kateak (1). Hau da, honek lagunduko digu bidelagun diren hotsak ateratzen, horiek egoki kateatzen, modu jakinean hitzak eratzen, hitzak bata besteekin modu batera edo bestera josten, bai eta, esanaldiak elkarrizketan, kontaketan... zein-nahi hizketabidezko jardunetan, euskarak eskatzen duen neurkerara, zati ahoskatuetara moldatzen.

Ezagutzen ez dugun hizkuntza bat entzuten edo ikasten dugunean ere, euskal molda-molde horiek mugatzen gaituzte. Ezagungabea den hizkuntzako kantua eta hotsak entzun, entzuten baditugu ere, eta ahoskuntz organoak gauza izan ahoskatzeko, guretzat arrotz kopeta duten esaldiak ez ditugu berez diren

(1) Azken esaldi hau, 1996ko Eguberrietako oporretan Lourdes Oñederrak esan zidan kontu kontari ari ginela. Geroztik pentsabide eta ulerbide izan dut.

moduan intonatzen, kantatzen, eritmoak egiten... ahoskatzen. Geure moldatze-modu horren galbahetik pasarazten ditugu geurera ekarriz arrotz dena.

Ederki asko aditzera ematen digu H. Gavel-ek (*Grammaire Basque,* 1929, 26) kontatzen digunean 1921ean mezalaguntzailetzan aritzen zen Atarratzeko multil kozkorraren pasadizuan *"libera eas de ore leonis"* (atera itzazu lehoiaren ahotik) bere-bere zuen prosodiaz honela ahoskatzen omen zuen: *(libera eyas deyore leyonis),* Menditte apaizak ohartarazi arren ahoskera desegokia egiten zuela.

Fonetikak, hizketaren azal apain hori, hiztunak kanporatzen duen hori estudiatzen du: **ekoizpenari** lotutako alderdia, hau da, arnasketa-, ahoskuntza- eta artikulazio-prozesuen gora-beherak aztertzen ditu; kanporatutako uhinen **ezaugarri fisikoak** zorroztasunez kuantifikatzen ditu, (iraupena, oinarrizko maiztasuna, amplitudea eta formakin-egitura); **oharmenaren** estudioak berriz, hiztunak ahoskatutakoa hautemateko funtsezko diren parametro **fisiko** objektiboak (silaba-iraupena, silaba-intentsitatea ...) eta **psikologiko** subjektiboak (oharmen linguistiko subjektiboa) aintzat hartuko ditu zedarritu ahal izateko parametro fisiko bakoitzaren pisua eta garrantzia prosodia eta hizketa-hotsen oharmenean.

Euskal prosodiaren azterketa sakonak, arestian aditzera emandako aldagai horien guztien erlazioak, konpentsazioak eta mugak zorroztasunez istudiatzea eskatuko luke. Dena den, denborak eta ezagutzak mugatu naute aurkeztuko dudan lan honetan. Honela bada, batetik, nire herriko azpi-sisteman eta nire herritarren hizketan lur hartuko dut, hori delako gehien ezagutzen dudana eta datu akustikoak ere, horkoak baititut. Bestetik, esaldi bidez komunikatzen garenez, esaldia, zentzurik zabalenean, izango dut hizpide, honen baitako prosodiazko gertakari nabarmeneak aztertzen hasteko asmotan eta azkenik, lan-ildo posible modura, metrika eta bertsogintzaren azalaren azala ere, aipatuko dut.

Euskaldunok kontu kontari, elkarrizketan, eskean, aginduak emanez edo barrenagoko sentipenak adierazten ditugunean, euskarak berak ematen digu bidea eta neurria horien guztien molda-moldeak egokituz ahoskatzeko eta ahoskatutako hori ulertzeko entzumen-organo eta oharmenaren eskutik. Oharmenak, badirudi, osotasunean, modu ez-diskretoan (2) hartzen dituela esaldietako ezaugarri prosodikoak (Renard 1979ko lanean eta aurrekoetan). Eta prosodiari esker gai gara alderdi linguistikoez gain beste zenbait alderdiz ere jabetzeko (hau da, hizkuntz sistemaz gain, kultur gertakariak eta komunikazioarenak).

(2) Ebakinak ez bezala, izan ere, ebakinak kategoria linguistiko diskretoetan hartzen baititu.

2. Hizketa-oharmena eta ezaugarri akustikoak

Hiztunok uhin-akustiko mezudunak ekoizten ditugu, ekoitzi ahala entzun eta solaskidearengana heltzen dira beren baitan dituztela, besteak beste, maiztasun gora-beherak, indarra, iraupena, erritmoa, doinua ets intonazioa.

Ez da lineala akustikaren eta oharmenaren arteko harremana. Gauza bat baita emaitza akustiko objektiboek (3) erakusten dutena eta beste bat arras ezberdina emaitza koantitatibo horietarik oharmen linguistikoak iragazten duena, beharrezkotzat jotzen duena, bereiziz zahia eta irina, hiztunak esandakoa ulertzeko.

Esate baterako, *ahoskuntz tentsio-gradu* ezberdinek zerikusia dute oinarrizko maiztasunarekin, hotsen nolakotasunekin eta intentsitatearekin nahiz eta hiztunak alderdi fisiko horien kontzientziarik ez izan.

Ahoskeraren ezaugarri den tentsio-gradua [+entzungarri edo +ahu], arnas-indar eta gihar-tentsio handiagoz/apalagoz (4) artikulatuz burutzen dugu, mugitze-modu ezberdinak egitenez, baina askotan hauek ez direla datu objektiboetan ispilatzen, norberak horiez duen oharmenean baino ez daude, oharmenak berebiziko sentiberatasuna baitu ahoskuntz tentsio-gradu horiek hartzeko.

Intentsitatea edo indarra (arnas-indarra, organoen teinkatze-gradua) *maiztasunaren* eta *anplitudearen* baitakoa da, baina anplitudea dena fisikan, oharmenak zenbaitetan iraupen modura jasotzen du) eta beste zenbaitetan berriz, oinarrizko maiztasunaren gora-behera modura (R. Renard, 1979 eta aurrekoetan: "on n'amplifie pas l'intensité sans augmenter au même temps la durée").

Iraupenak, esaldian zeharreko denbora-antolakuntzarekin eta hizkera-mailen araberako hizketa abiadura ezberdinekin du lotura. h. da., iraupen hori nola eratzen eta ordezkatzen den esaldian zehar: esanahi- eta joskera-loturak dituzten singametan zer-nola egiten den, etenak noiz eta nolakoak diren... Dena den, oharmenenak fisikoki milisegunduak direnak, zenbaitetan *indartzat* (intentsitatetzat) jotzen ditu eta beste zenbaitetan *nolakotasun* modura (R. Renard: "On peut supprimer l'augmentation de durée et conserver l'impression d'accent"); gainera iraupenaren oharmena, intonazio, erritmo, hizketa-abiadura, hizkera-maila eta maiztasunen arteko erlazio konplexuek, baldintzatzen dute. Oinarrizko maiztasunaren goiera ezberdinak, maiztasunaren gora-beherei lotua daude, baina gogoan izan behar dugu maiztasuna iraupen modura har dezakeela oharmenak (R. Renard: "On n'élève pas la hauteur musicale sans ajouter à la durée").

(3) Ezin ahantz uhin akustiko jarrai horietan informazioa gainjarria, estalia eta askotan ezabatua dela.

(4) Zenbat eta arduragabeagoa hizketa hainbat eta laxatuagoa organoen teinkatzea eta katea sintagmatikoan ere asimilatze, ezabatze, ... gehiago egiten ditu hiztunak.

Doinuak ahoskorden dardara-maiztasunekin du zerikusia; fisiologiaren aldetik arnaste-erritmoari lotua da; gloti-azpiko presioa arnas-beheraren hasierarekin batera gorantz egiten du beheratzeko (*breath group* (coup de souffle)) *arnasaldi?* honen amaieran. Goratze-beheratze horiek eragingo dute doinukeran. Hizkuntza bakoitzak sistema propioa erabiltzen du doinua erabidetzeko (contours delakoen bidez).

Sintesiaren bidetik heldu zaizkigun oharmen-ohar batzuk

Sintesian lan egin dutenak bat datoz adieraziz silaba dela eta ez fonema, oharmenarentzat unitate ttikiena. Silaben edo segmentuen kateatze zuzena, hau da, ebakinak hizkuntzak eskatzen duen modura loturik egon arren, ez dela aski hizketa naturalera hurbiltzeko berebiziko garrantzia dutelako alderdi mikro eta makroprosodikoek. Bide honetatik egindako entzumen frogetan, entzuleek diote, oharmenak hizketa hori "hachée, mécanique, non fluide" jasotzen duela eta gakoa alderdi prosodikoen zuzengabetasunean (jarraian doazen bokal eta kontsonanteen iraupen okerretan, eten deslotuetan, maiztasun gora-behera desegokietan eta aldagai fisikoen konpentsazio konplexuetan) aurkitu behar dela horiek galerazten dutelako grabatutako esaldi horien ulergarritasuna (*La Parole et son Traitement Automatique,* 186).

Beste froga-modu baten eskutik, ikertzaileek diote oharmenarentzat silabaz gain, erritmo antolakuntzak duen garrantzia: *"la perception du rythme se base sur une mesure de distance entre des "Centres de gravité" temporels des segments de parole"* Ibid. 188, "Perceptual Centers". Badirudi, iraupenaren baitako oharmenaren grabitate-gune horiek zehazteko esaldien itxuraketa orokorrak erabidetzen duela oinarrizko informazioa.

Hizketa oharmenean, prosodiaren funtzio nagusienetakoa: *"est d'organiser le signal acoustique émis par un locuteur donné en un objet auditif coherent, structuré, pouvant être identifié en tant que tel... même s'ils en disposent que de l'information fourni par l'évolution temporelle de l'amplidude d'un énoncé, les auditeurs sont capables de dénonbrer correctement les syllabes, et donc de faire une estimation du débit de la parole".*

Denboraren eta espektroaren antolatze-modua hizketa-abiadura motelagoak edo azkarragoak aldatzen badute ere, ikertzaileek diote: *"les auditeurs semblent compenser ces variations en ajustant leurs critères d'identification en fontion de cette vitesse"* (188). Hizketa oharmenaren ereduen hezurdura, azken buruan, hizkuntza bakoitzaren ezaugarri tipologikoak kontutan hartuz, eredu analitiko eta psikologikoetan sustraitzen da gaur egun eta horien eskutik azaltzen dituzte ikertzaileek zatika aztertutako hainbat gertaera konplexuren gakoa.

3. Euskal prosodia-oharmenaren inguruko zenbait zertzelada

Ikertzaile gehienak bat datoz, adieraztean, oharmenak prosodiari atxikitzen zaizkion korrelato akustikoak modu erlatiboan (hau da, ez diskretoan) jasotzen dituela eta hizkuntza bakoitzak dituen molda-modu ezberdinen arabera, bereizten dituela hiztunak hizkuntza horretan bereizgarri direnak: *"Todo lo que percibe el oído humano es descodificado con criterios relativos. El oído no permite calcular el número absoluto de decibelios, ni de milisegundos o hercios, a pesar de que, paralelamente, pueda captar diferencias acústicas entre un volumen y otro, una duración y otra"* (Pamiers 1997, 25) Mintzadoinuaren oharmenenan hiztunontzat zein bereizgarri edo kontraste den pisuzko edo garrantzizko zehaztea, hurbiltzea edo joerak bederen antzematea litzateke lan honen helburua. Azken buruan, hiztunok elkarrizketan, kontaketan, irakurketan, ... nola eta zeren arabera erabidetzen ditugun *esaldiak* eta zer-nola egiten ditugun etenak denboran barrena erritmoaren eta kantuaren laguntzaz.

1986ko Durangoko jardunaldiez geroztik, azken 12 urteotan aurrerapen handiak egin dira euskal prosodiaren ikerkuntzan. Gero eta ugariagoak ditugu tresnabidezko datu akustikoak eta deskribapenak. Modu sistematikoan euskal prosodia ikuspegi fonologikotik deskribatu dutenak, Elordieta, Gaminde eta Hualde ditugu azken urteotan autore emankorrenetarikoak.

Badira, halaber, ikuspuntu fonetikoa erabiliz, hau da, fonetika esperimentalaren bideari atxikiz egindako tesiak eta artikuluak (R. Gandarias, 1996 *Isparterko Intonazioaren Deskribapena: Azterketa Fonetikoa*), edota idatzitik abiatuta, euskararen sintesia egiteko egindako deskribapenak (I. Hernaez, 1995, *Conversión de texto a voz para el euskara basada en un sintetizador de formantes).*

1991an I. Hernaezek eta P. Etxeberriak: "Zenbait euskal hitz homonimoren azterketa akustikoa", euskal azentuaren izaera ezagutzeko burututako lan fonetiko esperimentalean euskal silaba-egitura hartu zen aintzat. Kalkulatzeko azentuaz soilik bereizten ziren homonimoen, oinarrizko maiztasuna, (aldaketa-kurba) iraupena eta indarra (indarraren aldaketa kurba). Esaldi horiek gipuzkoako eta bizkaiko unibertsitateko bi ikaslek ahoskatu zituzten.

Lan honetan lortutako emaitzak esanguratsuak dira: oinarrizko maiztasunaren aldaketak eta indarrai lotutakoak silaba batetik bestera ttikiak dira, gaztelaniazko edo ingelezezkoekin alderatzen baditugu behintzat (ez dira gaztelaniazko *<término* eta *terminó>* hitzen parekoak. Iraupenak berriz, ia antzekoak, hau da, ez zen iraupen diferentzia nabarmenik aurkitu silaba batetik besterako iraupenetan.

Laburbilduz esan liteke, oharmen linguistikoak homonimo horiek bereizi arren, ez indarra, ez doinu-gora beherak direla nabarmen. Iraupenaren kontua izan da harrigarriena, silaben iraupen berdintsu horiek, silabaldiko joera horrek,

eraman nau pentsatzera, iraupen antolakuntza horren zergatian, esaldien eta esaldien barneko hitz andanen erritmoan eta arnasaldiko etenetan aurki ote dezakegun aztertzeko horren zail egiten zaigun euskal prosodiaren gakoetako bat. Eta planteatzera ea silabaz silabako iraupen-antolatze hori ote den garrantzizko gurean eta azentua, berriz antolatze horrek eskatzen duen erritmoaren menpe ote dagoen.

Galderak baino ez dira oraingoz nire buruari egiten dizkiodanak. Korapiloak eten beharrean askatzen hasteko, uste dut garrantzi handiko litzatekeela azterketa esaldietatik abiatzea ezagutzeko euskal silaba-egiturak eta horren baitako erritmoak duten betekizuna euskal prosodiaren oharmenean.

Hiztun-hartzaileok, silaba-kontaketa erraz egiten dugu, silabak berebiziko pisua du kantatzen ditugun bertsoetan (jakitunek diote erabat silabikoa dela gaurko bertsolaritza) eta beste horresbente jolaserako erabiltzen ditugun ahozko molde erritmikoetan (hauetan ere, silabak pisu handia du). Esaldiak kanporatzen eta jasotzean, bistan da maiztasun gora-beherez, indarrez eta iraupenez apaindurik egiten dugula, hala ere, aldagai akustikoak horren nabarmen ez izateak zailtzen du lana (ironia, malizia, enfasia... edo jartzen ez badugu bederen, ezen, orduan ohargarri egiten baitugu [*menu mun-dí-a-la*] ETBen iragarkietan) galdera-iturri nagusi bihurtuz.

Nire baitako galderak bultzatuta, eta argitasun bila jo dut Goierriko moldea aztertu zuen N. Tomás fonetikariaren lanetara, Mitxelena maisuaren ohar zorrotzetara, ahozkoan erroturik dauden euskal metrika eta bertsoetara eta azkenik, haur-jolasetan eskuarki erabiltzen diren ahozko egitura erritmiko kantatugabeetara.

Navarro Tomás-en oharrak:

Iraupenari buruz, silabaz silabako iraupen diferenzia eskasez ohartutik, ondorengo hauek aipa daitezke:

"Se ve, en suma, que el alargamiento de las sílabas no se ha producido propiamente en relación con la estructura de las mismas ni tampoco con arreglo a la colocación de cada una de ellas dentro del verso. El énfasis ha hecho, que las sílabas hayan resultado largas en cualquier posición, aún cuando, en efecto, dicho énfasis se haya manifestado con mayor insistencia, en la posición inicial y final del verso". ("Pronunciación Guipuzcoana", 1925, 638). Silabaren iraupenarekin jarraituz lerro batzuk beherago honela dio: *"Considerada la materia desde otro punto de vista, la cantidad desempeña, sin duda, un papel importante dentro de la estructura rítmica del verso... el valor rítmico de la cantidad se manifiesta, en fin, en el hecho de que cualquiera que haya sido la forma de dichas claúsulas, la duración total de cada una de ellas ha respondido, en la mayor parle de los casos, a una medida uniforme"* (Ibid., 638 or.,

azpimarratua nirea da) 2, 3 eta 4 silabetako hitzen **maitasun-gora-beherak** direla eta:

"La diferencia de altura entre las sílabas de cada palabra, dentro de los casos citados, no llega a pasar de un tono de la escala coordinada. En la mayor parte de los casos, la diferencia apenas llega a un semitono. Estos hechos contrastan con el marcado movimiento de la voz en la enunciación de las palabras españolas, donde la altura recorre ordinariamente intervalos de segunda y tercera de la escala musical en el paso ascendente de la sílaba débil a la fuerte, llegando hasta producir diferencias de sexta, séptima u octava en el descenso de la fuerte a la débil" (Ibid., 640).

"Las diferencias de altura señaladas por el quimógrafo entre las sílabas de una misma palabra fueron, cuando las hubo, tan minúsculas e insignificantes que, dado el ordinario alcanze del oído y teniendo en cuenta la proporción de estas modificaciones en otros idiomas, no cabía atribuirles en el caso estudiado ningún valor prosódico" (*RIEV,* 1926, XVII, 405).

Hitz azentuaz:

"No hay indicio alguno de la existencia de un acento prosódico de colocación fija y regular, ... la vocal final se señala por ser algo más larga y alta que las demás vocales de la palabra. El oído percibe asimismo sobre dicha vocal un pequeño refuerzo de la intensidad articulatoria, ... En este sentido las palabras guipuzcoanas no pueden considerarse propiamente como graves, sino más bien como formas isotónicas, de sílabas igualmente acentuadas" ("Pronunciación Guipuzcoana", 644 or., azpimarratua nirea da)

Esaldi azentuaz:

"En la frase, la acentuación de cada palabra se acomoda a la estructura prósodica del conjunto... estos resultados son un testimonio evidente contra la opinión (5) de que en vasco hay un acento tónico fijo que da una determinada estructura prosódica a las palabras" (Ibid., 645)

"Se ve en fin, que el guipuzcoano no tiene acento fijo, ni de tono ni de intensidad. En pronunciación no afectada las sílabas de cada palabra vienen a resultar todas igualmente acentuadas, ... hay un acento enfático que refuerza la intensidad y el tono de las sílabas y que se coloca libremente allí donde lo requiere en cada caso el carácter emocional de la expresión" (Ibid., 646)

Laburbilduz, esan liteke aztertu duen gipuzkoako azentuaz:

(5) Orixek egindako baieztapenari erantzunez dirudi.

a) Bai arnas indarrez, bai maiztasun gora-beherez eta bai iraupenez ez dagoela alde handirik silaba batetik bestera.

b) Enfasiak silabak luzarazten dituela

c) Iraupenak (bertsoaren) erritmo-egituran, seguruenik, betekizun garrantzitsua duela. Eta hitz-andanen iraupen erregularrak egiteko joera ere nabarmentzen du.

d) Sistema edo azpi-sistema honetan ez du aurkitzen hitz-azentu finko nabarmenik eta esaldian barrena, azentu leun hori, osotasunaren egitura prosodikora egokitzen da.

Mitxelenaren erdialdeko azentuari buruzko oharrak:

"No se puede hablar sin duda de uniformidad. Lo que es común es el hecho de que las diferencias de intensidad y de tono sean pequeñas y difíciles de percibir y que todavía se diluyen más en la frase" (FHV, 382)

"En guipuzcoano, pongamos por caso, las palabras apenas tienen individualidad en la frase. No hay acento claro que las individualice y las separe del contexto: son ante todo pausas las que sirven para separar las palabras y grupos de palabras. Se diría que aquí, usando la expresión de Martinet, "prácticamente es la sílaba la única realidad fonética mayor que el fonema y menor que la frase" (Ibid., 380)

Eta beste horrenbeste dio **Txillardegik**:

"Tipo I bataiatutakoa da gaur erabiliena; eta azpimultzo batzutan zatiturik dago... Gaur zabalduena izanik ere, azentu laua da, berdin-airea; eta ulertzen eta azaltzen ere zailena" (Euskal Azentuaz, 16,17).

Euskal metrikaren eta bertso-neurkeraren inguruko zenbait ohar

Euskal metrikaz ohar zenbait egiteko, funtsean, G. Etxeberriaren "Orixeren metrikaz" izeneko artikulu luzean *(EGAN 1997-3/4)* eta egile beraren 1996ko tesian *Orixeren metrikaz: Zehazketa deskriptiboak* izeneko lanetan oinarrituko naiz.

1925. urtean idatzitako "Imitaciones: el periodo latino" artikuluan, latinaren periodoaz eta etenek erritmoaren baitan duten garrantziaz mintzo da. 1918. urtean Orixek egindako baieztapenak *("En vasco hay un acento tónico fijo que da una determinada estructura prosódica a las palabras que siempre*

hace terminar la frase con elevación de tono en la última sílaba," in *RIEV*, XVII, 1926, 260-268) iritzi hori aldatuko du esanez *"una cosa que afirmé de pasada y sin insistencia"* eta bat etorriko da N. Tomás-ek esandakoekin eta dio: *"Es decir, las palahras dentro de la frase pierden su personalidad (se entiende tonal) y hacen un tono melódico"*.

Euskal mintzoa, herri-kanta eta erritmo-iritzia ezagutzeko interesgarria da Orixek 1920. urtean argitara eman zuen artikulua "De la música y letra popular al acento", eta orobat horren inguruan Etxeberriak egiten duen iruzkina:

"Gure hizkuntza, bestalde ederki egokitzen da kantuarekin, azentuaren malgutasunari esker... malgutasun hori dela eta ulergarria da kantu gregorianoaren eragina, bai modu, erritmo eta "neuma" delakoetan. Ederki atxikitzen zaio letra euskal kantuari" (1997, 12).

Orixek, 1958. urtean, Euskaltzaindian sartzerakoan eginzuen hitzaldian esaten duena ere aipagarria da: *"beste alderdi askotatik begiratuta harrigarria bada gure hizkuntza, doinuarengatik harrigarriago esan daiteke"* Erabilera harrigarri hau, zail gertatzen da azterketarako *"iheskorra baita inguruko hizkuntzetan ez bezala"* gure mintzoak ez baitu *"indarrezko azentu nabarmenik; gora-beherako mintzor* (azentu) *leuna du, eta hortatik heldu da kantarekin oztopo itsusirik ez egitea"*, in *Euskera* 3, 29-36 or.

Bertsoez mintzo da geroxeago eta egiten dituen oharretatik, hona zer dioen euskarari dagokionez: *"sei silaba oro etena ongi dator" horrela egindako bertsoa "ia prosan bezala irakur baitaiteke"* eta luzean **doinu berdin** inpresioa eman ez dezan *"lau silabakoa eta bostekoa sarrerazi daitezke mugimendu berean, sei silabakoa nabarixeago dela"*.

Euskal azentuaren tonikotasuna behin eta berriro aipatzen du adieraziz euskaraz letra eta musikaren artean dagoen harremana aztertzerakoan, izan ere, berdin baitzaio musikako atal markatua edozein silabari atxikitzea: *"en vascuence es indiferente aplicar las partes fuertes musicales a cualquier sílaba de la palabra"* In "De la música...", 174 or.

Hori ezinezkoa da azentu intentsiboa duten hizkuntzetan, horietan silaba intentsiboak bat etorri behar baitu konpaseko denbora markatuekin.

"Euskal azentua aldabera da eta mintzakatearen barnean, posizioaren eraginez, bere nortasuna galtzen du osotasun melodikoa eginez" (Etxeberria, 1977, 11 or.)

Beraz, laburtuz esan daiteke:

1. Orixeren iritziz, euskal azentu malgu eta aldabera honen nolakotasuna garrantzitsua gertatzen da mintzakateren barnean. Izate malgu honen ondorioz hitzak beren nortasuna galtzen dute mintzakate horretan. Edozein delarik ere hitzaren azentua, esaldian barrena bere nortasun propioari amore ematen dio katemintzatuaren onurarako.

2. Euskarak ez du azentu intentsibo nabarmenik, ez hitzetan, ez esaldian, esaldi enfatikoetan izan ezik.

3. Erritmorako, askok hala uste izanik ere, ez da derrigorrezkoa azentu intentsiboa. Euskararen izate erritmikoa ez da azentu intentsiboan oinarritzen, azentu melodikoan baizik.

4. Etenak garrantzi berezia du euskal neurkeran eta horrek mugatzen ditu neurtitzetako mintzakateak. Dena den, komeni da erritmo bat baino gehiago nahastea, monotonia eta zurruntasuna hausteko.

5. Esan daiteke, Orixeren teoria metrikoa, hizkuntza inork gutxik bezain ongi ezagutzeaz gain, sena poetiko handia, entzumen sentibera eta formazio klasikoa duen poeta baten ikusmoldetik egina dagoela.

Bertsolariza

Bertsolaritza, *(Jakin,* 14/15) aldizkarian, J. A. Arana Martijak egindako artikulutik hartutakoak dira ondorengo aipuak:

"Doinua da testuaren gidaria. Bertsolaria ez da olerkaria, bertsolaria ez da musikoa; baina bietatik zeozer hartzen du bertsolariak: neurtutako testuak kantatzen ditu eta, gainera, berehala asmatutako bertsoak abesten ditu".

"Bertsolarien doinuak estudiatzeko behar beharrezkoa da bertsoen metrika ezagutzea. Oraingo bertsolaritzaren metrikan hiru bertso mota nabaritzen dira: Zortziko nagusia, zortziko txikia (hauek zortzi lerroko bertsoak dira eta bien arteko aldea, silaba kopuruan dago: lehenean 10-8-10-8, ... eta bigarrenean, 7-6-7-6-7-6, ... eta pareak dira hoskide) eta bederatzi puntuko bertsoa".

"Zortzikoek zortzi lerro behar dituzte, hamar silaba daramatzate lerro ez pareek eta zortzi silaba lerro pareek. Beste baldintza bat ere bete hehar du: lerroaren barneko etena".

Hamar eta zortzi silabako puntuak honela zatitzen dira:

5 / 5 = 10 silaba	5 / 3 = 8 silaba
<pe-llo-jo-se-pe / ta-ber-nan-da-la>	<u-rrun-dik / i-kus-ten-dut>
<hau-rra-ja-yo-da / la-rrau-len>	<i-kus-ten / men-di-a>
<e-txe-ra-jun-da / e-san-o-men-du>	<be-ra-ren / gi-be-li-an>
<ez-ta-ne-re-a / i-za-nen>	<i-kus-ten / he-rri-a>

Bertso-doinuen berezitasunak direla eta (J. A. Arana Martijak, 89) ba omen euskal musikak gregoriano kutsua, *"baina gregorianoa melismatikoa da (testuaren silaba bat abesteko, askotan hainbat nota kantatzen dira); euskal melodia, ostera, silabikoa da, silaba bakoitzari nota hat dagokio".* Euskal mu-

berezitasun hau, oso ondo errespetatzen dute bertsolariek. Hamar silabako puntuak hamar nota eduki behar ditu eta zortzikoak zortzi.

Esan daiteke guztiz silabikoa dela gaur egungo bertsolaritza.

Jolaserako erritmo-egitura kantatugabeak:

Haurrek jolaserako erabiltzen dituzten ahozko egitura kantatugabeak ere, silabikoak dirudite. Silaba da bizkarrezur eta honen inguruan antolatzen diren hiz andanak errepikatzen dira erritmoa egituratzeko, silaba kopuru berdinak edo ezberdintsuak tartekatuz etenen artean:

a. Hortz zaharra surtara botatzean esaten dena
<o-tsi-za-rra-ta / ka-tzu-berri-e> 5/5

b. Amona mantan gorriari eguraldiaz galdetzeko
<a-mo-na-man-tan-go-rri / ze-ru-an-ze-be-rri> 7/6
<ze-ru-an-be-rri-o-nak / o-rai-ñe-ta-be-ti> 7/6

c. Atzean jarrita esku baten izkutatzen dena asmatzeko
<xa-xi-ma-xi-xa-xi-ma-xi> 8
<as-ko-jan-ta-gu-txi-ka-si> 8

d. Behatzekin jolas egiteko
<o-nek / txo-txak-bil-du> 2/4
<o-nek / su-e-piz-tu> 2/4
<o-nek / a-rrau-tza-prei-ttu> 2/5
<o-nek / pix-kat-jan> 2/3
<o-nek / da-na-jan> 2/3

e. Hitzen ordena etengabe aldatuz, jolas egiteko
<a-ke-rrak-o-ke-rrak / a-da-rrak-di-ttu> 6/5
<o-ke-rrak-a-da-rrak / ... 6/5
<a-da-rrak-o-ke-rrak / ... 6/5
<a-ke-rrak-a-da-rrak / ... 6/5

e. Umea magalean hartuta silaba bakoitzeko kolpea emanez
<a-rre-a-rre-man-da-ko> 7
<bi-ar-to-lo-sa-ra-ko> 7
<e-tzi-pan-plo-na-ra-ko> 7
<an-dik-ze-e-ka-rri-ko> 7
<za-pa-ta--ke-ta-ge-rri-ko> 8

f. Zenbait jolasi hasiera nork eman behar dion jakiteko
<do-na-do-na-ka-to-na> 7
<su-ton-do-an-ai-to-na> 7

4. Ondorioak

1. Euskal Herrian sitemak eta azpi-sitemak ditugu.

2. Aztertutako gipuzkeran, aldagai akustikoak ez dira oso nabarmenak oharmenarentzat.

3. Hurbildu naizen azpi-sistema honetan, enfasietan edo azpimarratu nahi ditugun egoera adierazgarrietan ez bada, ez dugu azentu nabarmenik.

4. Azentua leuna, malgua eta aldabera da. Izate honen ondorioz hitzak beren azentu-nortasuna galtzen dute mintzakatearen beharretara egokituz.

5. Hizkuntza bakoitzak denboran zeharreko erritmo-antolakuntza berezitua du. Zenbait hizkuntzatan, erritmoa silaba azentudun eta azentugabeen araberako joera erregularretan hauteman daiteke. Gurean, badirudi, neurkeran bezalaxe, silaben iraupen orekatuen baitako erritmo-joera erregularretan sustraitzen dela (6) eta azentu aldakor, leun hori silaba-egitura horrek eskatzen duen erritmoaren baitako dela. Esan liteke, silaba dugula erritmoaren oinarrizko unitatea.

6. Oharmenarentzat iheskor eta irakasteko zail da euskal prosodia. Hizkera-maila zainduetako ahoskera arauak ikasi eta erabili beharrak, hau da, horiek prosodia egokian txertatzen irakasteak aregotzen du prosodiaren garrantzia.

7. Prosodia-irakaskuntza da lantalderen kezka: batetik nola irakatsi euskara ikastera doan euskaldun berriari, esaldian lur harturik hizkera-mailen araberako hizketa hotsen loturak prosodia egokiz egiten. Bestetik, maila arduragabeetako ezaugarri prosodiko egokiak erabiltzen dituen euskaldun zaharrari nola irakatsi hizkera-maila zaindu formaletara pasatzen denean dituen estrategia prosodikoak aldatu gabe gordetzen (hau da, etxelagun ditugun hizkuntzen ereduetara jo bage, alegia, gailur konfigurazioak egin gabe. R. Gandariasen esperimentua gogoan eta Lantaldean egindakoak).

8. Fenomeno fisikoa eta psikikoa da erritmoa; oharmenezkoa da eta pertsonon sustraizko izaerarekin bategiten duena (e.b., arnasketa erritmoa edo bihotz taupadena. A. Heusler-en hitzetan: *"sensación cinética, inherente a la naturaleza humana que consiste en la articulación del tiempo en partes sensorialmente perceptibles"* in Ritmo y Versificación, 1983, 114)

Alderatzen baditugu, esate baterako:

(6) BIPHG, XV. 1986. G. K.nopczinski-en hitzetan hizkuntza jakinetako erregulartasun erritmikoen existentzia igorlearen intentzioan eta hartzailearen oharmenean omen datza. Hiztunaren barne-barnean egituratuak dira hizkuntza bakoitzak dituen ezaugarri linguistikoek baldintzatua (159 or.).

<pensán doen tí / sin-tí / pe-ro con-tí-go> esan liteke, 2., 4, 6., eta 10. silabetan kokatutako azentu nabarmenek ematen diotela azentualdiko erritmoa. Arras desberdina da nire oharmenerako ondoren datorrena:

<itxurakeriak / mozorrotutako / gezurrandia / da mundua> 6-6-5-4 silabamultzo horietan suma daiteke silabaldiko?erritmoa.

9. Dena den, prosodiaren azterketan aurrera egin dezagun, alor desberdinetako espezialistekin elkarlanean aritzea derrigorrezkoa da. Laboratorioko lanerako programa informatiko egokiaz gain, ahotsarekin lanean ari diren ingeniariak, oharmena aztergai duten psikologoak, musikariak eta bertsolariak, besteak beste, laguntza handiko lirateke.

Bibliografia

Gandarias, R, (1996): *Isparterko Intonazioaren Describapena: Azterketa Fonetikoa.* Argitaratu gabeko tesia.

Gavel, H. (1929): *Grammaire Basque,* Bayonne, Impremerie de la Presse.

Hernaez, I. (1995): *Conversión de Texto a Voz para el Euskara Basada en un Sintetizador de Formates.* Argitaratu gabeko tesia.

Etxeberria, G. (1997): *Orixeren Metrikaz,. Egan,* 3/4.

—— (1966): *Orixeren Metrikaz: Zehazkta Deskriptiboak.* Argitaratu gabeko Tesia.

Landercy, A. eta Renard, R. (1977): *Eléments de Phonétique,* Centre International de Phonétique Appliquée: Didier/Mons.

Michelena, L. (1977): *Fonética Histórica Vasca,* San Sebastián: Imprenta de la Diputación de Guipúzcoa.

Navarro Tomás, T. (1925): "Pronunciación guipuzcoana", *Homenaje a Menéndez Pidal,* III, Madrid.

Pamiers, A. (1997): "Consideraciones sobre la marca acústica del acento fonológico", *Estudios de Fonética Experimental,* Barcelona. Laboratorio de Fonética. Universidad de Barcelona.

Renard, R. (1970): "Sur le recours aux éléments prosodiques en phonétique corrective", *Mémoires et publications de la Société des Sciences, des Arts et des Lettres du Hainault,* 83 (61-70)

—— (1974): "Sur le recours à la tension en correction phonétique", *Revue de Phonétique Appliquée,* 16 (45-63)

—— (1979): *Introduccion à la Méthode Verbo-Tonale de correction Phonétique,* Troisième édition entièrement refondue. Bruxelles. Centre International de Phonétique Appliquée: Didier/Mons.

Spang, K. (1983): *Ritmo y Versificación: Teoría y Práctica del Análisis Métrico y Rítmico,* Universidad de Murcia.

Txillardegi (1984): *Euskal Azentuaz,* Donostia, Elkar.

PROSODIAREN ORAINA ETA AHOSKERA ARAUAK

Donezebe, 1998-IX-26

Miren Lourdes Oñederra,
euskaltzain urgazlea, Ahoskera azpibatzorde arduraduna eta
Euskal Herriko Unibertsitateko irakaslea, Gasteizen

Txosten honen helburu da, euskal ahoskeraren arautze garai honetan, ahoskeraren osagai funtsezko den prosodiari buruzko zenbait gauza argitzea. Horretarako, oraingo euskaran gertatzen denaz jabetzen lagun diezaguketen alderdi teoriko orokor batzuk ikusiko dira gure errealitateari buruzko gogoeta batzuen ondoan.

Izan ere, kontsonante-bokal kateak egitura eta baldintza prosodikoetan gauzatzen dira. Hori aintzat harturik ulertu behar dira Euskara Batuaren Ahoskera Zaindurako Arauak, ahoskeraren estandartzea hizkuntzaren onerako eta hiztunen aberastasunerako gertatuko bada.

Euskal prosodiaren oraina

Euskal ahoskera bat baino gehiago dago. Ahoskeraren oinarri den prosodiari bagagozkio ere, aniztasuna nabarmena da: euskal hitzak osatzen dituzten kontsonante-bokal kateak azentu-molde, neurri eta doinu desberdinetan txertatzen dituzte euskal hiztunek beren jatorriaren arabera, adinaren arabera, hizkuntz gaitasunaren arabera, alfabetizazio mailaren arabera, besteak beste.

Tresnabidezko ikerketa akustikoaren aurrerapenak direla-eta, lehendik ere (Mitxelena eta lehenago) ezaguna zen aniztasuna zehatzago neurtzen da orain eta zehatzago ezagutzen ditugu euskalki bakoitzaren datuak. Oraindik hizkuntzaren deskribapen osora iristeko asko falta bazaigu ere, gauza segurua da hizkeratik hizkerara diferentzia inportanteak aurki daitezkeela sistima prosodikoei dagokienean. Horrekin batera, bada, ordea, prosodiaren alor honetan hizkuntzaren garapenean bereziki garrantzizko gerta daitekeen fenomenoa, gure belaunaldiotan jazoa, hizkuntzaren estandartze, ofizialtze eta beste zenbait gertakari soziolinguistikorekin lotua dena.

Delako horren nolakotasunaren ikerketa sakon eta luzeagoak eman beharko lizkigukeen datu sendoagoak izan bitartean, jaso dezagun fonetika askorik

jakin gabe ere euskaldun askoren esku dagoen gogoeta akustikoa. Nolabaiteko inpresioa hitzetan jartzen ausartuz honela azal liteke: euskara ahoskatzeko moduen artean, azentu-sistimen artean, bakoitzak gurea dugu, baina bada bat *ez* dena (1). Ahoskera hori berria da; diferente da; euskaldun berriena da; euskara batuarena da; irakurtzen eta idazten duen jendearena da; euskara berriarena; batzuei belarriko mina ematen diete eta beste batzuei erakargarri eta urbano gertatzen zaie; batzuek irrati-telebistetako gipuzkoarkeriari egozten diote; beste batzuk bilbokeraren zarpailkeriatzat jotzen dute.

Garbi dago zerrendatu horietan izkutatzen dena ez dela gauza sinplea eta kasuan kasukoak aztertu beharko ditugula, ziurrenik nahikoa konplexu denaren sailkapenera iristeko. Dena den, bakarren bat galdu balitz ere, <Joatén bagára kótxez?> bezalako hizketa-adibideetan antzematen den ahoskeraz ari naiz, besteak beste. Balio luke halaber irratiko esatari gazteak euskaldun zahar bati telefonoz deitu zioneko hura <Hori Institúto bat da? ez?> galdetuz eta besteak erantzun <Instítutò...? Ze Instítutò?>. Beherago, prosodia gaztea deitu dugunari buruzko atalean itzuliko gara hizkera horien ezaugarrietara.

Azentu hitzaren esanahiak

Aurrera baino lehen, zilegi bekit azentu hitzaren esanahiaz ohar tekniko bat egitea, ondorengo eztabaidarako erabat beharrezko iruditzen zaidana. *Azentu* hitza bi eratara behintzat uler daiteke (2):

a) *Ad cantus*-etik datorrena, prosodia: hitzak ahots bihurtzean, hotsak denboran (horrela hitz egiten baitugu gizakiak) erritmikoki uztartzeko erabiltzen dugun "musika"; horretarako gertatzen dira doinu gorabeherak (altuera, maiztasuna), erritmo unitateak (silabak edo silaba multzoak), nabarmentasunguneak (indar- edo altuera-azentua), hotsen iraupenak, e.a.

b) Silaba bat besteen gainetik gailentzeko hizkuntzak erabiltzen duen altuera edo indar nabarmentasuna. Normalean, hizkuntzalarien jardun eta azterketa teknikoak bigarren adiera honetaz izaten dira.

Prosodia hitza erabiltzea, beraz, azentu hitzaren zentzu zabalena (a) adierazteko eta nahasteak sahiesteko aukera da. Laburbilduz, prosodia ez da azentua bakarrik, azentua du bere osagaien artean, baina ez da azentua. Hemendik aurrera *prosodia* hitza erabiliko da hizketaren alderdi musikala osatzen duten

(1) Gero eta euskaldun-zaharrago izan (linguistikoki eta kronologikoki zahar diot) inpresio hori errazago delakoan nago. Behin baino gehiagotan esan izan dudan bezala, arazo honen formulaziorik gardenenak P. Goenaga lankideari zor dizkiot.

(2) Ez da hemen jasotzen hizkera arruntean *azentu* hitzak maiz izaten duen erabilera, atzerritar baten hizkeraren arroztasuna edo berezitasuna adierazten duena (<Halakok oso ongi egiten du euskaraz, baina azentu pixka bat du, igartzen da alemana dela> esaten dugunean, adibidez). Aipatzen direnetatik. dena den, (a) litzateke adiera arrunt horrekin zerikusi zuzenena lukeena.

elementuen bilduma adierazteko eta *azentu* hitzaz silabak nabarmentzeko erabiltzen dena (b) adieraziko da.

Euskal azentu zenbaiten harrapagaiztasunaz

Lantaldearen Errendapen Txostenean azaldu genuen bezala (3), euskaraz, gero eta zehazkiago bilatu azentuaren kokalekua, erantzunak areago ugaldu eta korapilatzen dira. Gizakiok baino askoz gehiago entzuten duten laborategi-makinek gero eta azpisistema eta xehetasun akustiko gehiago agertzen dizkigute. Euskal azentuaren kokaleku zehatzaz 1982az geroztik (gogora Azkoitiko Ahoskera Jardunaldiak) gutxienez agertu dira galderak Euskaltzaindian.

Oro har, txarra da euskararen azentua ikaskuntza eta irakaskuntza kontuetarako. Txartasun horren osagaiak bilatzen hasita, zerrenda-modukoa has genezake (oraindik asko landu, osatu, sakondu beharko dena). Kontuan izan behar da ezaugarri funtsezkoena, esan nahi baita hiztunaren oharmenean eragin handiena bide duena, ezaugarri hauek elkarrekin gertatzea dela. Bakoitzaren pisu erlatiboa zenbait aldagairen arabera alda daiteke ziurrenera (4):

— Azentuaren kokalekua ez da prosodikoki erregular izaten, alegia, ez du arau prosodikoak bakarrik finkatzen (cf., bi mutur aipatzeagatik, frantsesezko azentuaren araua azentua hitzaren azken silaban kokatzen duena eta txekierarena, lehenengoan eskatzen duena).

— Lexiko-gramatikalki ere ez da erabat sistematikoa, ez da behintzat sinplea (baldintza morfologikoak —singular-plural bereizkuntza, esaterako— ezaugarri fonikoekin gurutzatzen dira —hitzaren silaba kopurua, adibidez—) eta, horregatik agian, ez dio hizkuntzak etekin handiegirik ateratzen hiztegi edo gramatika bereizkuntzetarako ere (5).

— Lexiko edo gramatikalki bereizgarri denean ere (6), sintaktikoki aldakorregia da. Bestela esan, azentua ez da hitzaren menpeko; hitzak bereizteko

(3) Ik. testu osoa *Euskera* XLIII, 1998-1, 265-274.

(4) Euskalkiak bide dira aldagai horien artean funtsezkoenak.

(5) Gogora dezagun (L. Michelena, [1957-58] 1998, "À propos de l'accent basque", *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, Anejos *ASJU*-10, *220*): "<On dit souvent que le basque est une langue "sans accent": si l'on parle d'exceptions, c'est presque toujours le dialecte souletin qu'on cite. Cette façon de parler n'est pas sans justification. Dans les dialects centraux et occidentaux, c'est-à-dire dans les variétés les plus connues et les plus prestigieuses de la langue, les différences d'intensité, de hauteur ou de durée dues a l'accent sont difficiles a saisir et leur rôle dans l'économie de la langue est très reduit: il y a des bonnes grammaires qui n'en parlent pas. La versification —et les vers basques sont inséparables du chant—, ne s'en soucie pas, même en souletin>".

(6) Ohikoa da *básua* (edateko ontzia) / *basúa* (zuhaitzek osatzen dutena) bezalako pareak aipatzea honelako eztabaidetan. Beherago, kontrasteaz hitz egitean, aipatuko diren arazoak direla eta, aintzat hartzekoa da horrelakoak beti horrela (pareetan, alegia) aipatzen direla.

gerta daitekeenean ere. Txertatzen den esaldiaren arabera aldatzen da maiz eta errazegi.

— Akustikoki ez da nabarmenegia euskalki askotan (ezagun eta zabalduenetan agian).

— Ziurrenik horren azpian datza aldagai akustiko edo neurri fisikoak ez dabiltzala beti batera. Esango nuke inguruko hizkuntzetan baino beregainago direla, esaterako, intentsitatea eta altuera; sinple eta baldar esanda, ez direla, derrigorrez, silaba berean gailentzen biak. Honetarako azterketa zehatzak egin beharko dira, aldez aurretik erabaki gabe hizkuntzalariak zeri deituko dion *azentu*, aldez aurretik erabaki gabe alegia aztertzen den euskalkian maiztasun aldaketei, luzerari ala indarrari egotziko dion azentuaren gauzatzea. Izan ere baliteke aldagai akustiko bakar bat ez izatea euskaraz azentuaren ordain (esaldi honen bi irakurkera behintzat bururatzen zaizkit).

Oharmenaz: kontrastea

Hona iritsita beharrezko da, badaezpadan ere, eszeptiko edo sinesgogorrenentzat ohar bat egitea oharmenaz, ohar orokor, sinple baina ezinbestekoa, hizkuntzalarion tranpetan eror ez gaitezen eta hizkuntzari buruzko gure diskusioak hizkuntzaren errealitatearekin nahas ez ditzagun: oharmena gehien errazten duen bidea kontrastea da. Zerbaiten oharmena bereziki zaila denean, kontrastera jotzen dugu. Bigarren hizkuntzako hotsak irakasteko bide usuena horixe izaten da: bereizten ez den hotsa beste baten ondoan (gertuen duenaren ondoan) entzun eta ahoskaraztea: esate baterako, *atzo/atso, iya/illa* pareetan. Horregatik euskarazko azentuaren lekuaz eztabaidan sartzen garenean edo hitzaren ahoskera zuzendu nahi diogunean euskaldun berriari, kontrasteak erabili eta neurriz kanpo egiten ditugu askotan (*<ez da Axúlar, Axulár baizik>* esaten dugunean) (7).

Ahoskeraren azterketa linguistikoak ere gehienetan kontrastea helburu duten hitz zerrendetan oinarritzen dira. Baina, berez eta bapatean, hizketa erreal eta lotuan gertatzen den azentua, iheskorra da oharmenaren aldetik euskaraz: ikasteko eta irakasteko orduan, azentu txarra dugu (8).

(7) Azentuaren kokalekua irakasteko formulak ere bilatu dira bide horretatik eta zenbait irakasle. zuzentzaile eta hizkuntzalarik proposatu ere proposatu dituzte. Orain hedabide zenbaitetan bcderen aski zabaldu den eredu batean azentua lehen silabara edo ahalik eta ezkerrenerantz eramaten da. Beste formula konplexuagoak ere badaude (esaten da, adibidez, zenbagarren silaban jarri behar den azentua hitzaren silaba kopuru edo eraketa morfologikoaren arabera).

Erdarazko azentua lekualdatzearen baliogabetasunaren adibide on dira *ekonomía, kultúra, família* edo *prosódia* motako hitzen ahoskera desegokiak, horien zuzenketa ez baita hasi ere egiten azentuaren kokalekua aldatuz.

(8) Ez dut uste kasualitatea denik, kontraste edo enfasi ebakeretatik at, zenbat kostatzen zaigun antzematea; halaber, makinarik ez baina belarria bazuten euskalari zenbaitek euskaraz azenturik ez zegoela esatea.

Tipologiatik

Ez da, bestalde, harritzekoa ere linguistikaren aldetik halako izatea euskara bezain hizkuntza aglutinatzaile batean. Tipologia deitzen den hizkuntzalaritzaren atalak erakusten digu hizkuntz tipo ezberdinak beren osagaien artean orekabide ezberdinak bilatzen dituztela. Ideia hori ahoskerara eramanda, zehazki prosodiaz erakusten diguna da azentua gero eta nabarmenago izan, azentugabeko silaben ahultzea handiagoa dela, azentua kontrastez nabarmentzen baita. Horrela hizkuntza askotan azentutik azenturako tartea da hizketa-erritmoaren unitatea, silaba kopuruak axola ez duelarik (adibiderik argienetakoa ingelesa, guretzat ezagun diren hizkuntzen artean).

Horren osagarri, nabarmentasun txikiko azentuak esan nahi du silaba azentugabeko eta azentudunen arteko diferentzia eraltiboki txikia dela eta gabeko silabak ere silaba indartsu eta beteak direla. Horrelako hizkuntzetan hizketa-erritmoak silaba du oinarri eta silabakako hitz-luzerak azentuaren kokalekuak baino garrantzi handiagoa du. Nere ustez, honi dagokionean, euskara ingelesaren beste muturrean dago. Silaba hizketa-erritmoaren oinarri izatearekin lotua dago silaben kalitatea ere eta hortik uler daiteke euskarak zein joera garbia agertzen duen CVCV kateak osatzeko.

Oharmenaz: makinak eta gu

Beste ohar tekniko bat eztabaidaren mesederako eta esaten ari garenaren osagarri: desberdintasun akustikoak (makinek jasotzen dituztenak) objektiboak dira, fisikoki gertatzen dira eta neur daitezke. Oharmen linguistikoa, hiztunok entzuten duguna, subjektiboa da zentzu horretan. Badira gertatu eta entzuten ez ditugunak. Gure hizkuntzan axola duena antzematen dugu linguistikoki erabiltzeko moduan, alegia jakinaren gainean ikasi eta irakasteko moduan. Horregatik, euskaraz azentuak agian erritmoak baino gutxiago axola duela esaten dugunean, ez gara ari esaten euskarak azenturik ez duenik. Azentu horren nolakotasun eta erabilgarritasun linguistikoaz ari gara.

Prosodia *gaztea*, ezaugarri fonetikoak eta bestelakoak

Batuarekin gertatzen ari denak erakusten digu ez dugula kode berrietan *erabiltzeko moduko* azentua, edo beste eredu bat baino ahulagotzat jo dugula behintzat: ez zegoela sendo presente gure hizkuntzaren oharmenean, gure hizkuntzaren barne-aurkezpenean, hizkuntzaren bertsio estandarrari ahoskeraz aurre egin behar izan diogunean. Hori ahoskera osoarekin gertatu da, baina azentuarekin kontsonante-bokalekin baino zailago ari zaigu gertatzen eredua irakaskuntzarako berreraikitzea.

Batuaz jabetzean ikasitako gramatika-erregelak, hitzak eta letrak, hizketa bihurtu behar izan ditugu. Orduan, nolabait esan, Batuak sortu digun behar berri horren aurrean, hizkuntza berriarentzat, eredu prosodiko berria hartu dugu. Euskara berriak (jatorrizko euskalkien arabera, batzuentzat beste batzuentzat baino berriago, ezberdinago denak) doinu berri bat hartu du askotan: azentu erregularra, prosodia txukun bat, azentu erraz eta nabarmena duena, ez gorago deskribatua bezalako azentu zail eta harrapagaitza.

Gazte dei geniezaioke prosodia horri, berria delako eta belaunaldi gazteagoetan duelako maiztasunik handiena. Emankor da halaber, adinez ez horren gazte apika, baina bai euskal hiztun modura gazte diren euskaldun berriengan. Hizkuntzaren egokiera berrietan agertzen delako ere justifika liteke *gazte* deitzea. Ez dut uste, ordea, beti eta erabat berria denik.

Ezaugarri fonetikoak

Prosodia gazte horren eredu zabaldu xamarraren ezaugarri orokor dugu itxura trokaikoa: funtsean azken aurreko silabaren indartze erregular eta nabarmenean gauzatzen dena. Ezaugarri orokorren zerrenda osatuko lukete, besteak beste, prosodikoki erregular izateak gehienetan eta, batez ere, akustikoki beti nabarmena (intentsitate eta maiztasuna batera bide doazelako).

Azentuaren kokagune erregularra gazteleratikako eredu lexiko zenbaitek hausten dute (cf. *paténtea, konpatíblea, ebidéntea* bezalako ez-paroxitonoak) (9). Esan behar da, dena den, oro har azentuaren kokalekua ez dela ezaugarririk garrantzitsuena. Batzuetan azkenaurrekoaren azentua ez da horren erregularki gertatzen. Silaba azentudunaren nabarmentasuna eta finkotasuna (hiztegitik esaldiraino) haatik, bai dira prosodia gazte horren ezaugarri garbiak.

Bestelako ezaugarriak, hiztun motak

Hiztunetik hiztunerako eta taldetik talderako diferentziak daude hemen euskalkiaren eta norberaren biografia linguistikoaren arabera. Gorago aipatu den bezala euskalki batzuetatik beste batzuetatik baino distantzia handiagoa dago Batura. Nere euskalkia eta Batuaren arteko aldea Gernika inguruko lagun batentzat baino txikiagoa da eta horrek ere badu bere garrantzia hiztun horren eginahalean eta bere islada hiztun horren ahoskeran. Honekin loturik ulertu be-

(9) Beste batzuetan gazteleratikako eredu lexikoek indartu egiten dute noski azkenaurreko azentu hori, esaterako *erresidéntzia* bezalako hitzetan diptongoa ere mailegaraziz (cf. eredu prosodiko berari dagokion *indarkéria* hitzaren ahoskera paroxitonoa).

har litzateke Batuaren ahoskeraren kontua. Gainera hizkera, kode, errejistro arazoak daude (10).

Ziurrenik, gazte deitu dugun prosodia, azentu sistima zaharrak bezain zehatz aztertuko bagenu, eredu eta azpieredu ugari agertuko lizkiguke. Azterketa sistematiko eta zehatzak egin bitartean, ausartuko naiz lehen sailkapen bat proposatzen, hiztun tipologia modura irudikatua (11):

— A mota edo tipoa litzateke azentuera gaztea *konpatíblea* bezalako hitz solteetan erabiltzen dutenena (maileguetan batipat, baina ez bakarrik, ik. goragoko 9. oinoharra). Hitz batzuekin lexikoki loturiko azpiazentuera genuke hiztunon hizkeran.

— B motako hiztunak esaldi (esan-aldi) osoaren azken oinaren trokeoa markatzen du, bereziki nabarmentzen duelarik azken aurreko azentuaren bidez; alegia, azentu gazte hori esaldiaren azkenean egiten du.

Badira erabilera hauek (A eta B) errazten duten egokiera eta erabilera-baldintzak: enfasia eman nahia, ironia adierazteko gogoa, bestek esandakoa edo norberak besteri esandakoak errepikatzea, jendaurrean aritzea, maila goreneko hizkera eskatzen duen inguruan aritzea, hizkera estandarraren formak erabiltzea (batipat irakurtzea), e.a. Bere hizkera gertukoenean, bapatekoenean, inoiz azentu gaztea erabiltzen ez duen hiztun askok ere estilo honetara jo dezake, nahikoa baldintza betez gero bere hizketa emanaldirako (12). Esaldi osoak diren hitzetan, eten biren artean ahoskatzen diren hitz edo hitz andana ez oso luzeetan salatzen da batipat joera hau.

— C motako hiztunak dira prosodia gaztea beren hizketa osoan zehar erabiltzen dutenak ezinbestean, azentuera hori beren hizkuntza, beren euskara hizketa bihurtzeko estrategia bakarra dutenak.

Erabiltzaile motez gain, inportantea da kopurua. Asko dira, asko gara, batzuetan behintzat, prosodia gaztea erabiltzen dutenak, dugunak. Heda-erraztasuna, kutsakortasuna (ikasterraztasuna, azken batean), izan daiteke azentuera berriak bere alde duen ezaugarririk inportanteenetakoa. Ezaugarri hori, noski, gorago aipatu ezaugarri fonetikoekin lotua dago neurri handi batean (nabar-

(10) Beren egituretan Batutik gertuen dauden euskalkiak dira ziurrenik azentuaren harrapagaiztasunaren adibiderik onenetakoak, irakasteko orduan eredu kaxkarrena dutenak, alegia. Hizkuntza erabiltzaile "ikusgarrienak" ere gipuzkera oinarri dutenak dira. Batuak beren eredutik gehien urrutiratzen dituen bizkaitar eta zuberotarrak ote umezurtzen eredu prosodikoari dagokionean? Azken batean, batzuek berearen harrapagaiztasunagatik, besteek jatorrizko euskalkia eta Batuaren distantziagatik, berrikuntza prosodikoen tentaldian erortzeko joera izan dezakete Batua ahoskatzean.

(11) Tipoka azaltzen diren ezaugarriak batera gerta daitezke hiztun bakarrarengan (batez ere A eta B tipoetakoak).

(12) Alditik aldira eta hiztunetik hiztunerako diferentziak egon daitezke baldintzen eraginindarrari dagokionean.

mentasun eta erregulartasunarekin funtsean); baita gazteleraren ereduarekin ere ziurrenik.

Euskalkiei begira jarrita ere, bizkaiera zenbaitek eta batik bat zubererak (agian azentu prosodikoki erregular eta nabarmenena duen euskalkiak) erabiltzen dituzten eredu prosodikoen artean oinarrizkoen dirudiena azkenbigarreneko azentua dugu (azken trokeoa). Dena dela eta oro har prosodikoki (hizkuntza bakoitzaren ezaugarrietatik aparte esan nahi da), azkenbigarreneko eredu horren aldeko faktoreak asko dira. Ez da harritzekoa Batuaren musikatzat hori hartzea.

Azentuera horren jatorri eta erabileraz zenbait kontu

Egia da gazteleraz erabiltzen diren eredu prosodikoen artean oinarrizkoen dirudiena azkenbigarreneko azentua dugula (azken trokeoa). Itsu-itsuan horri egotzi diogu prosodia berriaren errua, baina ez dut uste hor agortzen denik prosodia gaztearen jatorria. Hizkuntza ezberdinen garabide paralelo baina beregainen kontrako jarrera gure artean ia dogma da, ez dago horretarako gipuzkerazko [x] hotsaren espainoltasunaz inolako zalantzarik gabe botatako iritziak ikustea baino.

Prosodiaz, hizkuntzen arteko ukitzeek erakusten dute ez dela horren erraz igarotzen sistema prosodiko oso bat hizkuntza batetik bestera. Esaterako, ingelesak erakusten duen azentu erromantze-antzekoa, oraindik ere hiztegi erromantze mailegatuaren ahoskeran erabiltzen da eta ez du ingelesaren prosodia osoa bereganatu inola ere: ez du hizkuntzaren egitura prosodikoa aldatu. Egia da agian hizkuntza menperatuen bereizgarri izan daitekeela honetan ere ahultasun handiagoa izatea. Baina hipotesi guztiak irekita aztertu beharko genuke gertatzen ari dena, aldez aurretik ezeri atea itxi gabe.

Prosodia gazte hori besterik gabe gazteleratikakoa dela esan aurretik pentsatu egin beharko genuke, gauzak azkarregi erabaki gabe. Posible da, hemen ere, hizkuntzen historietan beste askotan bezala, arrazoi eta jatorriak bide batetik baino gehiagotik etortzea, alegia azentu eredu berri hori hizkuntz barreneko eta kanpokoa izatea: hizkuntzaren joera eta beharrei (prosodia berriaren beharra Batuaren kode berriak ekarria) kanpoko eredu nagusiak laguntzea.

Oso kontuan hartzekoa da hiztun zahar sendoenen hizkeran prosodia berria errazago gertatzen dela egoera indartzaileetan (mikrofonoa aurrea, ironia edo enfasiak adierazteko orduan, e.a.). Hain zuzen ahoskera indartzea eskatzen duten egoera formaletarako ahoskera da orain aratutu nahi dena (Euskara Batuaren Ahoskera Zaindua), beraz, prosodia berriaren interferentzi aukerak handienak dituen euskara da arautu nahi dena.

Hemen bi aukera ditugu: berritasun prosodiko emankor horri bide eman, gerta dadila, ala saiatu lehengo neurri eta doinuak gordetzen eta estandarra ho-

riekin konpatible egiten. Lantaldeak bigarrenaren alde egin du apustu, pentsatuz prosodia dela gainerako osagaien oinarri ahoskeran. Hain zuzen ere, ahozkotasunarekiko prosodiaren funtsezkotasun horixe izan da gure proposamen honen ardatz, erdaratikako ereduei aurre egitea baino areago. Zentzugabekeria litzateke, hizkuntzaren osotasuna aintzat ez hartzea litzateke kontsonante eta bokalen ahoskeraren jatortasuna bilatzen duten arauak ematea eta hizkuntzak bere duen prosodia gordetzen ez saiatzea.

Ikusi dugu askok erabiltzen dugula noizpait azentuera gaztea deitu dugun hori. Ez dut uste erabat desagertarazi daitekeenik, ezta behar denik ere. Kontua da gauzak behar bezala analizatzea eta bereiztea. Azentu nabarmen finkoaren hiru gertatze-maila bereiz daitezke, gorago aipatu hiztun mota eta erabilerei jarraiki:

1. Enfasia emateko erabiltzea. Ez dago gaizki, hiztunaren baliabide da.

2. Mailegu berriak eta beste zenbait forma berezi "markatzeko" erabiltzea. Behinbehinekoa edo semantikoki kargatua bada (txantxa, ironia edo bestelako distantziak adierazteko), egitekoa du hizkuntzaren sistiman eta ez du berez murrizle izan behar (esaldia, oro har, modu egokian ahoskatzeko gai bada hiztuna).

3. Beti eredu erregular hori erabiltzea. Hori da erabateko inportazio, erdarakada edo nahi dena, baina orain arteko euskal prosodiaren suntsitaile eta zuzendu beharrekoa berehala: hiztunak inolako egitekorik gabe erabiltzen du, besterik ez duelako, euskal hitzak prosodia berri batean sartzen dituelako hizkuntza hizketa bihurtzeko, hitz egin ahal izateko (13).

Alderdi praktikotik, beraz, ez dago hitzen azentu on-txar bikoterik, esaldiak ongi (euskaraz)-gaizki (modu berri batez) "kantatzea" baino. Esaldiei euskal doinu, erritmoa ematen dakienak bere esku izango du hitz batzuk, esaldi puska batzuk, prosodia bereziz markatzeko baliabidea.

Horretarako, oraingoz esan dezakeguna da, gure ustez, hizkuntzaren prosodiaren ziria erritmoan duela euskarak eta hori behar genukeela ikaskuntzaren ardatz. Erritmoa, metrika sendo eta nabarmena ditu euskarak. Izan ere euskal ahoskeraren bereizgarri oinarrizkoenak ziurrenik erritmoan daude sustraituak. Ziurrenik euskal fonologiak silaba egitura du bizkarrezur eta azentua horrek eskatzen duen erritmoaren menpeko.

Laburbilduz, zenbait proposamen eta gogoeta

Ez ikusiarena egiteak (gauzak bere martxan segi dezaten uzteak) areagotu egiten du prosodia gaztearen ugaltzea. Prosodia, esandako eta ez esandakoen-

(13) Horregatik ematen du agian, oraingo Iparraldeko euskaldunen eta gure hizkera konparatuta, batzuk frantsesez eta beste batzuk gazteleraz ari garela.

gatik, beti bada garrantzizko, orain gai dugun ahoskeraren arautzeak areagotu egiten du prosodiaren garrantzia. Jakinaren gaineko arauak bete beharrak ahoskerarekiko sentiberatasuna handitzen du eta horrek ugaldu egin ditzake desegokitzat jo ditugun azentu-erak. Beraz, ahoskera arautzeak behar bezalako irakaskuntza eskatuko luke: lehendabizi esaldiaren prosodia, kantua, funtsean erritmoa den horretaz jabetu; gero hor sartu, hor txertatu kontsonante eta bokal kateak.

Hartara:

1. Uste dut euskararen ahoskerak gorde eta indartu nahi baditugu, hobe dugula *azentu*-ren (a) esanahi zabalaren gainean aritu. Horretarako, silabaren garrantziaz jabetu (hizkuntzalariok barne) eta erritmoaz ikasten hasi.

2. Estandartze berriegiak eta alfabetatze zatikako edo partzialak (letren ikasketan gelditu den horrek: *ez dot* [estot] → *ez dut* [ezdut] (eta ez [estut]) bihurtu duen horrek) sortu kaltearen zuzenketa prosodiaren irakaskuntzatik hasi behar da.

3. Beraz, ikasi behar dugu eta irakatsi behar dugu hitz andanak erritmo, azentu eta entonazio ereduetan txertatzen: benetako esaldi diren hitzak esaten. Bestela, hiztegi-gramatiketatik ateratako hitz hilez betetako esaldi baldarrak ahoskatuko ditugu. Edo erdarazko musikan uztartuko ditugu gure esaldiak. Horrek esan nahi du, agian, praktikan, lehenengo esaldia hitzik gabe esan behar dela eta gero sartu behar zaizkiola hitzak. Ez litzaiguke gaizki etorriko irakaskuntz metodoetan lan egiten dutenekin zenbait gauza eztabaidatzeko aukerak sortzea.

4. Nolakoa da beste azentua? Berria, Batua, gazteleratikakoa edo nonbaitetikakoa ez dena, jatorra? Ez da bat, asko dira... euskalkika ikasi behar dira: hori izango da Batua euskalkiekin uztartzeko bidea, ongi egiteko gauza bagara; Batuari bizitza emateko, euskalkien eta Batuaren artean *continuum* bat eraikitzeko modua, Batua hiztunentzat arrotz gerta ez dadin. Gure ikuspuntutik ahozkoaren irakaskuntza arautua abian jartze honetan lortu beharko genuke Batua, euskara estandarra, euskalkiekin uztartzea, hizkera maila ezberdinak hizkuntz behar ezberdinetarako hiztunaren esku egon daitezen. Euskalki etxekoenetik hizkera estandar zainduenerainoko zubi hori hizketa-kantuan, prosodian legoke.

Irekita gelditzen da lana irakasle eta eredu-moldatzaileentzat, irakaskuntz metodoetan aditu direnentzat, ziurrenik bertsolari, antzerki-jende, musikari eta metrika-ezaguleentzat, filologilari eta hizkuntzalarientzat baino areago... Halaz ere, zein eredu, zein diskurtsutatik hartu, ikasi kantua galdatuko baligute, galdera-markaz jositako aholku umila litzateke: zertarako den ikusi. Esaterako, Euskara Batuaren Ahoskera Zaindurako arauekin erabiltzeko bada, maila zainduko hizketak hartu beharko genituzke eredu (esatariak, literatur-irakurtaldiak,

apaizen predikuak, ahoskera zainduko kantu batzuk, e.a.). Elkarrizketa bizirako ereduak behar badira, euskaldun zaharren elkarrizketa bizietan bilatu.

Gure arau-proposamenak eta Euskaltzaindiak plazaratuko dituen arauak segmentalak dira, bestela esan, kontsonante-bokalen ahoskerari dagozkie. Horrek ez du esan nahi, ordea, prosodia aintzat hartu ez denik. Alderantziz, prosodia, euskararen prosodia, euskararen prosodiak aintzat hartu direlako eta errespetatu nahi direlako, ez da azentu-eredu BAT proposatzen.

Euskararen prosodiaren askotasuna gorde nahi horren ondorio da, esaterako, nafarren hizkera zainduan ere gipuzkoarron hizkeran baino diptongo gehiago onartzea (Naf. *men.dian* / Gip. *men.di.an*, biak izanik ahoskera zaindua). Bestalde, prosodiaren aniztasunaren alderdi estilistikoaren ispilu da arau batzuetan hizkera zaindutik kanpo onargarri diren ahoskerak ere aipatzea, erritmo aldaketak bizien hizkera maila aldaketekin datozelako (zainduan *egin, ezagutu* vs. arduragabean *ein, ezautu*). Arauzale amorratuak esan lezake hori gauzak konplikatzea dela. Hizkuntza bere horretan aztertzen duenak edo bere buruaz fidatzen den hiztunak badaki hori dela benetako hizkuntzari, bizi dadin, bideak zabaltzeko modua (14). 1994ko txostenean esan bezala, idazkera bakarra izan daiteke, baina hizkera Batua ezin da bakarra izan: hizkera bakoitzarekin konpatiblea den Euskara Batua behar dugu, hiztunaren egoera eta behar ezberdinetarako balio duen euskara behar dugulako. Bestela azterketetarako eta soslaiak ateratzeko euskara aspergarria besterik ez dugu izango.

Ahoskera arautzea ez dadila izan arau zerrenden luzatzea, hizkuntza aberatsago bihurtzeko tresna baizik. Oraintxe dugu egokiera Euskara Batua hiztunen baliabide, euskalkien maila goren eta, horrela, errejistro zaindu baina bizi bihurtzeko. Guztion gogo on eta malgutsuna beharko da horretarako.

(14) Exkax izan ohi dira hiztun ziurrak egoera soziolinguistiko ahulean dagoen hizkuntzan. Ziurtasunik ezaren arrazoi garbiak begibistan dauzkagu oraingo euskararen unibertsoan: gaitasun linguistiko sendoeneko hiztunak alfabetatugabeak dira maizenik eta alfabetatuak, gaitasun txikikoak, diglosikoagoak gara, salbuespenak salbuespen.

AHOSKERAREN ARAUGINTZA IRAKASKUNTZAN

Praktikan sortzen diren arazoak eta konponbideak.
Irakaskuntzaren aldetik.

Donezteb, 1998-IX-26

Adelaida Kintana,
Nafarroako Irakasleen Birtziklatzeko Ikastegiko irakaslea;
Jon Aurre, Bilboko IRALEko irakaslea;
Juan Carlos Hernandez, Donostiako IRALEko irakaslea;
Jon Kortabarria, Gasteizko IRALEko irakaslea.

Gure kasuan, gu euskara irakasleak gara eta gure ikaslegoaren % 99 euskaldun berria da. Honekin adierazi nahi dut euskara 0 mailatik ikasi edo ikasten dutela, gramatika, estrukturak eta ahoskera ere. Ikas-prozesu horretan irakasleak ahoskerari emango dion garrantziaren arabera ikasleak ongi edo gaizki ahoskatuko du. Eta euskalduntze ikas-prozesuaren hasieran ez bada lantzen ahoskera, gero zailagoa da hainbat "bizio" kentzea. Alegia, behemailetatik hasita landu beharko dugun arloa izango da, zehar lerro gisa planteatuta.

Bestalde, ikasleari hizkera-maila ezberdinak daudela azalduko zaio, baina kontuan izan gure ikasleek, irakaskuntzan aritzen direnez, ahoskera zaindua erabili beharko dutela gehien bat. Benetako hizketa ez da letraka gertatzen, esaldika baizik, hortaz, gure ikasleei beti emango dizkiegu testu motzak irakurtzeko, kantatzeko, buruz ikasteko, antzerkia egiteko, e.a. Hortaz, ikasprozesuaren hasieratik bukaeraraino irakasleak erne egon behar du joera biziosoak ekiditeko eta ahoskera sistematikoki lantzeko.

Hizkuntzaren prosodiaren gakoa erritmoan dagoela garbi dago, orduan zergatik ez kantatu eta ikasi "Markesaren alaba" "Rap" soinuarekin? Hau izan daiteke truko bat esaldiaren erritmoa den horretaz jabetzeko.

Egia esan, gure ikasgeletako praktikan arazo batzuk sortzen direla eta, txosten honi nolabaiteko ordena emateko, Euskara Batuaren Ahoskera Zainduaren arauak hartuko ditugu, eta, banan banan, euskalduntze klaseetan sortzen diren arazoak ikusiko edo azalduko ditugu.

Bokalak

<a, e, i, o, u> Idatzi bezala ahoskatu. Bokalekin ez dago arazorik.

Bokal bilkurak

II.a. <**ea**>: etx**ea**, kaf**ea**... Orokorrean ez dago arazorik.

<**oa**>: gero**a**go, telefono**a**... Orokorrean ez dago arazorik, baina bai beste bokal bilkura hau gertatzen denean:

<**ioa**> bokal bilkura dagoenean:

Hitz arruntetan: *olio, balio, Orio, Bakio...*

Baita maileguzko hitzetan ere: *Produkzioa, prezioa, kontaminazioa, populazioa, poluzioa, organizazioa, insumisioa, lekzioa, asoziazioa...*

Gazteleraren ereduari jarraitzen diote ikasleek bi silaba egin nahian (producción = **produkzio.ia*), eta maiz azpimarratu behar dugu hiru silaba direla: *Produkzi.o.a, prezi.o.a, kontaminazi.o.a, populazi.o.a, poluzi.o.a, organizazi.o.a, intsumisi.o.a, lekzi.o.a, asoziazi.o.a...*

Konponbideak: Hitz hauek dituen testu bat eman eta ozenki irakurtarazi ongi ahoskatu arte.

Edota testua entzungaia izanez gero, ahoskotasuna lantzeko teknika ezberdinak eman: errepikapenak, kantarazi, antzespenak...

Ariketak, ikasleen mailaren arabera, ezberdinak izango dira. Datorrena, esaterako, goimailetan emango da:

> EUSKAL SELEKZIOEN ALDEKO ZUZENKETA BAT HITZARTU DUTE EAJk, EAk, HBk, eta IUk.
>
> "Euskal selekzioak lehiaketa estataletan nahiz nazioartekoetan ari daitezen bultzatzearen aldeko zuzenketa bat hitzartu dute EAJ, EA, HB eta IUk, Euskal Autonomia Erkidegoko Kirolaren lege-egitasmoari buruzko ponentzian. Halaber, euskal selekzioa izena hartzea hitzartu dute, eta ez, ordea, Euskaldiko selekzioa.
>
> Zera dio hitzartutako zuzenketak: "Euskal Kirolen Federazioen Batasunak behar bezalako laguntza emango die Euskal Federazioei bultzatu ahal izan dezaten euskal selekzioen partaidetza lehiaketa estataletan eta nazioartekoetan ere". Testuaren arabera, Federazioek beraiek aukeratu beharko dituzte selekzioetan aritzen direnak".
>
> *Egunkaria*, 98-V-19

II.b. <ia, ua>: *mendia, burua...* Bokal bilkura hauetan ez dago arazorik.

III.1. Bi bokal segidan daudenean, eta lehenengoa <i> edo <u> direnean bi silabatan ahoskatu: *abi.an, sozi.ala, mundi.ala, harreman komertzi.alak...*

Puntu honetan ere arazoak sortzen dira maileguak direnean, batez ere.

Konponbidea: termino hauek dituen testu bat eman eta antzestu. Edo ozenki irakurtarazi, adibidez:

JOKABIDE SOZIALA ETA INMUNITATE-SISTEMA.

"Antzinatik atzeman zen, emo**zio**zko esper**ientzia**k nortasunak, estresari aurre egiteko moduak eta antzeko faktore psikoso**zia**lak, gaisotasunaren minberatasunean eta garapenean eragin zezaketela. Duela ehun urte, gaisotasun infek**zio**soen erantzuleak pato**G**enoak zirela aurkitu zenetik, **zientzia** bio**medikoen** helburu nagu**sie**na agente hauek nola kontrolatu eta eliminatu ikertzea izan zen eta, ondo**rioz**, anti**bio**tikoen garapen oso garrantzitsua sortu zen. Azken urteetan, aldiz, gaisotasunetan (minbi**zia**, eritasun autoinmuneak eta gaisotasun infek**zio**soak barne direla) faktore psikoso**zia**lek duten eragina ikertzeko interesa berpiztu egin da. Ondo**rioz**, lan asko egin da, bai animali**ekin** eta baita gizaki**ekin** ere, estres-egoerek inmunitate-erreak**zioan** dituzten eraginak aztertzeko, eta garunak inmunitate-sistemaren aktibitatea zein mekanismo fisio**lo**-**G**ikoren bitartez kontrolatzen duen jakiteko".

Elhuyar 133-134

III.2 <i> edo <u> beste bokalen aurrean: silaba bakarrean ahoskatzen dituzten euskalkietan hizkera zaindutzat hartuko da. Ez dago arazorik.

IV. Bokal biren artean <h> idazten denean bokal bakoitza silaba batean ahoskatuko da: *za.harra, a.hula, be.hi.* Orokorrean ez dago arazorik.

Kontsonanteak

V. Idatzi bezala ahoskatu: **<b, d, f, g, k, l, ll, m, n, ñ, p, r, rr, s, t, ts, tx, tz, z>**

1. <g> <e> eta **<i>** Orokorrean ez dago arazorik, bakarrik: *geologia, psikologia, pedagogikoki, ikuspegi ekologikoak...*

Konponbidea: Termino hauek dituen testuak osenki irakurri.

BIOTEKNOLOGIA NEKAZARITZAN NOLA APLIKATU JORRATUKO DUTE IKASTARO BATEAN

"Nekazaritza produkzioa biologia molekularra bidez nola hobetu aztertuko dute egunotan Derioko Nekazaritza Eskolan eta AZTI Nekazaritza eta Arrantza gaietarako ikerketa zerbitzuan egiten ari den ikastaroan. Biologia molekularra aplikatzeko metodologiaren oinarrizko ezagutzak eta teknologia berri horien erabilpena, besteak beste, dira ikastaroan jorratuko dituzten gaiak".

Egunkaria, 98-V-19

2. <s, z> eta <ts, tz>

Arazo gehiago sortzen dira maileguekin: *prezioa, kontzeptua, kontaminazioa, funtzionatzen, Frantzian, pertsona...* Hainbatetan gazteleraz bezala ahoskatzen dituzte.

Konponbidea: Ahokorapiloak buruz ikasi ongi ahoskatuz. Maileguak lantzeko, berriz, letra horiek dituen testu bat eman ozenki irakurtzeko.

Sei sorgin sasian
Solasaldi soilean - *Maria Goikoa*
Sasi baten gainean - *Zer duzu, behekoa?*
Solasaldi soilean - *Iturrira al zoaz?*
Sei sorgin sasian. - *Ez.*
- *Zer duzu, ba?*
- *Senarra etorri.*
Tzanka tzenke tzankalon - *Zer ekarri?*
Tzinki tzonko tzankalon - *Zapata ta galtzerdi.*
Tzanka tzenke tzinki tzonko - *Ze kolore?*
Tzunku tzanka tzankalon. - *Zuri, gorri eta kikirriki!*

<ts> ahoskatzeko arazo handiak dituzte ikasleek.

Trukoa: ahoskatu behar dutenean ahoan listu asko hartu. Beste truko bat aipatzearren, hitza errepikatu fonema hori bi silabatan ahoskatuz, azkenean bat egiteko: *it-saso, it-saso, it-saso, itsaso.*

Otsoak mahatsa harrapatu nahirik
Jertsea puskatu hamaika lekutatik
Otsoak gaixoak dio:
"Nork konponduko dit?"
Atso itsuak, berriz:
"Bost axola zait neri!"

3. <b, d, g, r> bokal arteko kontsonanteak ahoskatu.

Euskalduntze prozesuan indar handia du paperak, hizkuntza idatziak alegia. Hortaz, orokorrean ez dago problemarik bokal arteko kontsonante hauek ahoskatzeko.

Baina ulermena lantzerakoan bestelako erregistroak badirela azaldu behar zaie ikasleei. Ez zaie eskatuko aldaketa fonetiko hauek, baizik eta, hala entzunez gero, uler eta ezagut ditzaten:

-G- bokale artekoa → Ø: *egon* [eon], *egin* [ein], *igo* [io] ...
-R- bokale artekoa → Ø: *ari* [ai], *dira* [dia], *gara* [ga] ...
Deklinabidean: -ERA → EA: *etxera* [etxea]

4. <r, rr> Kontsonante hauekin ez dago arazorik (Hegoaldean, behintzat).

VI. <h> Letra honekin ez dago arazorik (Hegoaldean, behintzat).

VII. <il, in> letra bilkura hauek bustikuntza eman dezekete: <(i)ll> eta <(i)ñ>.

Ahoskera zainduan <ll> eta ez <y>, eta bustidura ematen ez den euskalkien eremuan, ez da arazorik: *pilota, mina, bila, mila...*

Dena den, "yeismo" delako arazoa oso zabalduta dago

Konponbidea: <ll> duen ahokorapiloa edo kanta ikasi eta errepikatu ongi ahoskatuz.

Bestaldetik, hizkera samur eta adierazkorretan ematen diren aldaketa fonetikoak sartu beharko genituzke ikasprozesuan hasiera-hasieratik:

<l> → <ll> : [pollita]
<tmt → <tt> : [ttiki]
<dmt → <dd> : [Maddalen]
<s, z> → <x> : [xagu], [xaxtarrak], [xoxo] ...
Ariketa: testu arruntetik testu adierazkorretara pasatzea.

VIII. <j> ahoskera oinarrizkoa <y> da eta hizkera zaindurako hobesten dena, Nafarroan eremu zabalenean ahoskatzen dena, eta gure zentroan horren alde jotzen dugu.

VIII.1. [x] belarraz ere ahoska daitekeen hitzak, hitz hasieran: *jertse, jipoi, ja ere!...* Ez dago arazorik.

VIII.2. <j> hitz barruan: Orokorrean ez dago arazorik. *Ijitu, trajea, garajea...*

IX.1. <x>: *xagu, xoxo, Xabier.* Orokorrean ez dago arazorik, baina kantaren bat eman daiteke ahoskera hau hobetzeko:

Xoxoak galdu du mokoa,
Mokoa, xoxoa, gaixoak.

Nola kanta, nola xirula,
Nola kanta xoxoak?...

IX.2. <x> maileguetan <**ks**> ahoskatu: ez dago arazorik. *Taxi, sexi...*

Kontsonante bilkurak

X. <**zb, zd, zg**> (**ez**pada, **ezt**a, **ezk**ara)

Arazoa: Askotan ikasleek ez dakite hitzak lotzen, hortaz, garbi utzi behar zaie ez dela irakurtzen idazten den bezala. Hasiera hasieratik ohitu behar ditugu ikasleak nola ahoskatu eta nola irakurri.

Konponbidea: ozenki irakurtzen dutenean lotura hauek errespetatu behar dituzte, sistematikoki gainera. Zer esanik ez, entzungaietatik abiatutako ariketak ere jorra daitezkeela.

XI <**zz**> adberbio + aditza <tz> ebaki behar dugu.

Lehengo arazo bera dugu hemen eta konponbideari dagokionez berdin jokatuko dugu. Ariketaren (idatzia edo entzuna) zailtasuna neurtuko da ikasleen mailaren arabera. Entzungaia denean, adibidez: *Goen Kale, Jaun da jabe...*

Kontsonanteen bilkuretarako adibide bat:

ANTZERKIA: ANTONIO M.ª LABAYEN: *Teatrogintza eta Yakintza*

SOFIE: Eta... nola dago Ismaeltxo? Bazeukanan ikusteko gogoa.
AGAR: **Ez ze**nuke ezagutuko. Beti hazten ari **da eta**. Baita gaiztakerian ere!
SOFIE: Gure Ismaeltxo!
AGAR: Ez hain... txo!... gizon egi**nik** dago. Jesuiten ikastetxera eraman nue**nez** gero asko aldatu da. Hori bai, arropa, liburu, ta beste zernahi gauzatan neuzkan diru guztiak xahutu dizkit.
SOFIE: Sinesten dinat. Eta orain... nagusiarengana diru eske hatorrela ere bai.
AGAR: Zer erremedio!
SOFIE: Ondo egi**na**! **Ez den** nahikoa nagusiak, hitzaz gozaturik haurra mundura ekarrarazi eta sasian uztea. Berak ere paga dezala larrutik...
AGAR: Horretan Don Abraham **ez du**zu batere zeken. Eskatzen diodana ematen dit.
SOFIE: Eskatu gabe eman behar liken... **Ez den** aspaldi hiregana biltzen. Ezta semea ikustera joaten ere. Bere-berea din, bada, Ismael koitadoa... gure laztana!
Bazeukanan ikusteko gogoa. Aitak baino gehiago apika!

XII. <nz, lz, rz> eta **<ns, ls, rs>** Kontsonante zistukaria afrikatu ahoskera zaindurako.

Euskalki guztietan ematen ez denez, ez dago arazorik. Baina ariketa bera izango genuke ahoskera hori lantzeko.

Baina, berriro diot, ulermena lantzerakoan bestelako erregistroak badirela azaldu behar zaie ikasleei. Ez zaie eskatuko aladaketa fonetiko hauek, baizik eta, hala entzunez gero, uler eta ezagut ditzaten:

EZ + N/L → Ø: [enaiz], [enago], [eluke], [elegoke]...
N/R/L + Z → TZ: [esantzion], [izantzen], [hortzegoen], [hiltzaitez]...

XIII. <zn, zl, zh>

Ikasleek idatzita dagoen bezala ahoskatzen ohi dute. Puntu honetan ez dugu arazorik: *(ez naiz: eznaiz* edo *enaiz)*

Zehar-galdera eta galdera-zuzenaren doinuak ezberdinak dira eta anitzetan ikasleek doinu horiek nahastu egiten dituzte. Adibidez:

Gaia: Eskolaurrean euskaraz ikasten den denbora eta haurren hizkuntza maila. Testua irakurri ondoren ikasleak honelaxe kontatzen zuen:

> *.../... Eskolaurreko urteak oso inportanteak dira haurrak lortuko duen euskara mailarako. Bai ume euskaldunek, bai erdaldunek, behar bezalako baldintzak behar dituzte eta O.H.O.ko maisu-maistrek, pedagogoek, eta abarrek kezka hau dute:*
>
> *Nola lortzen da haurra euskaraz oso ongi mintzatzea? .../...*

Ikasleak honelaxe esan zuen zehar-galderaren markarik gabe eta zehar-galderaren doinuarekin. Ohartarazi ondoren konturatu zen eta zuzendu.

Beraz, arazoa bakarkako azalpenean galdera-zuzena agertzen bada suertatzen da. Badirudi beren buruari egiten dioten galdera dela, baina beharrezko doinurik gabe.

Konponbidea: lotura batekin, esaterako *ETA kopulatiboarekin,* edo *Hona hemen kezka: ...*

Beste zehar galderetan ez dugu arazorik: *"Ez dakit noiz egin zuten eta nork egin zuen ere...",* doinu egokia ematen batiete.

Honek erakutsiko luke prosodia bere osotasunean irakatsi beharko genukeela, fonetikaren irakaskuntzan esaldiak bere osotasuenean ahoskatzen irakastea fonema jakinak ahoskatzen irakastea bezain garrantzitsua edo garantzitsuago dela, akaso.

AHOSKERAREN ARAUGINTZA KOMUNIKABIDEETAN

Donezteb e, 1998-IX-26

Asier Larrinaga Larrazabal,
EITBko Euskara Saileko burua

TELEBISTA ZER DEN

Geometria euklidearrak dio puntu biren arteko distantziarik txikiena lerro zuzena dela, baina badakigu bestelako aldagai batzuk aintzat hartzen dituguneanan gauzak ez direla beti horrela izaten. Hogeita hamar urte dira euskara batuaren prozesua abian ipini zenetik eta baten batek pentsatuko zuen morfologiari eta besteri buruzko arauekin batera Euskaltzaindiak ahoskeraren gainekoak ere emango zituela prozesuaren hasiera-hasieran. Euskara batua, baina, batik bat idatzizko ereduaren batasuna izan da. Gaurko gizarte modernoaren eskakizunek beste esparru batzuetara eraman dute eredu batua, hain zuzen ahozko komunikabideetara, irratira eta telebistara. Itzulinguruka, beraz, heldu da ahoskerari buruzko arauak emateko unea eta pozik esan dezaket Euskal Irratia eta Telebista aitzindari eta eredu izan direla maila zainduko euskarari Jardunaldion ostean markatuta utziko zaion bidean. Hitzaldi honetan ETBn orain arte egindako lanaren berri emango dudanez, nik ere lerro zuzenetik jo barik osteratxo bat egin nahi dut lehenago, garrantzitsua baita telebista zer den ulertzea zer egin dugun ondo ulertzeko.

Telebista bat-batekotasunaren kontrako muturrean dago. Ematen du botoi bat sakatu eta ez dela besterik behar etxeko leiho beltzean irudiak eta hotsak pizteko. Gure eguneroko bizimoduan keinu oso ohizkoa da botoiak sakatzea, igogailuan behera joateko, esnea mikroan berotzeko, arropa ikuzgailuan garbitzeko... eta ohartu ere ez gara egiten botoiak zabaltzen digun atearen atzean ustegabeko errealitatea dagoela. Telebistaren errealitateak alderdi bi ditu: erlojua eta talde lana. Irudien etengabeko jarioa halakoa izan dadin, alegia, etengabea eta jario erakoa, ez tartekakoa eta ez oldar edo zurrunbilo erakoa, den-dena segundoko doitasunez planeatu eta neurtu behar da. Ondo egin ezean, elur antzekoa edo beltzuneak edo abiadura zoroko irudiak agertuko dira pantailan. Gero, inork ez jakin errua zeinena den: etxeko egongelan jesarrita dagoenak antenari egotzi ohi dio, aldian-aldian tramankuluak ere nekatzen, alfertzen edo zoratzen direlakoan. Baina programaren arduradunak laster jakiten du erruduna nor izan den: irudiak grabatu dituen kameraria, bideoa prestatu

duen kazetaria, zintaren ardura izan duen operadorea, grabazioa aireratu duen errealizadorea edo inguruan ibili den beste erredakzio laguntzaile, ingeniari, soinu nahasle, muntatzaile, grafista, artezle, artxibozain, makilatzaile eta abar. Beste hamar minutu egon naiteke telebistan betetzen diren zereginak zerrendatzen, baina ez nituzke denak aipatuko, pantailan azaltzen den hots-irudizko une bakoitza prestatzen eta jagoten langile mordoa ibiltzen da eta, tartean hizkuntzalaria.

Badirudi errazago imajinatzen dugula hizkuntzalaria orri horituetako letren artean edo hiztegietako hitz apainen artean, lente, kable, antena, magnetoskopio eta chromakey artean baino. Baina, horren guztiaren barruan betetzen duen lekua garrantzi handikoa da. Izan ere, telebista uhinen bidez zabaltzen denaren ehuneko berrogei, gutxi gorabehera, hitzezko berbakuntzak dira.

Gainera, norbaitek pentsatuko duenaren kontra, hizkuntzalariak ez du esklusibarik hizkuntzaren gaineko arduran. ETBko beharginak jakitun dira lehengai bi dituztela, irudia eta hitza, eta batari besteari adina arreta ematen diote. Kontuz ibiltzen dira produktua biribil irten dadin, oso sarri behingo produktuak izan arren —halakoak izan dira orain arte, behintzat, birziklatze programazioak asmatu dituzten arte—. Telebistako produktuak, gorabeherak gorabehera, erabili eta botatzekoak izaten dira, iraungikorrak, airean galdu eta lekukotasunik uzten ez dutenak, baina, hala eta guzti, helburu zehatza dute, komunikatzea, eta horregatik ahalegindu beharko du sortzaileak lehengai biez ondo baliatzen, irudia eta hitza ondo bilbatzen. Asmatzen badu, lana ondo beteta egongo da.

ZELAN KOMUNIKATU

Laburpen gisa, hitz bitan azalduko ditut telebistako produktuen ezaugarriak: iraungikorrak eta komunikagarriak izatea. Behingotasuna, produktua behin erabilita baliogabe bihurtzea, sortzailearengandik kanpoko ezaugarria da, batik bat edukiak erabakitzen baitu hala izatea. Sail dramatiko batean, esate baterako, bosgarren kapitulua airera irteten denean, laugarrena eta aurreko guztiak ezdeus bihurtzen dira, zakarrontzira bota litezke, ikuslea, zer edo zergatik bosgarrena baino lehenagoko kapituluak galdu arren, berehala jarriko baita istorioaren jakitun eta, hortaz, atzera barik telesailean aurrera egin nahiko du eta.

Besterik da komunikagarritasuna. Definizio modukoa ematearren, produktu komunikagarria komunikazio egoeraren araberakoa dena izango da. Jakina da komunikazio egoerak hainbat osagai dituela. Lehenengo, mezua. Telebistan, era guztietakoak izaten dira mezuak, baina sailkapen laburra egin dezakegu.

— Informatiboak: albisteak eta berriak ematen dituztenak.

— Jakingarriak: zientzietako, historiako, giza bizitzako eta abarretako gaiak eta gorabeherak azaltzen dituztenak.

— Entretenigarriak: gogoan hartzeko daturik ematen ez dituztenak.

Ondoren, mezuak lotzen dituen jarduleak daude.

— Igorlea: telebistaren kasuan kazetari, aktore, aurkezle edo bestelako profesionalen bat izaten da.

— Hartzailea: etxean egoten den teleikuslea. Ez da hartzaile bakarra, ezaguna ere ez da, eta nekez zehatz daitezke batez besteko ikuslearen ezaugarriak. Hortaz, telebistako produktuak sortzezko zama eraman behar du, honako zama, Manu Arrasateren hitzetan esanda (1): "Ikusentzule gehienek ulertu behar dute adierazitakoa". Salvador Mendietak (2) hitz gehiagorekin baina gauza bera dio: "Telebistako erredaktoreak ez ditu entzuleak aukeratzen; ezagun ez dituen pertsona era guztietakoei zuzentzen zaie eta ahalegina egin behar du denek ulertzeko moduko hizkera erabiltzen". Horren ondorio zuzena telebistan, gehien-gehienetan, hizkera estandarraz baliatzea da.

Hori izaten da, gainera, jokabiderik zuhurrena, igorlea ez baita egoten komunikazioaren zirkunstantzien jakitun. Beraz, hizkera estandarrak eskainiko dio, aldi berean, hartzailearekiko hurbiltasun gutxien eta urruntasun gutxien, hoztasun gutxien eta amultsutasun gutxien, seriotasun gutxien eta lagunartekotasun gutxien, alegia, erdibideko erdigunerik erdikoena.

Kanalari buruz ez dago asko esaterik, uhinak direla besterik ez. Kodeari buruz, ostera, asko. Lehendabizi, telebista bidezko komunikazioan ez dela kode bakarra erabiltzen. Guri, hizkuntzalari garen aldetik, hizkuntza kodea baino ez zaigu interesatzen, baina ez dezagun ahaztu badirela beste asko. Kolore kodea da horietako bat. Seriotasuna eta sinesgarritasuna aditzera eman nahi izanez gero, urdina izango da nagusi pantailan, albistegietako dekoratuetan, esate baterako. Kode berak telebista kateak ezagutzeko balio digu: ETB-1en adierazgarria gorriaren inguruko su koloreen sorta da, ETB-2n urdina eta kolore hotzak dira nagusi, Canal Plusen partxiseko margoen jokoaz baliatzen dira, eta abar.

Hori dena hala da, baina telebista komunikazio interfazea den heinean bakarrik. Gehienetan, ostera, kuxkuxeatzeko leiho irekia izaten da, hain zuzen ere pelikulak, marrazki bizidunak, telesailak eta beste hainbat gauza aireratzen direnean. Horrelako kasuetan komunikazio egoera ikuslearengandik kanpokoa izaten da guztiz. Komunikazioa pantailaren alde batean gertatzen da eta beste aldean, teleikuslea dagoen aldean, ostera, behaketa.

Hizkuntza kodeari begira, beraz, funtsezkoa da komunikazio egoeren zelanbaiteko sailkapena egitea, kasuan-kasuan komeni den tratamendua zehazteko irizpideak finkatzen hasteko helburuz.

(1) ARRASATE, M.: *Euskarazko Albistegietarako Esku-Liburua*, 1992.
(2) MENDIETA, S.: *Manual de estilo de TVE*, 1993.

— Egoera neutroa edo eztabadakoa: Lehenago azalduriko egoera da. Hartzailea teleikuslea izanik, zor zaion adeitasuna aintzat hartuta eta tipo bat zehazterik ez dagoenez, nahitaezkoa da hizkera estandarraz baliatzea.

— Hurreko egoera: Honetan ere teleikuslea da hartzailea, baina, lehengoaren aldean, ikusle tipoa mugatuta egoten da. Kasu honetan hizkera estandarra da oinarria, baina joera nabarmena egoten da ikuslearengana hurbiltzeko; modu bitan: hizkera adierazkorra erabiliz edo, tarteka, lagunarteko hizkerara jauzi eginez. Denon gogoan egongo dira egoera honen adibide ezagunak: kirol saioak eta umeei zuzendutako programak.

— Antzirudi egoera: Telebistan azaltzen diren antzezkizunei dagokiena. Ezaugarria lehen esanda dago, alegia, egoera ikuslearengandik kanpokoa izatea. Baina hortik aurrera, antzezkizunetako egoerak nekez bil daitezke eredu apur batzuetara. Batean zirujau bi ikusiko ditugu ebakuntza gelan, bihotzeko gaitz baten gainean hitz egiten. Bestean alproja talde bat, hiri handi bateko kalezulo batean, ahoberokerietan. Benetako bizitzan jazo daitezkeen egoera guztiak eta askoz ere gehiago gertatzen dira pantailan. Jakina, kodea modu batekoa edo bestekoa izango da, egoeran-egoeran.

Bada, oraindik ere, telebistako komunikazioari buruz ahaztu ezineko alderdia. Batzuetan, komunikazioa bat-batekoa izaten da: mezua sortu ahala hartzaileari bidaltzen zaio besterik gabe. Telebistan nekez aurkituko dugu horrelakorik. Askozaz ohikoagoa izaten da mezua asmatzen denetik igorri arte sortzaileak astia hartzea. Gehienetan egokitzapena gertatzen da orduan.

Era askotakoak izaten dira egokitzapenak, kodearena adibidez. Hain zuzen, telebistako hizkuntzalarien lana, batez ere, sorkuntza prozesuaren atal horri lotuta egoten da. Baina komunikazio egoerako edozein osagarri egokitu daiteke. Adibide argigarria ematearren, har dezagun garbigarri marka baten iragarkia. Mezua honakoa izan daiteke: "Izara hori XXXekin zuriago garbituko duzu". Asmaturiko komunikazio egoeran igorlea ama bat izan da eta hartzailea haren alaba. Gaur egungo publizista zorrotz batek horren egokitzapena egin behar izanez gero, hartzailea aldatuko luke eta alabaren lekuan semea ipiniko luke.

Esan nahi dut, beraz, telebistan, komunikazio egoerak teleikusleari begira sortzen direla, nahiz eta ikusle horrengandik kanpokoak izan. Hartara, ia beti jarriko da helburutzat lehengo esaldia: "ikusentzule gehienek ulertu behar dute adierazitakoa".

HIZKUNTZA MAILAK TELEBISTAN

Beste hedabideen aldean, telebista askozaz aberatsagoa da. Ez dut esan gura diru gehiago erabiltzen duela, hori ere egia izan arren, ezpadaze telebista bidez gertatzen den komunikazioa dibertsoagoa dela. Horrenbestez, kodea ere

hainbat eratara erabiliko da, komunikazio egoera osatzen duten gainerako elementuen arabera. Komunikazioaren tonuari begiratzen badiogu, alegia, egoera bakoitzean zaindu beharreko adeitasuna, azturak eta gizalegea aintzat hartuz gero, kodearen erabileran maila bi bereiziko ditugu.

— Maila zaindua: Egoera neutro edo eztabadakoari dagokio. Formaltasun handiko harremanei, komunikazio alor teknikoei eta mezua artegai bihurtzen duten egoerei ere maila zaindua dagokie, baina telebistan nekezago azalduko zaizkigu horrelakoak.

— Maila arrunta: Igorlearen eta hartzailearen artean nolabaiteko kidetasuna, hurbiltasuna edo harremana existitzen deneko egoerei dagokie.

Maila bakoitzaren barruan, gehiago sakondu nahi izanez gero, graduak banatu ditzakegu. Maila zainduan, esate baterako, harreman oso formalek, zientzien eta tekniken esparruak eta abarrek gradu jasoagoa dute. Hala ere, funtsean, horrelako egoeretan erabili beharreko hizkera hizkera estandarra da, bai batua bai euskalkietako norma estandarra. Hizkera estandarrari kutsu jasoa ematen dion elementua lexikoaren hautaketa izaten da beste barik. Zientzietako hizkeran, adibidez, nekez topatuko dugu beste elementu bereizgarririk; agian, egitura sintaktiko bereziren bat, baina gehienetan formula bihurtuta egoten dira.

Maila arruntari dagokionez, aukerak askozaz gehiago dira. Batetik, aldaera bizi batez balia gaitezke lagunarteko kutsua emateko edo etxe barruko bizitza girotzeko edo bestelako egoerak hitzez hornitzeko. Baina hizkera estandarretik aldendu gabe, baliabideak bat baino gehiago dira. Maila jaso gura dugunean gertatzen den legez, erraz-erraza da hizkera estandarra lexikoraren hautaketa eginez moldatzea. Hartara, "txapeletik eginda egon", "aitzurra", "kriston aitzurra", "ospa egin", "Aitaren egin orduko" eta horrelako hitz eta lokuzioen bitartez hizkera estandarra mozorrotu eta mailaz jaitsiko dugu. Morfosintaxia ere oso lagungarria izaten da, batik bat hikako adizki alokutiboak erabiliz gero, berez lagunarteko eta kidetasun kutsuko harremanei dagozkie eta. Badira beste baliabide morfosintaktiko batzuk, baina, gehienetan, ez doaz kodea murriztetik baino harago.

Azkenik, ahoskera moldatzea izan daiteke hizkuntza maila apalagoa adierazteko bidea. Moldaketa era askotara egin daiteke, bokalen arteko [γ] eta [δ] hotsak erauztetik edo harmonia bokalikotik hasi eta hitz laburketa eta amalgametaraino.

Telebistak hizkuntza baliabide horien guztien beharra du pantailan erakusten duena sinesgarri egiteko. Dena dela, benetakoa baino sinesgarriagorik ez dago eta, horregatik, oso garbi izan behar dugu hizkuntza maila bakoitzaren muga non dagoen. Zentzugabekeria izango litzateke, adibidez, albistegietako esatari guztiei, maila zainduan aritu behar duten aitzakiaz, /h/ ahoskatzeko eskatzen hastea, aspiraziodun ebakera aspiraziorik gabekoa bezain zaindua da eta.

Donostiako korrespontsalek, hortaz, Baionakoek ez bezalako eredua izango dute, baina denak izango dira egokiak. Hari beretik, bai [maila] eta [baina] moduko ebakerak bai [maʎa] eta [ba ɳ a] modukoak maila zainduari dagozkio eta nork bere erara ahoskatzea bultzatu behar dugu. Nahastea da eragotzi beharreko gauza bakarra. Hartara, [korapiʎo] esaten duenak ez luke [mutila] esan behar edo, ahal dela, pertsona beraren hizkeran [baina] eta [espa ɳ ola] agertzea saihestu egin beharko litzateke.

Maila zainduan, horrenbestez, bat baino gehiago dira ereduak, aspirazioa edo palatalizazioa edo beste zelan ebazten diren. Inportantea da horrelako gauzak aintzat hartzea. Are inportanteagoa da, ostera, ahoskerari buruz ari garela, hortik aurrerako urratsa, alegia, berbarik berbako ebakeratik harantzago doana. Dagoeneko, batzuk jakinak dira eta arauetan jasota daude, "bait" menderagailuak eragindako kontsonante bilkuretako fenomenoak esate baterako. Beste arlo batzuetan lehen pausoak eginda daude, azentuaren gorabeheretan batik bat. Dena dela, oso gogoan izan behar dugu, telebistan eta oro har ahozko komunikabideetan, hitzak andanaka esaten ditugula, esaldien barruan sartuta. Horri arreta berezia eman behar diogu.

Behar bezalako erritmoa, azentua eta entonazioa erabili ezean, alferrik ari gara [ʃokalari] gora eta [xokalari] behera, telebistaz zabaltzen diren berbaldiak ez baitira sinesteko modukoak izango "euskarazkoak ez badira nekez sinetsiko baititu inork". Horregatik, hain zuzen, azken urteotan, Euskal Telebistako hizkuntzalarion ahaleginak arlo horretara bildu ditugu.

Orain arteko esperientziatik ondorio xume bi atera dugu. Lehena, errazagoa dela euskal prosodiaren araberakoa zer *ez* den esatea, zer den esatea baino. Bigarrena, euskal doinu jatortzat har ditzakegunen artean ez dugula arrazoirik aurkitu bat hobesteko edo beste bat gaitzesteko. Eta korolario gisakoa: zail baino zailagoa dela inori euskaraz ondo entonatzen irakastea.

EGUNEROKO JARDUNA

Euskara batuak ez du orain arte arauzko ahoskerarik izan, baina horregatik ez da latinaren moduko hizkuntza mutua izan, euskalki bizien oinarria izan du eta. Hartara, batzuetan hobeto, beste batzuetan txarrago, gehienetan paperean idazten denari hurbiletik jarraituz, euskara batua mihi-ezpainetan ibili da ia hasieratik eta ahozko komunikabideetara ere heldu zen orain dela urte asko.

ETBn bide zabala utzi diegu euskararen berezko doinutzat har ditzakegun guztiei eta ebakera kontuetan oso murriztapen gutxi ezarri dugu. Konturatuta geunden maila zaindurako eredu baten premia zegoela eta murriztapen apurrak horri begira pentsatu ditugu. Ahoskeraren gaineko IV. Jardunaldion ostean,

Euskaltzaindiak erabakita utziko du maila zainduari dagokion ebakera. Arau berriak samur-samur hedatuko dira Euskal Telebistan, orain arte bultzatu dugun eredua ez baitabil oso urrun.

Gure esperientzia inori baliagarria bazaio, orain arte urratu dugun bidearen berri eman gura dut labur-labur. Zehaztu ditugun jarraibideen artean badira batzuk batere zalantzarik egin gabe onartu direnak, /ś/ eta /s/ edo /tś/ eta /ts/ bereizi beharra adibidez. Hala ere, nekeza da ohitura hartzea, batik bat bereizketa berez egiten ez dugunontzat. Arazorik handiena, dena dela, hizkuntzatik kanpoko eraginak sortzen digu. Oso zabal dabil euskal abizenak erdarazko moduan ematea eta ohartu ere egin gabe esatariek [arɸaʎuś] eta horrelako bihurrikeriak ahoskatzen dituzte [arsaʎus] behar den lekuan. Esan gabe doa eragin txar hori euskal abizenen azentuan ere nabari dela. Horren errua ezin zaio axolagabekeriari egotzi, esatariek jartzen duten arduraren adibideak ere asko dira eta: [gonsales] eta [barrjónwebò] esate baterako.

Beste kasu batzuetan aldez aurretik jakin dugu ohitura aldatzea gaitzagoa izango zela eta, horrenbestez, mailakako prozesua pentsatu dugu. Hori izan da /ʃ/ hotsaren kasua. Batetik, albistegietako aurkezleei beti /ʃ/ ahoskatzeko eskatu genien eta hala egin dute aspaldi honetan. Gainerako esatariei /ʃan/, /ʃo/ eta horrelako hitz hasieretan saiatu daitezela eskatu diegu eta dagoeneko nahiko errotuta dago ebakera hori, are haragoko kasuetan ere. ETBn sarri-sarri entzuten da, adibidez, [ʃuśtisia]. Honetara heltzeko, zalantza barik, aurkezleen ospeaz baliatu gara, bai baitakigu eredu direla beti. Oso lagungarria izan da, halaber, "ihardun", "iadanik", "Yerusalem" eta horrelako trikimailu grafikoak erabiltzea.

Izen berezietan, gainera, aparteko ahalegina egin dugu /ʃ/ ebakera indartzen joateko, batik bat Euskaltzaindiak erabakitako toponimoen kasuan. Gehienetan, beraz, /alʃeria/ eta /ʃamaika/ ahoskatzen dute ETBko esatariek. Hari beretik, oso ohizkoa izaten da /georgia/ eta /norbegia/ ahoskatzea ere.

Horrelako ebakerak bultzatzeko, esan dudan legez, trikimailu grafikoez baliatu gara askotan. Gauza jakina da nahi gabe idatzizko testura makurtzen dela ahozko hizkuntza sarritan. Gure kaltetan barik gure onerako aprobetxatu dugu begietatik sartzen denaren indarra eta, hartara, "Yaponia", "eztuzu", "batipat", "egin ezkero" eta beste hainbat grafia bitxi erabiltzen dugu hobesten ditugun ebakerei leku egiten joateko. Ez da jokabide sistematikoa, horrela idatzitako testua ernegagarri izaten baitzaio ortografiara ohituta dagoenari, baina oso erabilgarria da zaindu beharreko ebakerei arreta emateko. "Ori-o" edo "Deri-o" ikusten duenak, esate baterako, nekez ahoskatuko du [órjo] edo [dérjo]; bai, ordea, [orio] edo [derio].

Sasoi batean sekulako iskanbila sortu zen ETBn /saraxebo/ esaten genuelako. Haatik, [órjo] edo [dérjo] entzuteagatik ez du inork ezer esan inoiz. Edonola ere, ebakera horiek erdarak eta erdal komunikabideek euskaldunongan du-

ten eraginaren adibide bat baino ez dira, baina euskal komunikabideetako beharginek ahalegin handia egiten dute uztarri hori gainetik kentzeko. Denbora asko ez dela, esate baterako, ETBn direnak eta ez direnak egin genituen /benxamin netanǰau/ ala /beniamin netanǰahu/ esan behar den argitzeko.

Dena dela, horiek eta antzeko beste hainbat banan-banako ahalegin apalak baino ez dira. Helburu nagusia handiagoa da: egunetik egunera euskara egokiagoa, zainduagoa eta egoeran-egoerakoagoa erabiltzea.

ARAUAK EGUNEROKOTASUNEAN

Doneztebe, 1998-IX-26

Julian Beloki,
Euskadi Irratia/Euskadi Gaztea. Zuzendaria

Euskarazko irratigintza ez da atzo goizekoa, beste batzuekiko gaztea bada ere. Esteban Irigoien Aranazko erretore zela, herritarrentzako irrati-emanaldiak euskaraz egiten hasi edo-ta *Loiola irratia-k* lehen saioak aideratu zituenetik eta orduko *La Voz de Guipúzcoa*-n baserri-giroko berriketaldi haiek entzun zitezkeen garaitik, urte asko joan dira eta ibilaldi luzea egin da. Gaur da eguna, euskarazko irratigintza inoiz baino indartsuago eta oparoago agertzen zaiguna.

Enpresa-egitura, lan-talde, zabalkunde-indar eta diru-baliapidez, Autonomia Erkidegoko irrati publikoak, *Euskadi Irratia* eta *Euskadi Gaztea* guztien buru, ia Euskal Herri osoan ez ezik, gure mugez gaindi ere entzun daitezkeela. Baina, beste izen nagusi asko dago gaurregun euskarazko irratigintzan, zein bere esparruan: Baionako *Gure Irratia, Irulegikoa, Xuberoko Boza* Maulen, Iruñako *Euskal Herria Irratia* eta, beste batzuk gogoratuz, *Bizkaia Irratia, Oñatiko Udal Irratia, Xorroxin Irratia, Arrate Irratia, Lekunberriko Udal Irratia*... Horiek guztiak behintzat bai —eta litekeena da bakarren bat ahaztu izana ere—, euskaraz baino egiten ez duten irratien artean.

Garai batean, Nemesio Etxaniz, Maria Dolores Agirre, Atxukarro, Iñaki Eizmendi "Basarri", Jose Mari Iriondo, Zesareo Elgarresta, Juan Mari Iraolagoitia, Karmelo Otaegi, Eguzki, Ixiar Sagarzazu, Iñaki Zubizarreta, Jose Ramon Beloki eta, orotara ere, izen nagusi gutxi batzuk baino ez ziren lekuan, irrati idazle eta hizlari mordoa dabil gaurregun, modu askotako gai, albiste eta kontakizuen peskisan. Lantzen eta aideratzen diren irrati-generoak ere hein berean ugaldu direlarik.

Hori bai, lehen bezala gaurregun ere, galtzak bete lan izaten dugu, entzuleak erakartzen, entzulea gureganatzen, horretarako gaiak aukeratzen, informazio-iturriak lantzen, saioak itxura erakargarriz jazten eta mikrofono aurreko emanaldiak txukuntzen. Ez baita entzulea batere kontentaerraza. Alderantziz: gauza iheskorra baita entzulea eta gero eta iheskorragoa gainera. Eta irratien arteko konpetentzia berriz, haundia. Eta, apenas, ia, inork, euskaraz aritze hutsagatik hautatzen gaituen.

Dena den, soziologoek eta entzulegoari buruzko ikerketek diotenez, emaitzak, orohar, onak dira. Eman dezagun, bagarela seiehun mila euskaldun. Ba hirutik batek euskarazko irratiren bat entzuten du egunean zehar. Hori asko da, gure gizartean irratia entzuteko dauden bataz-besteko ohiturak kontuan hartzen baldin baditugu. Egin kontu, entzule gehien biltzen den orduan, goizeko 11-ak inguru hortan, bataz beste 430 mila lagunek entzuten dutela irratia, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroan, eta horietatik 70 mila pasatxok euskarazko irratiren bat hautatzen dutela. Euskadi Irratiak berak bakarrik, 40.000 entzule elkartzen ditu goizeko ordu horretan, 11-ak inguru.

Esan gabe doha, beraz, gaurregun, gurasoen ahoz-ahokoak eta irakaskuntzak duten garrantzi eta indarraren osagarri, telebista eta gero, seguruenik, irratia dela hizkuntzaren zabalkunderako tresna edo baliapide haundietako bat. Hala ote, benetan? Erantzun-modu bat badago hor, Euskara Batuaren ahoskera zainduari buruzko arauak jasotzen dituen idatziaren atarikoan. Hitzez hitz: "Irrati eta telebista euskaldunak ditugunetik bereziki ahoskeran ere batasunerako irizpideak ematea beharrezko iruditzen zaio bati baino gehiagori. Eskari horri erantzunez ematen ditu ondoko arauak Euskaltzaindiak...".

Arauok, ekainean onartu eta udazkenarekin batera iritsi zaizkigu jendartera, aurten, beraz, 1998an. Hau da, Euskadi Irratia bera, ia hamasei urte betetzera doanean eta Euskadi Gazteak berak ere 8 urte badaramatzanean. Hau da, guk geuk bakarrik, bi irratiok bakarrik, 180.000 irrati-ordutik gora bete eta gero, lau haizetara zabaldu eta gero. Ehundaka hizlari-erredaktore, aditu, laguntzaile, entzule eta gonbidaturen hitzak, urte guzti horietan, entzule izan ditugunen belarri-ertzetan utzi ditugunean. Eta honekin, hauxe baino ez dut esan nahi. Guk ibilian-ibilian, bide luzea egin dugula eta ibilaldi luze horretan, irratigintza bera bere osotasunean izan dugula kezka nagusi, halabeharrez, hizkuntzaren zuzentasun eta egokitasunak, ildo sakon, akademiko bakarretik bideratzen saiatzea baino areago. Eta ez lehen eta ez orain, ez ditugu beti ongi lotu izan irratilari edo kazetari-sena eta euskal sena, hau da, etxeko bular-altzoetan ikasi eta naturaltasun osoz eguneroko bizitza ia erabat euskaraz egin izan dutenek hain aberats gorde izan duten berezko sen hori. Eta, tamalez, esperientziak behintzat hala erakutsi digu, kazetaritza ikasketak egin eta EGA tituluaren jabe direnengan ere, hizkuntzarekiko begirunea, erabilerarako zuzentasuna eta egokitasuna ez dira beti gure belarrien gozagarri izan ohi.

Horregatik, Euskara Batuaren Ahoskera Zainduari buruzko arauon atarikoan irakurria gogoratu baino ez dut egin nahi: "Ahoskera kontuetan ohiturak aldatzea zein zaila den kontuan izanik, ohartzen gara, oraingo arau hauek denbora gehiago eskatuko dutela idatzirako ematen direnek baino".

Hori esanik, esan dezadan baitare, sentitzen eta pentsatzen dudan bezalaxe: ongietorri bitez arauok, karpeta eta CD-ROM-etan jasotzen ohituak gauden beste guztiak bezalaxe eta egin dezagun, orain, zubigintza, Euskaltzaindiaren —kasu honetan ahoskerari buruzko arauok landu dituen batzordearen— eta

irratietako hizlarien artean, hau da, araugintzaren eta erabilpenaren, hizlarien eta entzulegoaren artean. Eta esandakoak, nik hala uste, euskaraz diharduten irrati guztientzako balio beharko luke.

Arauei dagokienez, zenbait ataletan, gehienetan, hurbiltasun haundia dagoela esango nuke, proposatzen eta erabiltzen ari garenaren artean. Eta hemen bai Euskadi Irratiaz eta Euskadi Gazteaz ari naizela, horietxen ardura daukadanez. Gure esaterien artean, gehiengoak darabil ahoskera aski zaindua; alde horretatik, nahikoa arautua dagoela esan genezake. Baina, bestalde, badira atal edo arau batzuk, erabiltzen ari garenaren eta proposatzen denaren arteko alde haundiarekin; haundiegia ere bai, agian.

Ni gaiotan aditua ez naizenez —egia esan, ia hobe nuke ixilik egotea, baina, tira...—, antzeman ditudan gai batzuk aipatu besterik ez ditut egingo:

— Esatari batzuk, hezur-muinetan txertatua daukate "yeismoa". "Autopistako bigarren *karriya* itxi dute". "Juan Carlos *Ayi*, CDNko presidenteak *biyera* izan du". "*Makayaua* jaten hasi gara...". Ezingo dugu ontzat eman, ez, baina, apenas, belar gaiztoaren antzera, sorotik erabat desagertarazterik badagoen.

— *Behi, nahi, ahula... bei-nai-aula*, horiek diptongo egiteko joera haundia dago. "*Bei* euskaldun baten memoriak", maizago esaten dugu horrela "Behi euskaldun baten memoriak" baino. Hortan utzi beharko al genuke?

— Pertsonak alditan *pertxona* izaten dira eta, gero, *personalitatea* ere izaten dute. Eta Felipe *Gonzalez socialista* da. *Ciudadea. Unibersitatea. Falsua.* Z/S - TS-TZ-TX bereizten, *tasia, sexua* eta antzekoetan, arazoak agertzen dira bai, baina, bakanago. Orohar, izen propien gorabehak kenduz gero, arrastoan gabiltzala esango nuke.

Egia esan, ez ditugu beti betetzen arauak aitatutako kasu horietan, baina, badago oraindik ere urrutiago daukagun araurik:

— Garcia Marquez-ek, hainbat zipristin harrotu zuen "Botella al mar para el Dios de las palabras", artikulu ospetsu hartan, gazteleraren ortografiaz ziharduela, besteak beste, zera zioen: "Firmemos un tratado de límites entre la ge y la jota". Egia aitortu behar badizuet, ahoskerari dagokionez, horko *geologia, geografia* eta gainerakoak, den-denak jotaren erreinura eramango nituzke nik, neuregatik balitz, eta *joku, jokalari, janari, jaun, jai, jarraipen* eta besteak ere talde berean utziko, *zijoan eta zijoazen* eta horiek bezala *jertse, jira, jipoi, ijito* eta abar horrelaxe esateko lizentzia eskertuz. Honekin adierazi nahi dudana, hortan, orohar, proposatzen den araubidetik urrunago gabiltzala, urrunegi ez esatearren.

Gainerakoan, *ezkara, ezpada, etzara, etzetozela, esantzuen, emantzion, enaiz* eta horrelakoak, hizlari bakoitzaren jatorriaren arabera dago asko, bai, baina, orohar eskuraerrazago ikusten ditut erabilera horiek.

Baina, tira, ez nadin luza, bistakoa denez, nik baino irizpide zuzen eta zorrotzagoz aztertu dituzue eta kontuok. Ez dagokit niri, arau horien alderdi formalaz mintzatzea, hortaz jakin ere ez dakit eta.

Esan dizuet lehen ere. Gure eguneroko martxan, galtzak bete lan izaten dugula, hizkuntzaren egokitasun/zuzentasunak azken xehetasunetaraino zaintzen baino areago, beste betebehar batzutan. Eta, komunikabideok hizkuntzaz egiten dugun erabilpenaren kezka, ba egia esan, ez da gurea bakarrik.

Lazaro Carreter hizkuntzalari ospetsuak, adibidez, erredakzio guztietarako estilo liburu bakarra eskatzen zuen, oraindik orain, hizkuntzaren, gazteleraren egokitasun eta zuzentasunaren mesedetan. Bestalde, jakina da, Ipar Amerikan, hizkuntzalari eta idazle asko eta askok hainbat gaitzesten duten *spainglish*-aren oihartzun bilakatuak direla hainbat hedabide, entzun-ikusizko hedabide. Espainolaren erabiltzale jakitun askok gaitzesten dutenari, indar berriak eman eta entzuleen artean arrakasta lortuz gainera.

Quebec-eko Gobernuko Edith Bedard-en hitzok gogorarazi dizkit egunotako gogoetak:

"Depuis 25 ans, c'est l'oralisation du français qui marque, par le poids de son omniprésence dans les échanges, les normes usuelles de la langue".

"Cette transformation répond assurément aux impératifs de la vie contemporaine et à la préoccupation constante de communiquer. La transmission orale s'est imposée pour traiter 'à chaud' et de façon immediate les informations d'actualité... (...) Les nouveaux messages ont des caractères communs, ceux d'un français plus lâche, moins élaboré, plus pauvre au niveau de chaque locuteur, mais qui, globalement, autorise la multiplicité des variantes antérieurement écartées au titre de vulgarismes" (1).

Hor nonbait gabiltza ba, gu ere.

Gure eguneroko esperientziara itzuliz. Gero eta kazetari eta esatari gehiago dago, ume-umetatik hasita, ikasketa guztiak euskaraz egin dituena, EGA tituluduna, baina, tamalez, sarri askotan, ez dira pareko izaten kazetari sena eta euskararen sena. Idatzizkoari lotuegia, prosodia eskasekoa, errejistrorik gabea... Eta hori ahoskerari dagokionean ere antzeman ohi da.

Nik baino hobeto izendatzen dituzte hizkuntzalariek, adituek, gure gabezia horiek. Eta hor daude. Baina, kalean ere, euskaldunon artean ere, hizkuntzaren erabilera xelebre asko entzuten da. Bazenekite neure etxean bertan 5 urteko alabari nolakoak entzuten dizkiodan! Eta hirugarren urtea aurten egunero ikastolara joanez!

(1) *La problematique de l'improvisation* 39. or. *La qualité de las langues: survol des préoccupations récentes* - Édith Bédard. Gouvernement du Québec. Conseil de la langue française 1979.

Arazo eta kezkabiderik ez da falta. Baina inoiz baino biziago ari gara. Horregatik, Euskaltzaindia argitaratzen ari den arau guztion inguruan, orain, bereziki Euskara Batuaren ahoskera zainduari buruzkootan, lehen aipatzen nuen zubigintza horretan saiatu beharko dugu. Baita euskarazko irration ikuspegitik ere. Eta arduradun naizenez, Euskadi Irratiaren eta Euskadi Gaztearen ikuspegitik ere bai, zehazki. Lehenik eta behin, gu geu, irrati euskaldunetako esatariok bide egokian jartzeko eta, gainera, entzuleekiko zubigintza modu egoki eta erosoan egiteko.

Irratilariok, telebista aurkezle, pelikula bikoizle, errezitatzaile, ipuin kontalari, irakasle, sermolari, antzesle eta abarrekin batera, bitartekari egokiak izan gintezke, Nursiako San Benitok bere monastegiko fraideen artean ezarri zuen eta geuk ere ezagutu izan dugun hura, hau da, otorduetan ozen, boz-gora irakurtzearena gure egunotara egokitzeko. XIX. mendean Kubako zigarrogileen artean ere, fabriketan alegia, modan egon zen puruak egiten ari ziren bitartean kontu entretenigarriak entzunaraziko zizkien irakurle profesionalak edukitzea. Gaur mundu guztiak irratia edo telebista pizten du. Hor behar ditugu, beraz, Euskara Batuaren ahoskera zainduaren eredu izango diren irakurle onak. Zinez, diotzuet, Euskadi Irratiak badauzkala eredu on askoak, entzuten dituzuen guztiak erredugarri ez izan arren.

Arratsaldeon izan dezazuela!

IV. AHOSKERA JARDUNALDIAK:

Ondorioak

Donezteb e, 1998-IX-26

1. Ahoskera lantaldea hizkuntzalari, hedabide-ordezkari eta lau probintzietako irakasleek osatu dute, 1994rako Ahoskera batzordeak proposatua denon artean landu delarik. Elkarlana benetan aberasgarri gertatu da eta emaitza hemen eskaini da. Hemendik aurrera ikertzaile, irakasle eta prentsa eremuko profesionalok lan-bilkura gehiago burutu behar genuke jardunaldiotan aipatu direnak ikertu eta sakontzeko.

2. Beraz, ahoskera lantalde hau bezalako beste asko sortu beharko lirateke ahoskeraren inguruko lanak egin, ikertu eta bultzatzeko: Euskaltzaindiaren arauak nola erabili, zabaldu eta osatu tokian-tokiko eta kasuan-kasukoaren arabera. Triste izango litzateke arau-emaile, ikerlari eta erabiltzaileen arteko zubitasunaren abiapuntua izan gura izan duen lantalde honek bere lana bukatuta, besterik sortuko ez balitz.

3. Donezteben egindako jardunaldion antzekoak gehiago antolatu beharko lituzke Euskaltzaindiak gerora ere, honelakoak besteon lanaren akuilu izan baitaitezke. Besteoi, ordea, lana gelditzen zaigu. Mundua ezin da arau-saltzaile eta arau-erosle taldeetan, besterik gabe, zatitu. Hemen hasitako eztabaidak jarraipena behar du. Ezin gara ezer egin gabe gelditu ea Euskaltzaindiak ahoskera arazoak nola konpontzen dizkigun. Denok dugu zeresana gai hauetan, ahoskera erabilera esparruen finkatzea, arauen irakaskuntzaren nondik-norakoen sakontzea, eta abar erabiltzaile profesionalen lana dira.

4. Aipatu puntuok kontuan izanik, on litzateke hurrengo jardunaldietan partaidetza aktibo handiagoa izatea bai esatari, kazetari, ikertzaile, ikasle eta irakasleen aldetik. Izan ere, eztabaidaren bidez arau daiteke ahoskera eta ez arau zerrenda itsuen bidez. Batetik, asko dugu denok honetan elkarrengandik ikasteko. Bestetik, ahoskeraren arautzea behar bezala egingo bada, beharrezko da arau-emaile eta hartzaileen arteko komunikazio garbi eta zuzena.

Miren Lourdes Oñederra,
Ahoskera azpibatzorde arduraduna